



# ttipi-ttapa

TOKIKOM

erran.eus

2015eko azaroaren 26an | XXXV. urtea | 651. zenbakia

Miren OTERMIN



Leizarra  
Karate Modernoko  
Munduko txapeldun

## Gehigarri berezia

Kirol denboraldia → 25-48

## LESAKA → 12

Keinu leihoak antzerki zikloko saioak abenduan

## ESKUALDEA → 23

Saharari laguntzeko diru-bilketa abian

## ITUREN → 28

Kultur egunak abenduko lehenengo asteburuan

## BAZTAN → 56

Euskarararen alde lasterka abenduaren 3an

Izaro IRIARTE BAZTERRIKA | OxiMUN ekimenari buruz

## Teoriatik praktikara jotzeko aukera

Mundu guztiko unibertsitate ikasle eta profesionalekin batera, Oxforden izan da azaroaren 12tik 16ra Izaro Iriarte beratarra. OxiMUN ekimenean parte hartu du

eta bertan, Nazio Batuen funtzionamendu konplexuari buruz ikasteko aukera izan du, herrialde baten interes errealak defendatuz.

ELKARRIZKETA → 3



## Eskualdeko kirol taldeak baloi gosez



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL



ERREPORTAJEA → 4-5

Udazkenean izaten dira urte osoko suteen erdiak; horietatik herena tximinietan. Ekidin litezkeen suteak dira, tximinia garbitu eta erabilera arau batzuk betetzen badira.

KIROLA → 65

Nafarroako txapela jantzi ondotik, Euskadikoa eta Mundukoa lortzeko lehian ari dira Beti Gazte sokatira taldekoak.

BEGIRATU → 70



OPARI TXARTELAk eskuragarri ikur hau duten komertzioetan



berako agenda  
.eus



Ekitaldien gaineko informazioa  
012 telefonon eta [www.berakoagenda.eus](http://www.berakoagenda.eus)

# abendua

## berako agenda

**3**  
ortzeguna

**NAFARROAKO EGUNAREN KONTZERTUA:**  
Auzperri Abesbatza (Aurizberri)  
13:00 • Kultur etxean  
Antolatzailea: Nafarroako Gobernua  
Argibide gehiago: [www.azperriabesbatza.com](http://www.azperriabesbatza.com)

**11**  
ortziralea

**Olentzero datorrela!**  
**IPUIN SAIOA**  
(Ixabel Millet)  
3-6 urte  
bitartekoentzat  
17:30  
Herri Liburutegian  
Argibide gehiago:  
[www.ixabel.com](http://www.ixabel.com)

**14**  
astelehena

**PIANO entzunaldia**  
18:00 • Musika Eskolan

**15**  
asteartea

**BIOLIN entzunaldia**  
18:00 • Musika Eskolan

**16**  
asteazkena

**EGUBERRIETAKO kontzertua**  
18:30 • Kultur Etxean

**17**  
ortzeguna

**LIBURU AURKEZPENA:**  
**Sin piedad**  
(Fernando Mikelarena)  
19:00 • Beralandetan

**18**  
ortziralea

**TRIKITIXA ETA AKORDEOI entzunaldia**  
18:00 • Musika Eskolan

**24**  
ortzeguna

**OLENTZEROA**  
17:00 • Herriko Etxeko plazan

**26**  
larunbata

**BERA KANTARI**  
Illekuetatik hasita

**31**  
ortzeguna

**GLIN-GLAN ETA DIOSTESALBEA**  
Herriko karriketan barna




# BANAKA-BANAKA, DENAK. BIRZIKLATU ZURE TEEHak\*



Ez bota TEEHak edukiontzira, lagundu horiek birziklatzen

\*Tresna Elektriko eta Elektronikoen Hondakinak.

Eraman zure tresna zaharra, berria erosten duzun dendara, edo erabili itzazu zure mankomunitateko zerbitzuak.

Argibideak zure mankomunitatean:

Alto Araxes (948 513 087)

Baztan: [www.baztan.eus](http://www.baztan.eus) (948 580 006)

Bortzirriak: [www.bortzirriakzabor.com](http://www.bortzirriakzabor.com) (948 635 254)

Malerreka: [www.malerrekakomankomunitatea.com](http://www.malerrekakomankomunitatea.com)  
(948 451 746)

Mendialdea: [www.mendialdea.net](http://www.mendialdea.net) (948 510 444)



Ekimen bultzatzaileak

Nafarroako Gobernua  
Gobierno de Navarra

AMBILAM  
Asociación de Municipios de Navarra

ecoasimelec

ecofimática

ECOLEC  
FUNDACIÓN

Babesleak

ARAXES GARABO HIRIKOMUNITATEA  
MANCOMUNIDAD DEL ALTO ARAXES

Baztango Udala

Bortzirietako Hiri-Hondakimen Mankomunitatea

ECOLUM

eco rae's

écotic  
FUNDACIÓN

European Recycling Platform

tragamóvil

Gestión Ambiental de Navarra, S.A.

Malerrekako Mankomunitatea

Mendialdea Mankomunitatea

Oxforden egin berri den OxiMUN ekimenean parte hartu du Izaro Iriarte beratarrak. Nazioarteko harremanak eta zuzenbidea ikasten ari da eta teoriatik praktikara joz,

Nazio Batuen lan egiteko modua bertatik bertara ezagutzeko aukera izan du. Mundu guztiko unibertsitate ikasle eta profesionalen batera aritu da lanean eta UNESCOren

baitan, Irango Islamiar Errepublikako ordezkari lanak egitea egokitu zaio, herrialde horren interes errealek defendatzea. Esperientzia aberasgarria izan dela dio.

Izaro IRIARTE BAZTERRIKA | OxiMUNen parte hartu duen ikasle beratarra

# «Munduko herrialde desberdinen pisua egiaztatzeko balio izan dit»

E. IRAOLA |

## Zer da OxiMUN?

Oxfordeko Unibertsitateko Nazio Batuen elkar-teak antolatzen duen ekimena da. Bertan, Nazio Batuen parte diren 193 herrialdeetako baten delegazio-lanak egiten dira edo, esperientzia handia duten pertsonak komiteren bateko buru izan daitezke. Nazio Batuetako protokoloak guztiz jarraitu behar dira eta egokitu zaizun herrialdearen interes errealek defendatu hasierako eztabaidetatik azken ebazpena bozkatu arte.

## Zein balio dute gero ebazpen horiek?

Oxfordeko Unibertsitateak Nazio Batuetara bidaltzen dituzte, benetako ordezkariak irakur dituzaten. Esperientzia honen parte hartzaileontzat du balio gehien, Nazio Batuetan zeharka bada ere parte hartzeko aukera eskaintzen digulako. Gainera, Nazio Batuen funtzionamendu konplexuari buruz eta egokitutako gaien buruz informazio asko ikasteko aukera ematen du.

## Zer espero zenuen eta zerekin egin duzu topo?

Mundu osoko jendea egonen zela banekien, baina ez nuen espero Estatu Batuak, Txina eta Singapur bezalako herrialde urrunetatik hainbertze jende etorriko zenik. Egia erran, maila oso altuko jendea topatu dut,



ARGAZKIA: UTZITAKO ARGAZKIA

Azaroaren 12tik 16ra Oxfordeko Unibertsitateak antolatutako ekimenean parte hartu du.

herrialde askotan eskolan bigarren hezkuntzan daudenean prestatzen dituzte mundu mailako halako ekitaldietarako eta noski, hori segituan nabari zaie. Politikari onen modura, izugarri ongi hitz egiten dute, nahiz eta askotan gaiari buruz asko ez jakin.

## Zer ikasi duzu?

Gauza asko ikasi ditut egun gutxitan, baina batez ere munduko herrialde desberdinen pisua egiaztatu dut. Irani buruzko informazio asko eskuratu dut, batez ere natura-baliabide eta ideologiaren garrantziari buruzkoak. Jende oso prestatua zegoen nire komite barruan eta haiei esker, halako lehen espe-

## PARISKO ERASOAK

«Halako gauzak gertatzen direnean, Nazio Batuek izaten duten jokaerarekiko nahiko kritikoa naiz. Terrorismoarekin bukatzeko diplomazia eta estrategia ona behar da, indar soila baino gehiago. Nahiko argi geratu izan da denok indarra erabiltzeko gai garelako, baina biolentziari ezin zaio biolentzia gehiagorekin erantzun. Badirudi batzuei bi Mundu Gerra ondoren oraindik ere etzaiela argi geratu.»

rientzia honetan eztabaiden eta erabaki-hartzeen protokoloa ia-ia osorik ikasi ahal izan dut.

## Zein da lan egiteko modua?

Komite bakoitzean herrialde desberdinetako delegazioak zeuden eta bakoitzak, bere herrialdeko gobernuaren informazioa baliatuz bere interesak defendatu behar zituen. Nire komitean (UNESCO) 25 delegatu eta hiru batzar-buru izan gara eta egia esan, ondo moldatu gara. Goizez lau orduko saioa egiten genuen eta arratsalde bertze lau. Egia erran, nahiko gogorra da hainbeste orduz gai berdinen inguruan eztabaidatzen egotea, herrialdeen ar-

tean tentsioak eta aurkako interesak sartzen direlako tartean. Gau aldera gala, zeremonia eta afariak izan ditugu egunero, estresa pixka bat konpentsatzeko.

## Prestaketa lan handia eskatu dizu?

Hilabete askotako lana egin behar izan dut. UNESCO batzordeak bi gai zituen eztabaidatzeko: ur-segurtasuna eta ur-baliabideen kudeaketa eta adierazpen askatasunaren babesa handitzea kazetari eta komunikabide aniztasuna babestuz. Gainera, Iran ez da herrialde bereziki gardena eta informazio argia lortu eta eztabaidatu behar nituen gaien buruzko gobernu erabakien berri izateko, nire lagun iraniar bat zen informazio iturri bakarra. Gainera, protokoloak ere kontuan izan behar dira. Hasiara batetik 30 bat orrialdeko liburuxka bat eman ziguten protokolo-jarraibide guztiak azaltzen zituena. Hauek garrantzi handikoak dira, protokolotik kanpo errandako eta egingutako guztia baliogabekotzat hartzen baita. Horrelako gauzak ezin dira liburuetatik ikasi, praktikatu beharra dago.

## Errepikatuko zenuke?

Askok daukat ikasteko eta lehen esperientzia bezala ezin hobea izan denez, heldu den urtean ere egingen dut saiakera.

GIZARTEA → SUTE ARRISKUAK EKIDIN

# Sutondo goxoan arriskurik gabe

Urtean behin tximiniak garbitu eta erabilera arau batzuk betetzea aholkatzen dute suhiltzaileek

Hotza iritsi orduko, suaren ondoan hartzen du aunitzek babesa. Sua piztu, itzali eta tximini zuloak darama kea. Baina kontuan hartzen da oinarrizkoena? Badakigu zein den tximiniaren egoera? Kedarrez betetako hodiak, gaizki erakitakoak tximiniak... izaten dira udazken-negu parteko suteen eragileak. Gehienak, arduraz jokatuta, ekidin litezkeen suteak.

## Eneritz IRAOLA |

Tximiniak martxan jartzearekin batera, suhiltzaile parkeetan larrialdi deiak ugaritzen dira. Estatistikek ere hala diote; negu partean gertatzen dira eta urtean Estatuan izaten diren suteen erdiak. Oronoz-Mugairin suhiltzaile lanetan ari den Iñigo Orejarekin bildu da TTIPI-TTAPA gaiaz solasteko eta hainbat aholku emateaz gain, azpimarratu nahi izan du «oinarrizkoena tximinia garbi edukitzea» dela.

## URTEAN BEHIN GUTXIENEZ GARBITU


Tximinia zenbatero garbitu beharko litzatekeen galdetuta, urrezko araurik ez dagoela dio Orejak «erabileraren arabera aldatzen da hori. Norberak ikusi behar du zein den bere tximiniaren egoera, ez baita gauza bera egun osoan

## DATUA

# 20-30

IRTEERA  
egin zituzten iaz  
Oronoz-Mugairiko  
suhiltzaileek tximinietako  
suteengatik

piztuta egoten den tximinia bat edo iluntzetan eta noizbehinka pizten den bat. Dena den, urtean behin behintzat garbitzea komeni da eta tximinia zaharra bada urtean bitan. Egokiena, garbiketa negu amaieran edo udazken hasieran egitea da horrela hurrengo hotzak hasten direnerako guztia prest izateko. 20 minutuko kontua da, baina jendeak normalean ez du hori egiten. Lehendabiziko aldiz piztu, eta arazoak sortzen



UTZITAKO ARGAZKIA

Urtean behin, tximinia barrendik ongi garbitzea aholkatzen da.

zaizkie, eta orduan hasten dira kezkatzen». Gainera «ez da ahaztu behar garbiketa egoki batekin segurtasuna irabazi eta kontsumoa eta kutsadura ere murrizten dela».

## SUTEEN ARRAZOIAK

Tximiniak su hartzen duela entzundakoan, eraikin zahar bat da burura etortzen zaigun le-


henbizikoa. Errealitatea beste da ordea, «tximinia berriak izaten dira gehiagotan su hartzen dutenak, askotan, instalazioa bera ez delako egokia izaten» azaldu du Orejak.

Sute hauek ekiditeko, tximiniaren irteera bera hartu behar da kontuan. Irteera horrek zuzena izan edo 45 graduko inklinazioa eduki

beharko luke. Suhiltzaileak behar baino gehiagotan ikusi dituzte gomendagarriak ez diren bihurdurak edota loturak «hodia okertu, desbideratu... egiten dute eta gero zikinkeria bertan pilatu liteke». Beste batzuetan berriz, hodi inoxidable horren inguruan dagoenari ez zaio erreparatzen «egurrezko soliberen bati

## AHOLKUAK

- Sua maiz pizten bada, **urtero garbitu** beharko litzateke tiroa, hodietan itsatsia gelditzen den kreosota kenduz. Kreosota honek hartzen baitu su, hodietan sugarrak sortuz.
- **Egur lehorrak erretzea** gomendatzen da, egur hezeek baino kreosota gutxiago sortu eta bero gehiago ematen dutelako.
- Tximinia dagoen gelaren **aireztapen egokia**. Oxigeno sarbidea ahalbidetu eta karbono monoxidoa joan dadin.
- Su har dezaketean material edo altzariek sutik urrun egon behar dute, gutxienez **metro bateko** distantziara jarri.
- Tximinia aurrean ez jarri arropa lehortzen, su har dezake eta.
- Su eta ke **detektagailuak** jarri eta **su-itzalailua eskura** eduki.
- Lotara joandakoan **itzali edo apaldu sua**.



itsatsita jartzen da hodia, aislante nahikorik ez da jartzen... eta horrek luzera arrisku handiak dakartza, hodi horrek temperatura oso altuak jasan behar ditu eta zerbait berari itsatsita badago su har dezake».

Tximinia zaharren kasuan, garbiketa falta izan ohi da arrazoi nagusia. Tximinietako kebiderearen hornei pila-tuta geratzen da kreosota, erretxina, eta horrek suteak sortzeko arriskuak areagotu egiten ditu, material horrek su har dezakeelako. Urte batetik bestera kreosota kristaldu egiten da, eta posible da berriz, lehendabiziko aldiz pizten denean, eztanda egin, eta sute bat piztea.

#### GARBIKETARAKO PRODUKTUAK

Azken aldiak tximiniak garbitzeko produktu kimikoak asko zabaldu dira. Pastilla batzuk izaten dira, egurrekin batera tximinia zulora botatzen direnak. Horiek erretzen dituzte barruko zikin guztiak «tximinia barruko tenperatura pila bat igotzen du te produktu kimiko horiek eta maiz eginez gero funtziona dezakete. Dena den, urtean behin egin beharreko garbiketa ez dute baztertzen.

#### HERRIGINTZAREN IKUR

«Garrantzia handia du sutara botatzen dugunak. Kea gorantz doa baina zikina tximiniaren hormara pegatuta geratzen da. Egur lehorra eta garbia behar du tximiniak, hezetasuna ere ez baita ona».

#### Iñigo OREJA

Mantentzeko balio du te baina tximinia barrutik eta osorik garbitzea da gakoa, norberak edo lan horiek egiten dituzten enpresei eskatuta».

#### ERRETZEN DEN EGUR MOTA

Garbitzeaz gain, erabiltzen den egur mota eta nolakoa den ere oso garrantzitsua da. Egur lehorra bota behar da beti sutara; moztu eta handik urtebetera egoten da ongien. Adituek diote eukaliptusa eta pinua direla bota litezkeen egurrik txarrenak, «jende askok erabiltzen du pinua, gainerakoak baino merkeagoa baita, baina aztarna uzten dute gerora. Bero guxtiago ematen du eta tximinia gehiago zikintzen du». Haritza, pagoa eta artea dira gehien gomendatzen direnak.

#### IÑIGO OREJA, ORONOZ-MUGAIRIN SUHILTZAILEA

## «Tximinia zaharrek baino arrisku gehiago dute aunitzetan berriek, gaizki eraikiak daudelako»

#### Tximiniak su hartzen duenean, zein izaten da arrazoa?

Egoera desberdinekin egiten dugu topo sutearen berri emanez deia jasotzen dugunean. Batzuetan tximiniaren beheko aldean dagoen hautsak sua hartu duelako izaten da. Orduan arriskua ez da horren handia. Teilatuek hartzen duenean, ordea, egoera zailtzen da. Inguruko egituraren batek, teilatuko solibere batek adibidez, su hartu duelako izan liteke. Kezkagarria da, azken aldiak arrazoi nagusia, tximinia bera izaten dela, gaizki eraikia dagoelako.

#### Egituran dago, beraz, arazoa?

Bai, hala da, lehengo tximini zaharrak normalean lauki bat izaten ziren, bloke bat, barrerik hutsa eta kea arazo gabe joaten zen horrela kanpora. Tximinia berriek, hodi inoxidable bat eramaten dute barruko aldean. Berez, seguruagoak behar lukete baina konturatu gara gaizki eraikitzen direla askotan. Lehenbiziko teilatua egin eta gero hasten dira tximinia jartzen, ongi datorkien tokian jarri eta ea aguantatzen duen, segurtasun neurri asko bete gabe. Beste batzuetan aislante nahikoa ez dute jartzen edo hodi inoxidable hori teilatuko solubere bati itsatsita jartzen dutelako... tximinia zaharrak baino arriskutsuagoak dira askotan. Hodi horrek tenperatu oso altuak jasan behar izaten ditu eta denboraren poderioz, hodiak aldameneko egurra berotu eta su har dezake.

#### Zerk areagotzen du arriskua?

Erretzen diren gauzek. Pago, lizar, haritz, gaztain... lehor eta ona baduzu ez dago arazorik. Pinua eta altzari zaharrak botatzen badituzu sutara ordea, laka eta barnizak, erretxina duen zerbait sartzen baduzu, hori beti pegatu egiten da paretara. Kea badoa gora baina pixka bat hozten denean sekatu eta pegatuta geratzen da, pareta edo tubo inoxidablean. Egur zikin, solibe zaharrak, mahaiak, tetrabrik kaxak... Nere amonak dena sutara botatzen zuen eta askok oraindik halaxe segitzen dute, baina hori ez da zuzena. Plastikoa duten gauzak ere arrisku handia dute, sobreak adibidez. Plastiko, barniz, pintura, laktuak... beti uzten du zakarra. Egur lehorra eta garbia behar du tximiniak hezetasuna ere ez baita ona.

#### Nola jakin liteke tximinia zikina dagoela?

Tximinia berrietan soinua aditzen da, zakarrak erortzen denean dezenteko soinua ateratzen du. Baina orokorrean suak ongi tiratzen dela ikusi behar da, barrura ez duela egiten, kea ongi ateratzen dela...

#### Eta behin su hartutakoan?

Tximiniak su hartu eta kea etxe barrura sartzen ari bada, 112ra deitu behar da ahalik eta azkarren eta tximinia dagoen gela aislatu. Ateak itxi eta etxetik atera behar da lehenbailehen. Suak beti ematen du beldurra baina ura duzu ondoan eta ahalik eta lasaien hartu behar da egoera.





**Nire txanda**  
Ruben GARATE

## Supermerkatuko fedea

Apez ezagun batek, Greziako pentsalari handiek edo txinatar esaera zaharrek bezala, buruan gelditu zitzaigun esaldia bota zuen: Jendeak supermerkatuko fedea dauka; Supermerkatuan bezala, pasilloetan interesatzen zaiguna hartzen goaz, eta gainerakoa bertan gelditzen da. Egunkarietan bi artikulu irakurrita datorkit hau burura. Batek zioen Espainiako 20.000 bat familiek beraien etxeko egongelan kapera edo santutegia jarri dutela, IBI zerga ez ordaintzeko, kultu edo gurtzarako lekuek ez baitute zerga hori ordaindu beharrik. Bigarrena Florentzian gertatu da, Italian, baina hemen ere gerta daiteke. Ikastetxe batek museo bateko erakusketara egin behar zuen txangoa bertan behera utzi du, kristauak ez diren familien sentsibilitatea ez mintzeko. Nonbait, Kristo gurutziltzatua ageri den Marc Chagall-en *La Crucifixion* margolana zegoen erakusketan. Eguneroan gertatzen diren kontu sinestezinetako bat. Hauetako bat Rio de Janeirora joan eta hango Kristoaren eskultura erraldoia ikusiko balu bizi guztirako traumatizatua geldituko litzateke. Zer gertatzen zaigu? Zein mundutan bizi nahi dugu?

### Ezpala

Aitor AROTZENA

## Non da oinazearen muga?

Gerratik ihesi, Turkiako hondartza baten itota agertu zen Aylan mutikoaren argazkiak Europan 48-72 ordurako zimikoa eragin zigula erran du kazetari batek. Baina Sirian, Iraken... halakoak egunean 40 aldiz bertatik bertara ikusiz, aspaldian gauditua omen dute oinazearen muga hori. Parisko sarraskiari erantzuna, bonbardaketa gehiago... Beti oinazearen muga bilatu behar al dugu?

## Nabarmentzekoak



Martin GOIKOETXEA  
Argazkilararen erretiroa

Azaroaren 30ean hartuko du erretiroa Berako argazkilaria. 1974an jarri zuen laborategia etxean eta bi urte beranduago orain utziko duen lokala hartu zuen errentan.



Miren OTERMIN  
Munduko txapeldun karaten

23 urteko leitzarra da Munduko karate modernoko irabazlea. Benidormen jokatu zen lehiaketa azaroaren 7-8an eta italiar baten aurka K.O batekin irabazi zuen finala.



Tiburtzio ARRAZTOA  
Kirol merezimendua

Nafarroako Gobernuak ematen duen Kirol Merrezimenduen Zilarrezko Dominetako bat jasoko du, Amaia Azpiroz leitzarrek eta Berako Luis Irazokik bezalaxe. Ongi mereziak denak!

Atzera begira → 2005-XI-01 / TTIPI-TTAPA 411 zk.



### Mindegiaren azken txapela, 56 urterekin

XX. mendeko azken bi hamarkadetan aizkorako izar handienetako bat izan ondok, XXI. mendean ere Nafarroako txapel bat lortu zuen Miel Mindegiak, 2005eko Doneztebeko ferietan jokaturako finalean. Egia da Larretxea eta Nazabal falta zirela, baina horien hutsunea ederki aprobetxatu zuen, Barberena, Lopez, Senosiain eta Vicente gibelean uzteko. Hiru egun beranduago Tolosan Aizkolari Azkarrenaren Lehiaketa ere egin zen eta han ere txapela jantzi zuen Mindegiak. Euskal Herri osoko 30 aizkolari baino gehiago aritu ziren eta berriz ere zaharrena, Mindegia izan zen jaun eta jabe.

**ttipi-ttapa**

Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA  
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus)

Zuzendaria Aitor Arotzena Erredakzioa Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola Publizitatea Usoa Vicente, Amaia Odriozola, Aranbxa Agirre Berriemaileak Juana Mari Saizar, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Ebeñike, Koro Irtzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urroz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Nerea Tellebexa, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea Kudeatzailea Joxemanuel Irigoien Administrazioa Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

### 2015eko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	34€
Leitza	18€
Hego Euskal Herria	40€
Ipar Euskal Herria, Europa	73€
Amerika eta Australia	124€

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Bortzirietako Euskara  
Mankomunitateak  
diruz lagundua

MEKNA  
MEZINASOIA KULTURA NAFARROA



## Kolaborazioak

# Nekazaritzako lanbide heziketa eskualdean

Aitor AZKARATE, Jesus Angel GARCIA eta Mikel SOBRINO  
(Hazitik hozie, Baztango tokiko garapenerako elkarte)

Azken urteotan nekazaritza bera aunitz aldatu da, batez ere lana egiteko moduarengatik eta nekazari kopuruarengatik, erran daiteke gure eskualdean bazterreko sektore bat izatera pasatzen ari dela. Urtetik urtera nekazari guttiago bizi da bere eguneroko lanetik eta gainera ikusten da sektore zaharkitua dela, ilusio faltarekin, eta ia ez dela belaunaldi aldaketarik ere ematen ari. Sozialki ere erran daiteke ez dela aktibitate bat "prestijioduna", gazte gutti baitira lehenbiziko sektorean lan egin nahi dutenak. Orokorrean inguruko nekazal etxeak poliki-poliki intentsifikatzen edo animala kopurua handitzen joan dira (eskualdeak ingurumenarekin duen lotura alde batera utzirik), makinaria eta estruktoretan inbertsioak eginez, eta gainera hazi eta pozoinen dependentziaren zirrikan sartu gara, behin eta berriaz garapena hori dela erran baitigute. Europan sartu ginetik gehien errepikatu diguten hitza hauxe izan da: konpetitibitatea. Honek dakartzan ondorioak jasaten joan gara, ekoizpenak neurritz handitu eta horrekin batera gizarteari, bertako kulturari eta ingurumenari kalte handia egin diogu. Teknikari, asesore, saltzaile eta nola ez gure erabakiek egungo egoerara ekarri gaituzte. Hainbertze jakintza mota bidean utzi ditugu, honekin batera lanpostuak, paisaia sinplifikatua, kultura, haziak, arrazak eta belaunaldi gazteen ilusioa. Uste dugu, nekazal munduan bertze bide batzuk posible direla, horretarako heziketa garrantzitsua da. Argi baitago gurea bezalako eskualdetan, ez dela bideragarria hainbertzetan aipatu diguten leihakortasun mota hori. Bide ezberdinak aztertu beharko liriteke, ekoizpenen dibertsifikazioa, kalitatea kantitatearen aitzinean jarri behar dugu, nolabait produktu ezberdinak ekoiztu behar ditugu. Gure paisaia, ingurumena, kultura, herriak, nekazaritza bera berreskuratu eta indartu behar ditugu, heziketatik abiatuta.

Lurralde garapenerako nekazaritzak tokia behar duela uste dugu, beraz nekazaritza ekologikoa izan daiteke aterabide finko bat, horretarako heziketa oinarritzak izanik. Europako bertze herrialdetan nekazaritza ekologikoak badu toki garrantzitsu bat eta hemen polikiago garatzen ari bada ere, goitik doan sektorea da. Zenbait produktuetan eskaera eskaintzaren gaintetik dago, beraz pasatzen den trenera upen behar dugu, berandu izan baino lehen. Ezin baitugu atzendu azpiegiturak baditugula (kooperatiba, hiltegia, albai-tariak, sindikatuak etab...).

Ekoizpen eredu honek, pertsonak, herriak, kultura, ingurumena errespetatzen duenak, gainera bertze sektoreekin lotura zuzena du. Hau da, landa turismoa erakargarriagoa izanen da, jaki osasuntsuagoak lortzeko aukera gehiago izanen dugu, herriak bizitzeko erakargarriagoak izanen dira, lanpostu duinak sortuko dira... Hortaz bada nekazari gazteak hezi behar ditugu, ahalik eta lotura eta errespetu handiena izanik, ingurumenarekin, ekoizpenarekin, salmentan eta nola ez pertsonengan. Beraz, agroekologiako lanbide heziketa beharrezkoa ikusten dugu gure eskualdean, bertze nekazaritza bat posible eta beharrezkoa dela erakutsiz. Hortaz, agroekologiako lanbide heziketa eskualduna behar dugu!!!!

# Ikastolen sorrera

Esteban IRUSTA MALLEA

Ikastolara doazen gaurko umeek ezer gutxi jakingo dute noiz eta nola izan ziren ikastolen hasierak. Debeku oso luze eta gogor batetik gentozen. Noiztik? Gehienek uste dutena baino denbora luzeagotik. Besteak beste, hor agertzen dira Jackes Belakoa (1586-1667) bere euskal gramatikaz, (burruken ondorioz galdua) eta Athanase Belapeyre apezak. Honek 1696en euskarazko eskolak irekitzeko agindua eman zuen eta indarrez debekatu zioten. Geroxeago, XVIII. mendean, Borboi frantses dinastiako erregeek, agintzen hasi zirenean, politika zentralista indartu zuten. Beraien gogoak garbi agertzen da esaera honetan: "Fueoak kentzea ez da nahiko; hizkuntza ere kendu behar diegu". Denbora luze horretan euskara debekatua eta zigortua izan zen. Hainbeste urtetan bizirik irautea harrigarria zen. Geure bizitza laburrean ikusten ari ginen nola desagertzen ari zen lurraldez lurralde, gero eta eremu mugatuagoetara. Gure aurrekoek gauza bera gertatzen ari zela ikusi zuten. Eta haien aurrekoek ere bai. (...)

Eskerrak ikastolen sorreran denok norabide berdinean egin genuen arraun. Baztertua ez, hilzorian zegoen euskara, eta geure eskuetan hartu izan ez bagenu, denbora gutxi barru hilik izango zen, zeraman martxa ikusita. Eta hil edo biziko erabakia hartu zen: Ikastolak sortzea. Ez zen erabaki samurra izan. Diktadura baten menpean geunden. Nondik eta nola hasi? Kolore guztiko abertzaleek hartu zuten parte; batez ere haurren gurasoek, irakasleek eta laguntzaileek. Lanerako gogoak soberan zegoen, baina nola gaintu kontrako legedia? Elizak orduan, gaur baino influentzia handiagoa zeukan, eta bere eskolak sortzeko eskubidea zeukan, bere izenean sortu ziren ikastola asko. Horrela legea betez, traba garrantzitsuena gaintuta zegoen. Baina beste asko zeuden bidean. Lokalak behar ziren eta horrek diru asko eskatzen zuen. Beste aldetik, gaiak euskaraz ikasteko liburuak, eta euskaldun irakasle prestatuak behar ziren. Baina apurka apurka, urtez urte, aurrera egin zen. Herri oso bat martxan jartzen denean, ezina dirudiena posible gertatzen da. Lehenengo ikastolak 1950-1960 urtetan agertu ziren. Eta hurrengo hamarkadetan, herri gehienetan, sendotzen joan ziren, gaurko egoera osasuntsua lortu arte. Zoritxarrez, Nafarroan eta, batez ere iparraldean, egoera ez da ona. Une honetan, Nafarroako Gobernu berriaren politika-aldaketaz bidea samurragoa egingo dela ez da zalantzarik jartzen. Uler-tezina baitzen Nafarroan gertatzen ari zena: Gobernuak etxeko hizkuntza gorrotatzea. Egoera berriarekin normaltasuna nagusituko da, eta euskararen presentzia lurralde guztira zabalduko da. Iparraldeko egoera okerragoa da. erabakiak hartzea ez dago bertako agintarien esku. Parisko Gobernuak, aspaldiko legeak aplikatuz, ez du onartzen ofizialki, frantsesa ez den beste hizkuntzarik. 1789ko Iraultza famatuaren ondoren, Askatasuna, Berdintasuna eta Anaitasunaren izenean, euskal eskola hasiberriak eta argitalpen guztiak debekatuak izan ziren; eta milaka euskaldun gogor zigortuz, Landetara atzerriratu zituzten. Une honetan ere, egoera nahiko beltza da, baina garai batean, hegoaldean ere, egoera berdina ezagutu genuen eta hemen posible izan dena iparraldean ere hala izatea espero dugu.

## Irakurleak mintzo

## Badago beste modu bat

Iñigo LARREA (ZUBIETA)

Doneztebeko Euskadiko Kutxaren kontra borroka egin behar izan dut bakarrik, bertako zuzendariak Eroski Kooperatibak jalgitako ekarpen subordinatuak aholkatu eta komertzializatu ondotik.

Ezin izan nituen nire aurrezkiak berreskuratu, betirako zirela enteratu ondotik. Harelere, kustodia gastuak kobratu zizkidaten eta kobratu beharreko interesak 2,5 Euriborrekoak ziren (2007an).

Epaitegiatar jo behar izan nuen nire dirua berreskuratzeko. 2015eko apirilaren 22an Iruñeko bigarren epaitegiko lehen instantziako epaileak kontratu hori bertan behera uzten zuen epaia eman zuen eta Euskadiko Kutxa dirua itzultzera derrigortzen zuen, legezko interes eta guzti.

Nire aldetik, ordura arte ko-

bratuak nituen interesak bueltatu behar izan nituen.

Sententzia irmoa zen eta demandatutako erakundeak ez zuen sententzia hori errekurritu.

Dirua itzuli didate, bai, baina denbora guzti honetan galdu dudana osasuna eta sentitu dudana inpotentzia ez dizkit inork bueltatuko. Afera honengatik eskualdean kaltetuak izan direnei animatu nahi diet, bere diruarengatik eta duintasunarengatik borroka egin dezaten. Zuen ondoan izanen naizue.

## Ama... bat, esker 1000

Elena ZABALETA eta Iosune ORTEGA (Baztan Ikastolaren izenean)

Lagun agurgarriak,

Hilabete pasatu da Nafarroa Oinez Baztanen ospatu genuela. "Hama...bortz, Ama...bat" aldarriarenpean, milaka euskaltzaleren elkartasuna eta atxikimendua nagusitu ziren egun horretan gure bailaran.

Guztia antolatzeke, orain dela hilabete batzuk harat eta honat jo genuen laguntza eske. Eta baita jaso ere. Zuen ekarpenari esker, urriaren 18an, Elizondon, Nafarroako ikastolen besta ospatu ahal izan genuen. Lankidetzan. Auzolanean.

Auzolan horretako partaide izan zareten guztiei, esker 1.000!

Esker 1.000 dendan aritu zareten ama, amaxi eta laguntzaile guztiei; esker 1.000

urtean zehar egindako ekitaldietan lagundu duzue; belaiak utzi dituzue; dirua eman duzue; muntaian lagundu duzue; desmuntai; ostalaritzako txandak egin dituzue; segurtasunean aritu zarete; eguneko jarduerak gauzatzeko lan-txandak egin dituzue; Nafarroa Oinezera etorri zarete... Modu batera zein bertara, Nafarroa Oinez aitzinet ateratzen lagundu diguzuen guzti-guztiei.

Kontent gara, pozik. Gure helburuak erdietsi ditugu. Gure bailaran euskarari hauspo berria eman diogu Nafarroa Oinezi esker eta Baztan Ikastolaren azpiegitura beharretarako dirua eskuratu ahal izan digu.

Zuei guztiei esker lortu digu. Hortaz, gure eskerrik be-roenak eman nahi dizkizuegu adierazi diguzuen elkartasunarengatik. Izan ere, zuen babesik gabe ezinezko zatekeen gure ametsa errealitate bihurtzea. Agur bero bat.

**IRAKURLEAK MINTZO** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus)  
 Posta: **Koskontako bidea, 07-1 31770 LESAKA**  
 Tel.: **(0034) 948635458** Faxa: **(0034) 948635457**



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua

**TXIMISTINDAR**  
INSTALACIONES ELECTRICAS *Andueza e Iriarte, SL*

Zalain Industrialdea, 42B-4.pab | T. 948 631 452 | 639 608 034 | 639 125 046  
 jmandueza@tximistindar.com | jmiriarte@tximistindar.com

- ETXeko INSTALAZIOAK
- INSTALAZIO INTELIGENTEAK (DOMOTIKA KNX SISTEMA)
- Partner Zenbakiak: 37050 eta 43139
- Gastua optimizatzeke zure argindarraren faktura berrikusiko dugu
- Eta orain PROIEKTU ELEKTRIKOAK Kolegiatu zenbakia: 3868

**AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE**

TTIPI-TTAPA  
ALDIZKARIA  
SARE SOZIALETAN

**facebook**

[www.facebook.com/ttipi.ttapa](http://www.facebook.com/ttipi.ttapa)  
[www.facebook.com/ttipi.eus](http://www.facebook.com/ttipi.eus)

**EGIN ZAITEZ GURE LAGUN**



### Prentsatik bildutakoak



«Bakarka sentitzen naiz deserosoen. Lehenbiziko kontzertuak horrela izan ziren, baino hagitz guttitan ailegatu naiz eszenatokian bakarka hegan egitera. Argi dut ez naizela kantautorea, musika lagunekin egitea gustatzen zaidala. Eszenatoki gainean musikaren bidez ondokoarekin lortzen duzun konplizitate maila bezalako-rik ez dago».

**Joseba B LENOIR**  
Berako musikaria  
Gaztezulo • 2015.11.12



«Negatiboarekin lanean ari zarenean, argazkiaren konposizioa pentsatzen duzu, argia, eta argazki bat edo bi ateratzen dituzu gehienez. Digitalarekin jendearen mentalitatea da: 'egin 18 argazki eta ikusiko dugu zer ateratzen den!' Guk negatiboaren mentalitatearekin segitzen dugu, nahiz digitalean atera. Pentsatu, esperatu eta arrazoitu».

**Martin GOIKOETXEA**  
Berako argazkilaria  
D. NOTICIAS 2015.11.19

### 11 galdera labur

#### Nor da Karmen Prieto?

61 urteko emakumea: mendizalea, aurre-jubilatua, abertzalea...

#### Noiz hasi zinen euskara ikasten?


Orain dela urte mordoxxka bat.

#### Zerk bultzatu zintuen euskara ikastera?

Gure hizkuntza delako hasi nintzen ikasten.

#### Zenbatero elkartzen zarete euskaraz solasteko?

Astean bi egun, lau ordu gutzira.



**Karmen PRIETO → Berako euskara ikaslea**

#### Zein da zure ariketarik gustokoenena?

Gure artean solas egitea.

#### Eta klaseko ariketarik zailena?

Aditzak lehenaldian.

#### Norekin hitz egiten duzu euskaraz?

Etxean, kuadrillan, lagunartean eta dendetan.

#### Gehien gustatzen zaizun euskarazko hitza?

Hagitz ongi!

#### Eta gutxien?

Gaizki.

#### Zein aholku emanen zenioke euskarazko hitza ematen ausartzen ez denari?

Animatu zaitez, horrela jende gehiagorekin erlazionatzeko aukera izanen duzu, euskaraz egiten diren hitzaldietara joan eta edozein gai ulertu ahal izanen duzu.

#### Amets bat...

Amets asko ditut: Euskal Herri librea eta zoriontsua izatea, adibidez!.

**sarobe**  
gozotegia okindegia

p<sup>o</sup> de eztegara 25 bajo  
31780 bera (navarra)    t.948 63 08 99  
[www.sarobe.net](http://www.sarobe.net)

**MARITX**

Legia, 23-BERA    Erakusketa, Proiektu eta  
T. (0034) 636 617 450    Instalazio Elektrikoak

**LABE ZAR**

Tel: 948 631 076 · BERA

**Urte xaharra Churrut Jatetxean, bai ederki!!**

**ch**  
HOTEL churrut  
\*\*\*

Foruen plaza | BERA | T. 948 62 55 40  
T. 948 625 542  
[www.hotelchurrut.com](http://www.hotelchurrut.com)

**EGUNEKO MENUA  
TALDEENTZAKO MENUAK,  
EZKONTZAK, JAUNARTZEAK eta BATAIOAK**

**2015eko Urte Zahar Gaueko Menua**

Guijuelo JD urdaiazpiko iberikoa  
Etxeko mi-cuita sagar-konpotarekin  
Ganboiak plantxan  
\*\*\*\*\*

Itsaskiz betetako legatza amerikar saltsarekin  
\*\*\*\*\*

Idi-azpizuna chip patata, Padrongo piperra  
eta foie saltsarekin  
\*\*\*\*\*

Etxeko kremazko tututxoak, txokolate bero  
eta limoi-izozkiarekin  
\*\*\*\*\*

Eguberrietako gozoak, mahatsak, kotiloi poltsa  
\*\*\*\*\*

Gran Irache ardo ondua, Irache lagrima ardo  
gorria, Las Campanas Chardonnay ardo zuria,  
Codorniu Brut cava, kafea eta likore kopa  
\*\*\*\*\*

Prezioa: **72€** BEZ barne

**ERROTAZAR**

harategia

**BERTAKO  
PRODUKTUAK**

Eztegara, 3 · BERA  
T./F. 948 630 088  
[info@errotazar.net](mailto:info@errotazar.net)  
[www.errotazar.net](http://www.errotazar.net)

## BERA

KULTURA → AZAROAREN 27TIK 29RA

# Jaialdi izaera galduko du Ertzek aurten

Bidazirekin batera 'Baratze Kantutegia' eginen dute igandean

## TTIPI-TTAPA

Ertz da, baina ez da jaialdia. Halaxe laburbiltzen dute, 15 urteren ondotik orain arte Ertz Bertze Musiken Jaialdia izan dena antolatzen dutenek aurten egin nahi duten ariketa. «Gure kultur jarduerari, eta beraz kokatzen den errealitateari buruzko hausnarketa gisara, aurten jaialdi izaera galduko du Ertzek, bertze zerbaitez bihurtzeko», diote. Jaialdi izaerak aisialdi hutsa-

rekin duen lotura hautsi eta «gure jarduera bertze modu batean ulertzeko gaitasuna da jokoan jarri nahi duguna» aipatu dute eta kultura, gure ingurunearekin (soziala, ekologikoa, politikoa...) ulertzeko beharraz hausnartu nahi dute, jaialdia horretarako eredu egokiena ote den edo ez zalan-tzan jarritz.

Ariketa hau zerbaitez amaiara baino, «BERTZE zerbaitez hasiera izan daitekelokor», irailetik abendura bitartean zenbait ekitaldi antolatu dituzte, gehienak filosofia antzekoekin lan egiten duten bertze agente eta aktoreekin elkarlanean.



ARGAZKIA: ASIER GOGORTZA

Irailetik abendura zenbait ekitaldi antolatu ditu Ertzek. Argazkia, Donostian aterita da.

## ASTE BURUKO EGITARAUA

Jaialdi edo ez jaialdi, egitarau zabalaren presatatu dute azaroaren 27tik 29ra Beran.

Ortziralean 22:00-etan zine gaualdia izanen da Kultur Etxean, Oskar Alegria zinegile eta Iruñeko Punto de Vista zine jaialdiko zuzendariak aurkeztuta.

Larunbatean 22:00-etan, *Züek heben* ikusentzunezko emanaldia eskainiko dute Kultur Etxean. Ortzegunetik larunbatera herrian barrena soinu eta irudi bil-

tzen ariko dira Patxi Laskarai, Pierre Vissler, Mixel Etxekopar eta Jean-Christian Galtxetaburu. Batez ere beratarren euskalkiari eta solaste-ko moduari erreparatu-ko diote, bertze herri batzuetan egiten ari diren bezalaxe. Larunbatean aurkeztuko dute bildutako uzta.

Igandeko egitaraua Bidazi elkartearekin batera prestatu du Ertzek. 10:00etan *Baratze Kantutegia* eskainiko dute, entzunaldia herriko baratzeetan barna, Ja-

koba Errekondo eta Alex Mendizabalek gidatuta. 14:00etan bazkari begano ekologikoa izanen da Bidaziren eskutik lamotenean. Izena ematen duten lehen 50 lagunentzat bakarrik izanen da tokia. Apuntatzeko email bat bidali behar da [info@bidazi.org](mailto:info@bidazi.org) helbidera. Prezioa 16 eurokoa da. 17:00etan *Bizi baratzea* liburuen aurkezpena eginen du Jakoba Errekondok. Galdera-erantzun-solasaldi tartea izanen da aurkezpenaren ondotik.

**xirgil**  
jaione goya

ileapaindegi mistoa

Altzate 1, 31780 BERA  
948 631 462

**Saragueta** aholkularitza  
abokatu bulegoa

**Felipe Saragueta. Abokatua**  
· Zuzenbide administratiboa  
· Hirigintza  
· Sozietateak  
· Nazioarteko zuzenbidea  
fsaragueta@abokatua.com

**Borja Mujika. Abokatua**  
· Komunitateak  
· Herentziak  
· Familia zuzenbidea  
· Erreklamazio zibilak  
bmujica@abokatua.com

Iparralde karrika 5, behea · 31780 BERA · 948 625 162

**Manterola**  
Tekniko instalatzailea

ITURGINTZA · GASA  
KALEFAKZIOA

Zerbitzu anitzak &  
Gremioen koordinazioa

629 449 602

arropa-denda | etxeko osagarriak | lantzeria

**Arduro**

Altzate, 30 31780 BERA T. 948 630 136

**FRANCOEKA, s.l.**  
Prestatzen dituzten produktuak  
FRANCOEKA, s.l.

BILLEGIA 948 630 102  
FAUSTINO 647 810 152  
Bidassoa, 76 - atea 21-22  
31780 BERA

**SMAZIZOR**  
edariak

T./F. 948 631 557  
Helbidea. Ziobi, 3 ALKAIAGA  
eposta: mazizorsenper@gmail.com

EDARIEN  
eta  
JANARIEN  
SALMENTA  
eta  
BANAKETA

**Karma**  
ESTETIKA

Aurpegirako tratamenduak  
Mesoterapia  
Gorputzerako tratamenduak  
Erlaxatzeko masajeak  
Drainatze linfatikoa  
Faguterapia - LPG  
Presoterapia  
Argizariarekin depilatzea  
Manikura - Pedikura  
Makillajea  
Betileetako permanentea

OPARI TXARTELA  
Zure esku

Altzate 33 BERA · 948 63 09 04

KULTURA → ABENDUAREN 17AN BERALANDETAN

# Liburu berria aurkeztuko du Fernando Mikelarena historialariak

1936ko errepresioaren arduradunei izen-abizena jarri die liburuan

## TTIPI-TTAPA

Fernando Mikelarena Zaragozako Unibertsitateko irakasle eta historialari beratarrak, *Sin piedad. Limpieza política en Navarra, 1936. Responsables, colaboradores y ejecutores* liburua kaleratu berri du. Hamaika artxibotan eta iturritan arakatu du, bost

urtez, eta emaitza «Nafarroako gizartearentzat kolpe moral, politiko eta etiko handia» dela dio idazleak. 1936ko errepresioaren erantzule, laguntzaile eta gauzatzai-leak nortzuk izan ziren zehaztu du, «ardurak banatu behar direlako». Abenduaren 17an, Beralandetan aurkeztuko du liburua 19:00etan.

## Nafarroako eguneko kontzertua

Abenduaren 3an, 13:00etatik aitzinera, Auzperri abesbatzak (Aurizberri) kontzertua



ARGAZKIAK: A. AROTZENA

## Lau hamarkadako ibilbide profesionalaren bukaera

1972ko maiatzaren 2an hasi zen argazkilari lanetan Martin Goikoetxea beratarra eta 41 urteko jardunaren ondotik, hilabete hondarrean hartuko du erretiroa. Bidean negatiboaren erabilera, kolorea, argazkigintza digitalaren sorrera... denetarik bizitzea egokitu zaio. «Argazkia pentsatu, itxaron, arrazoitu eta argazkia hau da» erran ondotik klik egiten segi duela dio berak. Altzateko dendako argia betiko itzaliko du baina bere kamera ez da itzaliko. Ofizioa afizio bihurtu berri, eta han hemengo ospakizunetan ibiliko baita momentu bereziak harrapatu nahian.

eskainiko du Kultur Etxean. Nafarroako Gobernuak antolatu du saioa.

## 'Oientzero datorrela' emanaldia

Ixabel Milletek abenduaren 11n 17:30ean

eskainiko du 3-6 urte bitarteko hurrei zuzen-

dutako emanaldia.



## Ba al zenekien

Luis Irazoki Etxegaraik Nafarroako Gobernuak ematen duen kirol merezimenduaren zilarrezko domina jasoko duela abenduaren 2an. Gure Txokoako futbol taldea bultzatzeko egin duen lana saritu nahi izan dute.

# BERAn -%20

## ABENDUAK 3

09:30-13:30 | 16:30-20:00

AGARA | ARTURO | MARTZUTZAK | OINATZ | ZELA KIROLAK



## LESAKA

GIZARTEA → ELKARRETARATZEA EGIN ZUTEN

# Zahar Etxeko lan hitzarmena ez dela betetzen salatu du LABek

Oraindik ez dela Aldizkari Ofizialean argitaratu erantzun du Patronatuko presidentek

Aitor AROTZENA

Andra Mari Zahar Etxeko Patronatuak, Jose Luis Etxegarai alkateta lehendakari duela, ez du aurreko Patronatuarekin adostu eta lan baldintzak aunitz hobetzen zituen Lan Hitzarmena bete nahi. Horrela salatu du LAB sindikatuak eta kontzentrazioa ere egin zuen azaroaren 19an Plaza Zaharrean.

2013ko abenduaren 6an Lan Hitzarmen bat negoziatzeko hasi zuten negoziaketa 2015eko apirilaren 23an bukatu zela jakinarazi du LABek, eta langileen lan baldintzak nabarmen hobetzen zirela. Baina sindikatuak salatu duenez, «Patronatu berria osatu eta hartu duten erabakia Lan Hitzarmena ez aplikatzea da».

Alkate den neurrian Patronatuko presidentek den Jose Luis Etxegarai, bere aldetik, adierazi du lan hitzarmena ez dela oraindik Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu, «eta hori nahitaetzko baldintza da betetzen hasteko».

Bere erranetan, «16 hilabetez negoziatu ondoren (badira hilabeteak), maiatzaren 1ean indarrean jar zitezkeen hitzarmena, hori sinatu zuen lehengo alkatearekin, nik ekainaren 13an hartu bainuen alkatetza. Eta ez zen egin. Ez al du hitzarmen famatu honen arazo legalen bat izanen?». Aferaz solasteko Andra Mariko langilerik ez dela bereganatu zuzendu ere aipatu du Patronatuko presidentek.



ARGAZKIA: A. AROTZENA

## Ederki goxatu dira ttikienak Haurraren Egunean

Eskolako eta ikastolako Guraso Elkarteek azaroaren 14an antolatutako Haurraren Egunean, jolasean, kirolean eta dantzan ederki pasatu zuten ttikienek.

## Keinu leihoak antzerki zikloa

Keinu Leihoak Antzerki Zikloaren hemezgarren edizioa antolatu du Mairu Antzerki Tailerrak. Abenduaren 4n, Gilkitxaro taldearen *Adarretatik zintzilik* ikusgai izanen da 22:00etan Arranon. Abenduaren 5ean, Mairu Antzerki Tai-

lerraren *Talaka* 20:00etan Harriondoan. Abenduaren 6an, *Monamu Teatre*, (Bartzelona/Lesaka) 18:00etan Harriondoan. Abenduaren 26an, azkenik, *Bertso atabikoak (edo norena den basoa?)* taularatuko dute Tantirumairu eta Mairuk 20:00etan Harriondoan.

## Nafarroaren Eguneko kontzertua

Nafarroaren Eguneko emanaldien barruan, Artearen Lagunen Elkarteko Paulino Otañendi Ganbera Orkestrak kontzertua eskainiko du abenduaren 3an, arratsaldeko 1etan Harriondoa Kultur Etxeko Txokobiko aretoan.


## 48 ARGAZKILARIK PARTE HARTU DUTE, 140 ARGAZKI AURKEZTUZ

### Beti Gazteren argazki lehiaketako lehen saria Kataluniara

A. AROTZENA

Beti-Gazte elkarteak Argazki lehiaketa antolatu du aurten ere. Guztira, 48 argazkilarik 140 argazki aurkeztu dituzte lehiaketara, iaz baino gehiago.

Azaroaren 7an erabaki zuten sariak Arizkungo Lander Goñik eta Irungo Lamia elkarteko Aitor Larrukert eta Fernando Larrukert argazkilariek osatutako epaimahaiak. Lehenbiziko saria Bartzelonako Cornellá de Llobregat-eko Diego Pedra Benzal argazkilaria lortu zuen, *Pájaros* izeneko argazkiarekin (goitian). Honek 350 euroko sari bat eta



garaikurra eskuratu ditu. Bigarren saria (250 euro eta garaikurra), Gipuzkoako Soralueko Carlos de Cos Azkonarentzat izan da, *The man* izeneko lana-

rengatik. Kirol argazki onenarentzako saria, 200 euro eta garaikurra, Asier Castro de la Fuente bilbotarrarentzat izan da, *La última ola* argazkiarekin. Eta azkenik, Jon Martinez Etxabarri argazkilaria, herriko egile onenarentzako saria lortu du, *Mugimendua* argazkiarekin. 200 euro eta garaikurra eskuratu ditu lesakarrak ere.

Aurkeztutako lanak ikusteko azken aukera asteburu honetan izanen da komentuko elizan: ortzegunetik larunbatera 17:00etatik 19:00etara eta igandean 11:30etik 13:30era.

**IRU BIDE**  
Erretegia · Asador

Biturrana, 3 - Lesaka  
Tel: 948 637 127

**ZUBIONDO**  
Jatetxea

sagardotegia jatetxea

Alasta karrika  
TEL: 948 625 474  
BERA NAFARROA

**BEKO**

LÖREAK ETA LANDAREAK

Frain Auzoa · LESAKA  
Tfnoa: 948 637 826



## ARANTZA

KIROLA → LARUNBATEAN 11:00ETAN

# Euskaraz bizi nahi dut! aldarria lasterka

Bortzirietako lasterketa herrian eginen da aurten

## Nerea ALTZURI

Euskara batzordea gutzia prestatzen ari da larunbat honetarako. Bortzirietako Euskaraz Bizi Nahi Dut lasterketa herrietan txandaka egiten da eta aurtengogan, gure herriko karrakak eta inguruak hartuko ditu.

Bi lasterketa herriko prestatu dituzte. Hala ere, helburua, parte hartzaile guztiek, denek elkarrekin akitzea izanen da.

Goizeko 11etan, herriko plazatik hasi eta Azkilarrea auzoko itzulia (4 km) egin nahi duten korrikalariak abiatuko dira. Ordu laurden beranduago, Larreta auzora bitarteko ibiladia egin nahi dutenek hartuko dute lekukoa. Horrela, akabaila jendetsua emanen zaio ekimenari, lasterketa batean zein bertzean dabiltzanak bidean elkartuko baitira.

Lasterketaren ondotik indarrak hartzeko, guraso elkarteak presaturiko hamaiketako izanen da parte hartzaile guztientzat.

Izen-ematea egun berean egin beharko da. Lasterketa ttikian parte hartu behar dutenek, euro bat ordaindu beharko dute eta bertze lasterkaldi luzeagoa egin nahi dutenek, berri, hiru euro. *Euskaraz bizi nahi dut* materiala eta kamisetak ere salgai izanen dira. Gainera, lasterketako dortsalen zenbakiakin opariak zozketatuko dituzte.

## Jakoba Errekondoren solasaldia

Azaroaren 27an Jakoba Errekondo, baratzeko kontuetan aditua denak solasaldia eskainiko du Baskulan 19etatik aintzinerara.

## Filmea Baskulan

Azaroaren 25eko genero indarkerian kontrako egunaren harira, azaroaren 28an, Lukas Moodysson zuzendariaren *Lilja 4-Ever* filma



UTZITAKO ARGAZKIA

## 3.805 kilo elikagai Arantza eta Igantzitik

Joan den azaroaren 12an, Iruñean behartsuen alde lanean ari den Paris 365 Fundazioari bideratzeko, janari bilketak egin ziren Arantzan (goitian) eta Igantzian (beheitiko argazkian). 3.805 kilo bildu ziren bi herrietan, iaz baino zerbait gehiago eta biharamunean, hilaren 13an, Iruñera eraman zen bildutako janaria. Paris 365 Fundaziotik, idatzi baten bitartez, eskerrak eman dituzte, bi herrietan erakutsitako elkartasunarengatik. Herritarrek egindako lana estimatu dute eta bildutako janaria, Paris 365 jantokiko bazkaria euren sukaldetan hobeki prestatzeko hagitx baliagarria izanen dela gaineratzen dute idatzian.

emanen da arratsaldeko 6etan Baskulan. Filmazpitekin udalak eginiko hitzarmenari buruz, Filmazpitek utzi du pelikula, jatorrizko hizkuntzan eta euskarazko azpitoluekin.

## Udal bandoak

Behin baino gehiagotan, udal informazioetan, zakurrekin loturiko

berria errepikatzen da, Zakurretaz arduratzeko eskatuz. Zakurren jabeen zuzenduz, zenbait gomendio eman dira udaletik. Hauetxek laburbilduz:

Zakurrak hezi, zaindu eta identifikatu, eta erantzunkizun zibileko aseguru bat izatea ere komenigarria da; animalia ez utzi bere gisa-

ra, bakarrik, karrikan eta parkean ez eta jendeak ura edan dezakeen iturrietatik edaten ere eta bere kakak bildu.

Bertzetik, liztor asiaticoaren inguruko argibideak emanez ere, bandoa plazaratu du udalak. Liztor beltzaren kabi bat harrapatuz gero, udalean eman behar da abisua (948 634 005).



ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK  
Tel. 948 631 317 • Faxe. 948 631 587  
Irungo errep. BERA  
www.antzuzelai.com  
info@antzuzelai.com



Aintzinaldeak, angeluak, oma antzinakoak, leihoak, atek, arkuak, pilareak, tximiniak, ertalzak, moldurak, zokaloak, hilarriak, marrazkiak

## Alberto RETEGI

abokatua

## abokatua

© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

KULTURA → ABENDUAREN 5ETIK 8RA

## Prest dituzte abenduko kultur egunak

Hainbat ekitaldi  
antolatu ditu  
Euskara  
Batzordeak

### TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, Euskara Batzordeak abenduko zubia probextu du kultur ekitaldiak antolatzeko. Herriko hainbat eragileren artean presatatu dute programazioa, ohi bezala.

### LARUNBATA, ABENDUAK 5

- 11:00etan hasita, eskolako portxean mural bat margotuko dute herriko gaztetxoek. Mural horretan emandenen mezuaren bitartez, batez ere gurasoak euskaraz solastera animatu nahi dituzte.
- 16:30ean, Baratzondon, herriko adinekoak eta haurrak elkartuko dira, hainbat mahai jokotan aritzeko (partxisa, karta jokoak...). Ondotik gazta in jatea izanen da.

### IGANDEA, ABENDUAK 6

- 11:30ean herriko dantzariaren emanaldia. Irailan egiten duten emanaldian ezin izaten ditzuztenez dantza guzti-

ak eskaini, oraingo honetan 12 urte bitarteko dantzarien saioa izanen da. Herriari bueltan emanez eskainiko dituzte beren dantzak, eta bukaera plaza izanen da. Herri buelta ematen ari diren bitartean, Barberenera ailegatzean, eskolako ikasleek iaz Usandizaga musikagileari buruz eta Barberenea etxeari buruz egindako panela paratu eta azalduko dute.

- 16:30ean Baratzondo elkartean, haurrentzako *Kontu eta kantu* emanaldia izanen da, ipuina eta bertsoa nahastuen emanaldia, Fernando Anbusategiren eskutik. Ondotik txokolatada izanen da guztientzat.

### ASTELEHENA, ABENDUAK 7

- 20:30ean Baratzondo elkartean, Ramon Agirre eta Inazio Tolosak *Kokakola eta barea* antzerki emanaldia eskainiko digute.

### ASTEARTEA, ABENDUAK 8

- 12:00etan hasita, aurtien ere ajoarriero txapelketa izanen da, iaz hasitako bide beretik. Nahi duen guziak izen



UTZITAKO ARGAZKIA

### Eskolako ikasle eta irakasleen auzolana

Eskolako ikasle eta irakasleek auzolana egin dute. Haur hezkuntzako ikasleek frontoia, herriko karrika batzuk, zakarrontziak eta udaletzeko arkupeetan ziren pipa-azalak garbitu dituzte. Lehen Hezkuntzakoek, berriz, Trenbidera joan eta bertan ziren zaborrak bildu eta zegokien zakarrontzietara bota zituzten. Osotara 26 zabor poltsa bete zituzten! Harrigarria! Ea hurrengo urtean garbiago izanen den...

ematen ahal du txapelketan parte hartzeko. Horretarako Biltoki elkartekoekin harremanean jarri beharra da, abenduaren 2a baino lehen. Parte hartzaileek ajoarrieroa prestatzen duten bitartean, toka txapelketa ere izanen da.

- 13:00 aldera ajoarriero dastaketa izanen da, nahi duen guzientzat. Herritarrek aukera izanen dute, probatzeaz gainera, ajoarriero hoberenaren al-

deko botoa emateko. Eta horrela erabakiko da irabazlea zein izanen den. Botoa ematen dutenen artean saria zozketatuko da.

- 18:30ean opil jatearekin batera *Bertxotx* emanaldia izanen da. Hiru motatako sagardoak probatzeko aukera izanen dute bertaratutako guziek. Bitartean enologo batek horiei buruzko azalpenak ematen ditu, eta bi bertsolarik osatuko dute saioa.

### UDAL HAUTESKUNDEAK

Oraingoan ere ez da inor aurkeztuko Herriko Etxearen lan egiteko

### TTIPI-TTAPA

Maiatzeko hauteskundeetan hautagaitzarik aurkeztu ez zuten udalerriek bigarren deialdia izanen dute abenduaren 20ko hauteskundeetan. Igantzian hala ere, udala eta kudeatuko duen bizilagunen udal gestora bat osatuko da Nafarroako Gobernutik, zerrendarik aurkeztu ez dutelako herritarrek.

**Goieko** INDUSTRIA GARBITASUNERAKO SISTEMA ETA PRODUKTOAK

**DESIN** **ERA**

**DESINFEKZIOAK · DESINSEKTAZIOAK · DESARRATOITZEAK**

Zure inguruak klase guzietako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi xagutxoaz garbitu nahi baduzu deitu! Termita eta Pipien tratamenduak

T. 948 625 597 • Zalain, 42 B • BERA

**IGANTZIKO TAXIA**

Mediku bisitetara | Eskoletara | Lanera  
Egun pasa | Bazkari-afariak lasai egiteko  
Behar duzuenetarako...

**Eramanen zaituztet!**

T. 717 716 209 (Ana)

# SUNBILLA



ÚTITAKO ARGAZKIA

Sunbilla eta inguruko ikasleak Guadalajaran.

**GIZARTEA** → GUADALAJARAN IZAN ZIREN

## Ingelesa lantzen aritu dira 11 ikasle astebetetz

Ituren, Saldias eta Beintza-Labaiengoekin batera

**Maidar PETRIRENA**

Azaroaren 8an abiatu eta herriko eskolako

6. mailako 11 ikasle bere irakaslearekin eta Ituren, Saldias eta Labaiengo eskolakoak, Ingeleerako *Inmersion Lingüística* programa dela eta Guadalajaran ia aste bete pasatzeko aukera izan dute, bertan bertze komunitate-

ko ikasleekin elkartuz. Honen helburua ingeleza lantzea da jarduera ezberdinak eginez.

**Herreratarrak**

Azaroaren 22an akitu dituzte *Diario de Navarra* Openeko lasterketak Herrera anaiek.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

### Ezkontza berezia arbasoen herrian

Azaroaren 7an ezkontza hunkigarri eta berexi bat ospatu zuten elizan. Bill eta Jessica Zugarramurdi Ameriketara bizi dira eta, Jessicaren atautxiren herrira, gurera, ezkontzera etorri ziren. Hurbileko familikoaren artean egun eder eta polit hau ospatzeko aukera izan zuten. Eguraldi ederra, meza hunkigarria, abes-tiz, irakurgaiak eta txistuarekin *Agur Jauna* joz akitu zen elizkizuna. Ateratzera-koan inguruko tradizioa den *Aurrekua* dantzatu zioten familiartekoei (Ane eta Garazi Etxalar eta Lorea Barinagarementeria). Ondoren famili argazkiak egin zituzten. Zorionak bikote!



ARGAZKIA: BIDAL IBARRA

### Ulibeltzak taldea Bi Ahizpak mendian

Ulibeltzak mendi taldeak bere geldialdiaren ondoren berriro ere mendi irteera egiteari ekin zion azaroaren 15ean. Eguraldi paregabera aprobetxatuz Iruztungo Bi Ahizpak bisitatzea joan ziren. Hurrengo irteera azaroaren 29an egiteko asmoa dute, Balerdira (Aralarko Mendia).



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

### Trikiti eta panderojoleak Aurtitzen

Herriko pandero eta trikitixa joleak Aurtizko besta-tako emanaldian parte hartzeak aukera izan zuten azaroaren 7an. Emanaldi ederra, ttikin ttikienetik hasita taldeka banatuz bukaera haundienek eman zioten ikasitakoa erakutsiz. Zorionak denei eta no-la ez irakasle diren Arkaitz, Ainara eta Oihanari.



**ARIZTIGAIN**  
CAMPING - KANPINA



Zuk erabakitzen duzu opariaren zuhaitzkoa

pintxoak | razioak | bokatak | hanburgesak  
sandwich-ak | menuak | plater konbinatuak | karta



948 450 540 | 607 446 909 - 660 798 249 | 31791 SUNBILLA  
info@campingariztigan.com | www.campingariztigan.com



OSPAKIZUNAK → ABENDUAREN 5EAN

## ‘Euskaraz bizi nahi dut’ lasterketa prest

Eguerdian Malerreka Kantuz eginen da eta Burrunba Gazte taldeak bazkaria eginen du

**Marga ERDOZAIN**

*Malerekaren ere euskaraz bizi nahi dut* lema-  
pean ospatuko da III. edizio hau. Beste urte-  
tan bezala, aurten ere Kontseiluak bultzatuta-  
ko ekimen hau elkarla-  
nean antolatu da: eus-  
kara batzordeko hain-  
bat udal (Sunbilla, Do-  
neztebe, Eratsun) Erre-  
ka, Doneztebarrak Mer-  
katariek elkarteak, Eus-  
kaltegia, Burrunba gazte  
taldea eta Doneztebe-  
ko guraso elkarteak.  
Lasterketa hau ez da  
konpetitiboa, euskaraz  
bizitzeko sentsibiliza-  
zioa handitzea du hel-  
buru. Aurreko urtetan

bezala, lau kategorie-  
tan banatuko da: 0-6 ur-  
te, 7-11 urte; 12-17 ur-  
te eta 18 urtetik aurre-  
rakoena. 11etan abia-  
tuko dira gazteenak eta  
11,15etan helduen txan-  
da izanen da.

Lasterketaren ondo-  
ren, Mankomunitateko  
Euskara Batzordearen  
laguntzaz, partaide  
guztiei edaria eta boka-  
ta txiki bat banatuko  
zaie. Bukatzeko, hain-  
bat sarien zozketa eta  
banaketa eginen da bai-  
ta urtero egiten den fa-  
milia argazkia ere. Ea  
aurten aurreko edizioe-  
tako jende kopurua bilt-  
zen den, 100-120 lagu-  
nekoa.

**MALERREKA KANTUZ**

Larunbat horretan  
karrikak korrikalariz be-  
teko dira, era txalo eta  
izerdiei Malerreka kan-  
tuz ekimenak lekukoa  
hartuko die. Udaletxetik  
12:30ean euskal kantuz  
lasterketa polita buru-  
ko da karriketan. Hitzor-  
du horren helmugan



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

### Giro ederra izan da aurten ere ferietan

Azienda ederrak, ehunka salmenta postu, herri kirol txapelketa eta erakustal-  
diak... Aurten ere denetik izan zuen Udazkeneko Azienda Feriak.

Udalak eskainitako aperi-  
tiboa izanen da. On-  
dotik, Burrunba Gazte

taldeak txanda hartuko  
du, kantuz bazkaria an-  
tolatu baitu.

### FLASH

#### Errekako saskia

Errekako Eguberrieta-  
ko saskia eskuratzeko  
boletok salgai daude  
euro batean. Bertze ur-  
te batez, saski ederra  
atundu du. Saski hau  
elkarteko jarduera fi-  
nantzatzeko hagitz  
garrantzitsua da.  
Zozketa abenduren  
18an izanen da.

#### Azaroaren 28a

Larunbatean, Erreka-  
ko eskubaloi taldeen  
aurkezpena, Donezte-  
barrak elkartearen 500  
eta 1.000 euroko  
*estren* zozketa kirolde-  
gian eta 20:30ean Fal-  
tzesko eta Mendi  
Abesbatzen emanal-  
dia elizan izanen dira.

### AZAROAREN 20AN MANIFESTAZIOA EGIN ZUTEN

## Greba mugagabeen daude Aparango langileak

#### TTIPI-TTAPA

Azaroaren 12tik hasita Aparan lantokiko lan-  
gileak greba mugagabeen daude, beraien etor-  
kizuna argitzeko. Gaur egun 37 langile dituen lan-  
tokiak bideragarritasuna eta etorkizuna badue-  
la uste dute langileek. Azaroaren 20an mani-  
festazioa egin zuten beraien egoera salatzeko.  
Greba mugagabea hasterakoan, Langileen Ba-  
tzordeko hiru ordezkariak dituen ELA sindikatu-  
ak igorritako idatziak zioenez, «azken urte haue-  
tan, Aparango nagusiek, enpresaren etorkizuna  
hobetze aldera, langileei esfortzu ugari eskatu  
dizkigu, hala nola, soldaten %10eko jautsiera eta  
lan orduak igotzea doan». 2015ean, soldaten atze-  
rapenak nabarmenak izan direla salatu dute, 4  
hilabete eta erdiko zorra izateraino langileekin».

## BIDASOA ALTZARIAK

ALTZARIAK · DEKORAZIOA  
PROIEKTUAK · OIHALAK  
PAPER MARGOTUAK

Nafarroa ibilbidea,9 IRUN | T. 943 63 29 32  
info@mueblesbidasoa.es | www.mueblesbidasoa.es





GIZARTEA → 40 URTE IREKI ZELA

## Moldaketa lanak egiten ari dira Errandonea ostatuko jangela zabaltzeko

Publikoarentzat gelditzen zen eremu zabala estutu eta jantokia zabaldu

### Fermin ETXEKOLONEA

Errandonea taberna moldatzen ari dira. Mikel Juanikorena nagusia ari da zaharberritze lanean. 40 urte dira taberna moduan ireki zutela Errandoneko sotoa. Jangela ttiki xamarra gelditu zaie, zenbait

otordutan pasabide es-tuarekin eta hori zabaltzeko lanetan ari dira. Publikoarendako gelditzen zen eremu zabala estutu eta jantokia zabaltzen ari dira. Ea, oraingo moldaketekin beste 40 urte betetzen dituzten!

### Alix Gereka udal langilea sei hilabetez

Herri ttikietan lanak egiteko Gobernuaren dirulaguntza deialdiari lotu zaio Udala. Deialdia-



ARGAZKIA: JON MIKEL ARAGON  
Moldaketa lanetan dabilta Errandonean.

ren xedea, jende gazteari herrian lanean aritzeko aukera eskaintzea da, 30 urtez beheitikoak izatea eta beste zenbait baldintza bete behar izaten dituzte. Aldi honetan, Udalak Alix Gereka hartu du sei hilabeterako. Asmoa, hasieran errota zaintzen eta kudeatzen hastea da. Edorta Murua erroztazaina hasia zaio lana erakusten Gerekari.

### Ba al zenekien

Izaskun Zubialde eta konpainiaren *Euskal mitologia haurrei kontatua* liburuaren bigarren argitalpena egin dutela (lehenbizikoa agortuta) eta frantsesera ere itzuliko dutela.

### Genero indarkeriaren aurka

Udala parte hartzea da Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako nazioarteko egunean. Oihal batzuk margotzeko eta balkoietan jartzeko ideia dute. Txitxillo elkartean ere

egin dute haurrentzako tailerra, oihalak prestatzeko.

### Jaiotza

Sagardiko Maddi Elizalde Telletxea jaio da. Zorionak Joanes eta Pili gurasoei eta Juan eta Lourdes Zubietako aitaxi-amatxiei.

1951tik  
**Casa Cambra**  
lentzeria-etxea

**Edredoi nordikoetan espezialistak**  
edredoi fundak · albornoak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak  
Tafalla, 13 · IRUÑA · 948 230 634

## ELGORRIAGA

GIZARTEA → LEHIAKETARA ATERA ETA GERO

# Xabier Irisarrik hartu du Herriko Ostatua

Emakumeen aurkako indarkeria salatzen egintzak egiten dira igandean

## Udal langilea

Iosu Irueta gaztea hartu du udalak sei hilabetez herriko lanak egiteko. Herria txukun edukitzeaz eta bertze lantxo batzuk egiteaz arduratuko da.

## Emakumeen aurkako indarkeriaren kontra

Azaroaren 29an, igande goizean tailer bat antolatu dute, haur, gazte eta helduei zuzendua. Emakumeen aurkako indarkeria salatzen egintzak egiten dituzte eta udaletxeko balkoian eta herrian barrena jarriko dituzte muralak eta kartelak, heziketa

## Mattin LARRALDE

Xabier Irisarri herri-tarrak hartu du Herriko Ostatua kudeatzearen ardura. Udalak eskatzen zuen balditzetan sartu da: hilabetean 10 euro errenta ordaintzea eta ura, argia, gasa eta ordutegia jartzea bere gain. Hortik aurrera datorrena datorrela, ongi etorrira izango da, herriari mugimendua ematen baitio ostatuak.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Urtero besta ospatu du Zorroilo elkarteak. Argazkian ageri den toka apostuaren ondotik bazkari ederra izan zuten. Bazkalondoan bingoa ere izan zuten eta umore ona nagusitu zen.

ta garaile izateko eta emakumeek sufritu behar izaten dituzten hilketak eta bertze basakeriak baztertze.

## Gas naturala

Herria hankaz goiti daukagu gas naturala

sartzeko lanak direla eta. Hodiak eta engantxeak egiteko hautsi behar izan dituzte karrikak, baina gasa etxean izan nahi badugu, ezinbestekoa da hori egitea. Ea lehenbailehen bukatzen dituzten lanak.

## BERTIZARANA

## HAUTESKUNDEAK

Narbarte eta Oieregiko kontzejuetarako zerrendak aurkeztu dituzte, Legasan ez

## TTIPI-TTAPA

Maiatzeko hauteskundeetan hautagai-tzarik aurkeztu ez zuten udalari eta kontzejuek bigarren deialdia izanen dute abenduaren 20ko hauteskundeetan. Legasan hala ere, kontzejua kudeatuko duen bizilagunen udal gestora bat osatuko du Nafarroako Gobernuak, herri-tarrek zerrendarik aurkeztu ez dutelako.

Narbarte eta Oieregiko kontzejuetan, berri, zerrendak aurkeztu dira. Hauek abenduaren 20an bozkatu dira eta urtarilla hasiera izanen da talde berriak osatu eta martxan jartzeko garaia.

## Narbarteko hautesle talderako hautagaiak:

1. Jose Manuel Juan-tonena Arambillet.
2. Jon Jaukikoa Orbaiz.
3. Egoitz Gamio Mitxelena.
4. Julen Iriarte Irazoki.
5. Maria Rosario Juantorena Arambillet.

## Oieregiko hautesle talderako hautagaiak:

1. Jose Javier Nosellas Zabalegi.
2. Carlos Zamora Turillas.
3. Juana Paula Galaña Iriarte.
4. Alejo Mindegia Mindegia.
5. Jose Maria Galañegi Apeztegia.

Jaio berrientzako behar duzun guztia

**Josta Mendi** Teikia

Bezero txartelarekin sekulako abantailak  
Eskaintza bereziak

GIPUZKOAKO 500m<sup>2</sup> erakusketarik zabalena duen puerkultura denda  
Easo, 51 · Donostia · T. 943 470 244

Artaleku, 3 · IRUN · T. 943 638 223  
www.maxibebé.org

maxibebé

**Gabonetako jostailu guztiak**

Aprobetxatu gure txollo-prezioak  
Betidanik aholkularitza eta arreta pertsonalizatua

Avda. Letxunborro 86  
IRUN 943 45 75 10

Karmelo Etxegarai 2 (Benta Berri)  
Donostia 943 22 79 10

Prim 59 Donostia  
943 45 53 00

Toy Planet Josta Mendi

**OSPAKIZUNAK → AZAROAREN 28AN**

# San Andres eguna ospatuko dute larunbatean

Herri bazkaria eta trikitilariak izanen dira Herriko Ostatuan

larko trikitilariak giro alai-tzeaz arduratuko dira.

Menua; zainzuriak, magra, patea, ganba tortilla, haragia edo arraina aukeran, postrea, kafea eta kopa 32 eurotan izanen da.

**Martin BERTIZ**

Urtero bezala, herriko zaindariaren eguna ospatuko da. Aurten, azaroaren 28an herri bazkari batekin omen-duko zaio. Herriko ostatuan izanen da eta Etxa-

## Pazientziari buruzko hitzaldia

Carmen Nietoren eskutik pazientziari buruzko hitzaldia izan zen azaroaren 10ean herriko eskolan. Guraso askoren



ARGAZKIA: MARTIN BERTIZ

## Arbol landaketa egin zuten azaroaren 15ean

Zuhaitz landaketa egin zen mendian azaroaren 15ean. Goizetik hasi zuten eguna, 10:00etan plazatik atera ziren, bakoitzak bere erreminta eraman zuelarik, ailtzurra, palak... Goiz osoko lana izan zuten eta batzuk han zeuden bitartean besteak Bertizen sua egiten eta bazkaria antolatzen zeuden. Eguraldia lagun izan zuten eta egun ederra igaro ere. Lanen ondotik, patata tortilla, xingarra eta xixtorra jan zituzten indarrak berritzeko. Ateraldi bikaina herriko haurrek eta gurasoek elkarrekin egin zutena.

burukomina omen da gaia eta erantzun bikai-

na izan zuen, 17 aita eta ama elkartu ziren, gehie-

nak herrikoak, baina baita Legasako batzuk ere.

## LEGASA

**GIZARTEA → HILABETE ETA ERDIRAKO LANA**

# Herriko karrikak moldatzen lanean dabilta

Dendako karrikatik hasi eta Arozkeneko pisutako karrikan akituko dituzte

tako karrikan akituko dituzte lanak. Lanen ardura Otegi eraikuntza enpresarena da eta Bertizaranako Udala da ordaintzeko ardura duena. Lanek hilabete eta erdi inguru iraunen dute.

**Martin BERTIZ**

Duela hilabete bat jada, herriko karrikan moldaketa hasi zela. Denda inguruko karrikan hasi eta Arozkeneko pisu-

## Egur-loteak

Azkenengo egunetan, herriko argazkia pixka bat aldatu egin da. Nonahi ohikoa bihurtu zaigu egur-loteak ikus-



ARGAZKIA: M. BERTIZ

Egur loteak nonahi ikus daitezke. Negua hurbil dugunaren seinale!

tea. Egurra ateratzeko aurtengo lanak Maderas Santesteban enpresari egokitu zaizkio. Egur guztia pagoa da eta lriso alderditik atera dute. Lotearen zenbatekoa 33 euro ingurukoa da eta 15 kamioi inguru atera dituzte.

ARGAZKIA: M. BERTIZ

Herriko karrikak moldatzen ari dira.



# EZKURRA

GIZARTEA → BAITA ERATSUN, SALDIAS ETA BEINTZA-LABAIENEN ERE

## Malerrekako turismo kartel berriak ailegatu dira herrira ere

Herrietako ezaugarriak, zerbitzuak eta bisita daitezken lekuak ageri dira

### Fernando ETXEBERRIA

Azkenean, Nafarroako turismo arduradunak Malerrekako herri batzuen existentziaz oroitu dira eta kartel berriak jarri dituzte Ezkurra, Eratsun, Saldias eta Labaienen. Karteletan herri bakoitzaren ezaugarriak, bertan eskaintzen diren zerbitzuak eta inguruan bisita daitezkeen ibilbide eta lekuak azaltzen dira. Aipagarria da Irakurri izena erabiltzen dutela hemen betidanik Erakurri izenez ezagutzen dugun mendia aipatzeko. Tarketa Eakurri bezala laburbiltzen duguna baita ere.

### Ezkurra-Behobia

Zoritzarrez aurtengo

Behobia-Donostia lasterketa korrikalari baten heriotzagatik eta beste korrikalari batzuek izandako zailtasun eta arazoengatik gogoratuko da. Lasterketaren bezperan Burgos, Madril eta Kataluniako 24 pertsonak Ezkurra Landa Ostatuan eta M. Txulo aterpetxean pasa zuten gaua.

### Ehiza sasoa

Usoen ehiza dela eta, ehiztari bakoitzak bere iritzia du. Batzuentzat oso ona izan da, beste batzuentzat eskasa eta

gehiengoarentzat ona, besterik ez. Oilagorren ehiza, berriz, oso ona izaten ari da, oraindik ehiza honetan jarraitzeko egunak geratzen baitira eta dagoeneko hainbat bota dira.

Batzuek platerako ehiza bezala izendatzen duguna aront arrakatsua izaten ari da. Barranka ostatuak 70 plater baino gehiago zerbitzatu ditu dagoeneko eta hilabete amaiera baino lehen 100 plater baino gehiago zerbitzatzeko asmoa du. Hemen edo inguruan ehizatuta-



ARGAZKIAK: F. ETXEBERRIA

Herriko ezaugarriak, zerbitzuak eta bertze zenbat azalpen ageri dira karteletan.

ko usoa dira zerbitzatuak, horixe da plater hauen ezaugarri na-

gusia. Parrilan erretako arrai goxoarekin borobiltzen dute menua askok.



**Bidasoa**  
GASOLINDEGIA

A, B eta C motako GASOLIOA ETXERA 24 ORDUZ

Alkaiaga Industrialdea, 4. LESAKA · T. 609 446 693

**Lizun**  
GAZTANDEGIA

Sunbilla · Tel: 948 450 862

**PRIM, c.b.**  
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaia
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea · Tel-Fax: 948 625206 • BERA  
Colon Pas. 6 - atzea · Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

**Zalain**  
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa z/g  
31780 Bera  
t. 948 631 106  
w. www.zalain.info

**Zalain**

GIZARTEA → SAHARAZTAN ELKARTEAREN ESKUTIK

# Saharako uholdeetan kaltetutakoei laguntzeko diru-bilketa egiten ari da



UTZITAKO ARGAZKIA  
Kalte handiak sortu dituzte uholdeek Saharan .

Eraikuntza-materialak eta elikagaiak erosteko baliatuko da

## TTIPI-TTAPA

Joan den hilabetean Saharako kanpalekuan izan ziren uholdeek kalte handiak eragin dituzte: etxeak, eskolak, ospitalak... suntsitu dira. Hondamendi hori arindu eta sahararrei bizimodua berriz hasten laguntzeko, Saharaztan Elkarteak diru-bilketa kanpainari jarri du martxan. Bildutako dirua, oso-osorik, kanpamentuetara bideratuko dute azaroaren 28an, janaria eta eraikin berriak egiteko materiala erosteko.

Saharaztan elkarteak egiten duen lanari esker, harreman zuzena dago eskualdea eta Sahararen artean. Bere ekarpena egin nahi duenak Nafarroako Sahararen lagunen elkartearen kontu zenbaki haueetan egin dezake:

**Euskaldiko Kutxa:**  
30350113591130021437

**Rural Kutxa:**  
30080001110700365729

**Caixa:**  
21005319492100199896

Lortutako diruarekin egindako erosketen fakturak publiko eginen dituzte eta gainera, nahi izanez gero, errenta aitortenean ematen den aportazioaren %20a desgrabatzeko aukera dago.

## MAILEGU BAT BEHAR DUZU, AURPEGIAN ANTZEMATEN ZAIZU



### Rural Kutxan baditugu maileguak zu bezalako jendearentzat

Erreforma bat etxean edo etxe berri bat. Ikasketa urte bat Parisen edo bidaia bat New Yorkera. Abian jarriko duzun negozio bat, bonbilla piztu baitzaizu asko pentsatu ondoren. Zure beharra edozein delarik ere, Rural Kutxan badugu mailegu bat zuretzat.



**RURAL KUTXA**

## GIZARTEA

OSASUNA → NAFARROA ETA EAE

# Muga herrietako osasun-arretaren baldintzak adostu dituzte

Bortziriak eta Arano eta Goizuetako erabiltzaileei eragiten die

goaren arteko zonalde mugakideetako elkarrekiko osasun-laguntzaren baldintzak jasotzen dira datozen hiru urteetarako. Akordioak Bortzirietako udalerririk hartzen ditu zehazki: Arantza, Igantzi, Lesaka, Etxalar eta Bera; Arano eta Goizueta; eta Cabredoko kupoa.

Guztira, 10.000 bat bizilagun dira, eta Irun eta Hondarribiko osasun-zentroetan (Bortzirietako udalerririk), Donostiako Ospitalean eta inguruko zentroetan (Arano eta Goizueta) eta



ARGAZKIA: NAFARROAKO GOBERNUA

Nafarroako eta Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun kontseilari Fernando Domínguez eta Jon Darpón lankidetzak hitzarmena izenpetzen.

Arabako osasun-zerbitzuetan osasun-arreta espezializatua jasoko dute.

Hitzarmenak finkatzen du, modu berean, Nafarroako Osasunbidetako Osakidetzatik bideratutako bigarren iriztiko nahiz espezializazio handiko eskaerei erantzunen diela, honako hauei buruzkoak: azterketa genetikoak,

anatomia patologikoa, barne-medikuntza (fibromialgiako diagnostikoak), erradiologia interbentzionista, baita neurokirurgia eta onkologia espezialitateak ere.

Hitzarmenak, gainera, osasun publikoko bi laborategien arteko elkarlana jasotzen du, etorkizunean sor daitezkeen beharren arabera, eta haien alderdi

zehatzak dagozkien protokoloetan erabakiko dira. Zehazki, Eusko Jaurlaritzako osasun publikoko laborategiak laster Nafarroan ezarriko den jaioberriaren baretzeari lotutako zehaztapen analitikoak egingo dituela aurreikusten da; haiei esker, jaioberrien metabolismoko gaitz gehiago detektatu daitezke.

EUSKARA → BAZTAN, MALERREKA ETA BORTZIRIAK

# Solaslaguna egitasmoaren aurkezpenak egin dituzte

Oraingoz 16 talde osatu dira

hauetan, euskarazko mintzamena hobetu nahi duten hiztunak, euskara txukun hitz egiten dutenekin elkartzen dira talde txikietan (normalean launaka edo bosnaka), astean behin eta ordu betez. Gaurero, 90 pertsona hurbildu dira eskualdean.

Ikasturte honetan 16



UTZITAKO ARGAZKIA

Baztan eta Malerrekako solaslagunek egindako aurkezpen berenduen irudiak.

talde osatu dira gaurero. Baztanen 8 talde martxan dira eta 2 hasterakoak. Malerrekako 2 talde martxan eta ber-

tze 2 hasterakoak. Bortzirietan, berriz, 2 talde. Aukera zabala eskaintzen da eta izen eman nahi duen guztiarentzat

ateak zabalik daudela diote antolatzaileek: Beran, Lesakan, Zubietan, Elgorriagan, Donezteben eta Elizondon.



# Kirol gehigarria

651. alea | 2015.11.26



# ESKUBALOIA

## Baztango Kirol Taldeko neskek txapela dute xede berriz ere

Ahal bada lauko finala Elizondora ekarri nahi dute, lehen fasean sailkapen buru izanda

Joan den urtean Nafarroako liga irabazi zuten Baztango BKT emakumeen eskubaloia talde nagusiak. Iaz ez zen jokatu, baina aurreten jokatu den lauko finalerako sailkatzea du helburu Enrique Petrirenak gidatzen duen taldeak. Entrenatzailearen ustez, «horretarako lau lehenbizikoetan sartzea da lehen asmoa, bai ala bai, eta horretaz gain, hasierako fase honetan sailkapen buru izanez gero, apirilko lau final hori Elizondon antolatzeko eskubidea ere izanen genuke». Hori ere polita izanen litzateke, nahiz eta ez jakin tal-

dearentzat mesedera-ko edo kalterako izanen den. «Alde batetik, partidak guri ongi datozkigun ordutegian jartzeko modua izanen genuke, desplazamendurik egin beharrik gabe; zaleen babesa ere izanen genuke, baina aldi berean presioa eta urdurijartzeko arrazoia ere izan daiteke».

Joan den urtetik bortz bat neskek utzi dute taldea, «batzuk lezioengatik, bertzeak norbere erabakiarengatik, baina iaz Atarrabian aritu zen Ainhoa Astiz lekaroztarra bueltatu da BKTra eta kadetetatik pasatutako hiru neska



Baztan Kirol Taldeko lehen taldeak lauko finalera sailkatzea du lehen helburua.

UTZITAKO ARGAZKIA



ere gurekin ditugu». Oraingo ez dute partidarik galdu eta bide horretan segitu nahi dute, «orain arteko joku ona erakutsiz».

Talde nagusia ez ezik, infantilena ere gidatzen du Petrirenak eta harrobian lan ona egiten ari direla azpimarratu du, «ttikitatik eskubaloian jokatzen ikasiz».



UTZITAKO ARGAZKIA

Kadete mailako neskek ere lauko finalerako sailkatzeko aukerak dituzte.

### BAZTAN BKT: NAFARROAKO LIGA

Leire ORGANBIDE ELIZAGOIEN	ARRAIOZ
Amaia ASTIZ IZETA	ELIZONDO
Maialen GOÑI IRIBARREN	ELIZONDO
Jone URIARTE JAIMERENA	ERRATZU
Naiara OTEIZA RAZKIN	ORONDOZ
Ainhoa ASTIZ GOÑI	LEKAROZ
Nekane ASTIZ GOÑI	LEKAROZ
Amaia LOIARTE LOPEZ	ELIZONDO
Agnieszka PATYEWICZ ETXEBERRIA	ANTSOAIN
Ainhoa IRAIZOZ CIRES	ELTSO
Maria IRAIZOZ CIRES	ELTSO
Ana IRAIZOZ CIRES	ELTSO
Maitte ARREGI ARRETXE	ORONDOZ
Ane ETXABE AIZPURUA	ELIZONDO
Garaxi INZIARTE ARIZTEGI	ORONDOZ
Ane FAGOAGA IZQUIERDO	ERRATZU
Uhaina APEZETXE MURUA	ERRATZU
Iratxe ARRETXE ETXEBERRIA	BERROETA
Lierni OTEIZA MIGELTORENA	ORONDOZ
Jone LARRALDE CORDOBA	ELIZONDO
Garazi SAGASETA URRUTIA	IRURITA
<b>Ent.:</b> Enrique PETRIRENA BAQUERO	ELIZONDO

### BAZTAN BKT: KADETEAK

Paula URRUTIA GOIENETXE	ELBETE
Laira DIAZ FERNANDEZ	ERRATZU
Irene MITXELENA LAURNAGARAI	ELIZONDO
Ane KARRIKABURU REKARTE	ARIZKUN
Aurkene PERURENA AGIRRE	IRURITA
Maitte SOBRINO ETULAIN	ARIZKUN
Narora BERHO SANTOS	ORONDOZ
Eider ELIZAINZIN IRUNGARAI	GARTZAIN
Ane BERHO MIGELENA	ORONDOZ
Maidar ALTUXU AIZPURU	ORONDOZ
Oihane IRIARTE ELIZAINZIN	ARIZKUN
Leire MUGIRO LARREGI	ARIZKUN
Miren GONZALEZ GALARRREGI	ELIZONDO
Itxaso ETXENIKE BIGURIA	IRURITA
Isabel BAILON ITURRALDE	ELIZONDO
Lucia TRANTXE URTASUN	ELIZONDO
<b>Ent.:</b> Julian BALDANTA	ELIZONDO
<b>Ofiziala:</b> Rafa MITXELENA	ELIZONDO

# ESKUBALOIA



## BAZTAN BKT: INFANTIL

Nerea BARBERENA URRUTIA	ERRATZU	Ainhoa MONTIEL GUTIERREZ	NARBARTE
Jone OTEIZA ALTZUGUREN	ELIZONDO	Nahia BAILON URTASUN	IRURITA
Leire CHOUSA BLAS	ORONÓZ	Leire ARRAZTOA ALEMAN	IRURITA
Maialen ITURBIDE LAZARO	ELIZONDO	Haizea ISUSKITZA ARANBURU	AMAIUR
Izaro DENDARIETA ESKUDERO	IRURITA	Saioa ETXART ETXEBERRIA	ERRATZU
Maria ORTIZ ESTABOLITE	GARTZAIN	Ane BAILON ITURRALDE	ELIZONDO
Elena SOBRINO ETULAIN	ARIZKUN	Amaia ARIZALETA ITURBIDE	ERRATZU
Leire GONZALEZ GALARREGI	ELIZONDO	Hana IRISARRI URRUTIA	ELBETE
Haizea EUGI GAMIO	IRURITA	<b>Ent.:</b> Enrique PETRIRENA	ELIZONDO



## BAZTAN BKT: ALEBIN A

Olatz ITURRALDE ARRETXEAZOZAIA	ARIZKUN	Naroa IRIARTE ELIZANTZIN	ARIZKUN
Naia IRIARTE ARRIETA	ARIZKUN	Katixa OSPITAL LEIZA	ERRATZU
Laura URTXULUTEGI ANTFORENA	ERRATZU	Amaia ETXABE AIZPURUA	ERRATZU
Haize OIARTZABAL AIZPURU	IRURITA	Irati IPARRAGIRRE MEOKI	ELIZONDO
Ainara GOÑI ALMANDOZ	ELIZONDO	Naia GARAIKOETXEA LOBEIRAS	BERROETA
Miren IRIGOIEN INBULUZKETA	ELIZONDO	<b>Ent.:</b> Maialen GOÑI	ELIZONDO
Lorea EUGI GAMIO	IRURITA	<b>Ent.:</b> Lierni OTEIZA	ORONÓZ



## BAZTAN BKT: AURREALEBINAK

Meseletz IRISARRI URRUTIA	ELBETE	Ainhoa MEZKIRITZ ORUBE	ARIZKUN
Miren ARRAZTOA GABALENA	GARTZAIN	Valeria ADIN URTASUN	ELIZONDO
Jon GONZALEZ GALARREGI	ELIZONDO	Leire BALLARENA GOIENETXE	ELIZONDO
Izaro PAGAZUORTUONDUA AROZENA	GARTZAIN	Maialen KARRIKABURU JAIMERENA	ELBETE
Lucia BALDANTA ARRUIZ	ELIZONDO	Ane TRANTXE MORENO	ELIZONDO
Marina MENDIBURU OHARRIZ	GARTZAIN	<b>Ent.:</b> Idoia ARRUIZ	ELIZONDO
Ane MEZKIRITZ ORUBE	ARIZKUN		



## BAZTAN BKT: ALEBIN B

Patricia DEL CAMPO PELLICER	ELIZONDO	Naroa ELIZANTZIN ALTZUARTE	IRURITA
Amaia OLAIZOLA GOÑI	ELIZONDO	Celia GARBALENA BARRIO	ELIZONDO
Idoia MUNANGO MALES	ELIZONDO	Julene BAILON URTASUN	IRURITA
Maite USTARROZ ALTZUARTE	ORONÓZ	Maialen BERTIZ ORBEGOZO	ELIZONDO
Kandela IBAIBARRIAGA AGRA	ELIZONDO	Elena GARCIA ELIZETXE	ELIZONDO
Uxue REKARTE ITURRIRIA	ERRATZU	Naiara ERASUN MUÑOZ	ELIZONDO
Nagore URRUTIA REY	IRURITA	Ainara DENDARIETA ELIZANTZIN	IRURITA
Naroa BALLARENA GOIENETXE	ELIZONDO	<b>Ent.:</b> Jone LARRALDE	
Cecilia ADIN URTASUN	ELIZONDO	<b>Ent.:</b> Paula URRUTIA	ELIZONDO



# LA BAZTANESA S.A.

Autobus Enpresa

Lineako autobus eta turismo  
bidaieen zerbitzua

Santiago, 25 · ELIZONDO · 948 580 129

## ESKUBALOIA

# Errekako senior taldeak liga irabazteko lehia sartu nahi du

Lehen aldiz emakumeen senior taldea ere kantxaratu du Doneztebeko elkarteak

Hau idazterakoan hirugarren postuan dago Erreka eskubaloia talde nagusia (8 partidetatik 6 irabazi ditu) eta lider ere izan zen liga hasieran. «Ez genuen horrela hastea espero» aitoritu digu Iban Ezkurra entrenatzaileak. Hortaz, taldearen helburua «lehen fasean lau lehenbikoetan sartu eta txapeladunen fasea jokatzea litzateke». Beraien multzoan, sailkapen hori garbi xamar lortuko duten hiru talde daudela uste du Ezkurra eta berez, «laugarren postua lortzea izanen da gure borroka, iaz nahiko urruti ibili ginen eta». Hasi, arras ongi hasi dira, baina bertze itzuli oso bat falta da lehenbiko fa-

se hori akitzeko. «Urrats handia eman dugu, baina lan aunitz falta da egiteko», aipatu digu entrenatzaileak.

Talde zabala du aurtan bere erranetara Ezkurra, «21 jokalar eta horrek aunitz errazten ditu gauzak. Iaz, lesioak zirela, lana zela, azkenean partidu batzuetara jendez justu xamar joan ginen. Aurtan, beti 14-15 lagun joaten gara partidetara eta hori nabari da». Izan ere, ez dute jokalar bakar bat ere galdu eta gainera, oraindik jubenil diren hiru jokalar ere ari dira. «Emaizak ez ezik –dio Ezkurra–, jokoa ere ona egiten dugu eta partidak borrokatuak doazenez, azken minu-



ARGAZKIA: CD ERREKA

Errekako talde nagusiak liga hasiera polita egin du.



tuetan pixka bat gehiago emateko gai gara eta hori seinale ona da».

Aurtan, lehen aldiz, emakume seniorren taldea ere kantxaratu du Errekak, eta «oraindik emaitza onik ez dute lortu, baina hori da gutti-nekoa, gehienak lehen urteko jubenilak dira eta ari dira jokoa hartzen eta garaipenak ere etorriko dira» uste du gizonen entrenatzaileak.

## ERREKA A: 2. MAILA NAZIONALA

Adei IBARGARAI AGIRRE	NARBARTE
Asier ARANGUREN OKIÑENA	BARAÑAIN
Dani URROZ EIZAGIRRE	GAZTELU
Emilio ZABALA EZKURRA	DONEZTEBE
Iñigo URRA GOROSPE	BARAÑAIN
Joseba LEGARRA ERASUN	DONEZTEBE
Javier GAGO BALDA	DONEZTEBE
Josetxo EZKURRA AROZENA	DONEZTEBE
Ramontxo ETXEBESTE HILINGER	DONEZTEBE
Iñigo ETXEBERRIA PETRIRENA	ELGORRIAGA
Javier DEL VILLAR PEGUERO	NARBARTE
Julen INDA ZARRANZ	DONEZTEBE
Kepa MIGUEL ETXEBESTE	DONEZTEBE
Mario LOPEZ PAGAZARTUNDA	GARTZAIN
Mikel GRAZENA URRUTIA	DONEZTEBE
Oier BERASATEGI ELIZONDO	DONEZTEBE
Peio MITXEO TELLETXEA	GAZTELU
Unai URROZ GELBENTZU	DONEZTEBE
Javier APEZTEGIA ITURRIA	DONEZTEBE
Xabier IBARROLA GOÑI	DONEZTEBE
Mattin JAUNTSARAS SANTXOTENA	DONEZTEBE
Endika LARRALDE OLAZAR	ELGORRIAGA
<b>Ent.:</b> Iban EZKURRA SALABERRI	DONAMARIA
<b>Ofiziala:</b> Iban MINDEGIA ELIZAGA	DONEZTEBE



INIGO ARREGUI  
FISIOTERAPEUTA

m. 686 146 863

- Nº colegiado: 220 -

Zeharkarrika kale nagusia, 2 behea · 31740 DONEZTEBE

# ESKUBALOIA



ARGAZKIA: CD ERREKA

Lehenbiziko aldiz emakume seniorren taldea kantxaratu du Errekak eta azaroaren 14ko partidaren lehen garaipena ere lortu zuen.

## ERREKA: SENIOR NESKAK

Ainara UNANUA ARIZMENDI	GARTZAIN
Amaia SUBIZAR TRANTXE	LEGASA
Anabel SOBRINO ARTAZKOZ	ELIZONDO
Cristina ZABALA USTARIZ	DONEZTEBE
Desire VINAGRE PEREIRA	ARRAIOZ
Ekhine TXOKARRO EZKURRA	NARBARTE
Elena ZABALA EZKURRA	DONEZTEBE
Itziar GOIENETXE AGIRRE	ELIZONDO
Itziar JORAJURIA MENDIBURU	DONEZTEBE
Izaskun AIZPURU ETXEBERRIA	ELIZONDO
Janire MIGELTORENA EZKURRA	DONAMARIA
Karmele SANTESTEBAN BENDOIRO	ZUBIETA
Maidar JABALERA JUANENA	DONEZTEBE
Maidar OMAR PORROY	DONEZTEBE
Marta DORREGARAI OIAREGI	IRURITA
Izaskun DANBORIENA URRUTIA	AZPILKUETA
Marta OTERMIN LEIZA	DONEZTEBE
Melanie TELLETXEA RIVAS	DONEZTEBE
Noelia QUINTANILLA IPARRAGIRRE	ELIZONDO
Olatz MARTIN ARREGI	DONEZTEBE
Olatz SUBIZAR TRANTXE	LEGASA
Uxue IBARROLA MARIEZKURRENA	DONEZTEBE
Virginia FDEZ. TELLETXEA	DONEZTEBE
<b>Ent.:</b> Juan Mari ARTAZKOZ	DONEZTEBE
<b>Ent.:</b> Javier DEL VILLAR	NARBARTE
<b>Of.:</b> Andrea MINDEGIA	DONEZTEBE



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Errekako mutiko kadeteak.

## ERREKA: KADETE MUTILAK

Joanes ALTXU URTASUN	DONEZTEBE
Gogor ATXALANDABASO IRIBARREN	DONEZTEBE
Mikel ATXALANDABASO IRIBARREN	DONEZTEBE
Urtzi BEORLEGI PASCAL	DONEZTEBE
Ander BERSATEGI ELIZONDO	DONEZTEBE
Unai IBARRA PEREZ	DONEZTEBE
Xabier IRIARTE IBARROLA	DONEZTEBE
Urtzi JUANENA ETXEBERRIA	DONEZTEBE
Patxi MARTIN ARREGI	DONEZTEBE
Iñigo OIARZABAL ZOCO	DONEZTEBE
Andoni PRIETO ETXEGARAI	BERA
Asier QUINTANILLA SAGARDIA	DONEZTEBE
Asier AROZENA MARIEZKURRENA	DONEZTEBE
Joseba BENGOTXEA SAPUPPO	DONEZTEBE
Otito ROQUE AGUILERA	ELIZONDO
Oier URRUTIA BALLARENA	ERRATZU
<b>Ent.:</b> Iban MINDEGIA - Txomin MINDEGIA	
<b>Of.:</b> Patxi REKARTE - Julen ETXEBESTE	




## • NURSTUDIO PILATES •

PILATES METODOA • K-STRETCH METODOA  
GIMNASIA ABDOMINAL HIPOPRESIBOA

"Gaitz gehienak eguneroko ohitura desegokien ondorio dira"  
"Osasun fisikoa zoriontsu izateko lehen baldintza da".

Rosa Seminario 7 • DONEZTEBE  
M. 627 039 233 • @.nurfuejo@gmail.com



# ESKUBALOIA



### ERREKA: NESKA KADETEAK

Melanie TELLETXEA RIVAS	DONEZTEBE	Inma IBARROLA MARIEZKURRENA	DONEZTEBE
Michelle CRUZ PEGUERO	DONEZTEBE	Itsaso ESTANGA OTXANDORENA	DONEZTEBE
Alaia IRIBARREN GONZALEZ	DONEZTEBE	Izaro ALDABE TELLETXEA	DONEZTEBE
Ane LARRETXE LUKANBIO	DONEZTEBE	Janire IRIBARREN LIZARDI	DONEZTEBE
Alaiz LEATXE PORTILLO	DONAMARIA	Maria IRIGOIEN TELLETXEA	DONEZTEBE
Ainhoa LEIZA GARRIDO	DONEZTEBE	Ent.: Javi APEZTEGIA ITURRIA	DONEZTEBE
Andrea ZABALA PIKABEA	DONEZTEBE	Of.: Endika LARRALDE-Oier BERASATEGI	



### ERREKA: INFANTIL NESKAK

Ainhoa ARRIETA BERGARA	DONAMARIA	Lucia IRIGOIEN TELLETXEA	DONEZTEBE
Ane ETXARTE JUANENEA	DONEZTEBE	Maialen LIZASOAIN ETXEBERTZ	DONAMARIA
Ane IPARRAGIRRE OPOKA	DONEZTEBE	Maialen SEIN IRIGOIEN	DONEZTEBE
Elisa URROZ KOVALIK	DONEZTEBE	Mirian HUARTE SANZ	DONEZTEBE
Elur IPARRAGIRRE OPOKA	DONEZTEBE	Nahia ETXEBERRIA URTXULUTEGI	ZUBIETA
Garazi ETXALAR ZUGARRAMURDI	SUNBILLA	Narrea GERENDIAIN SARRATEA	DONEZTEBE
Garazi SANTESTEBAN OTXANDORENA	ZUBIETA	Patricia GHIBANU ALINA	DONEZTEBE
Goreti LANA ALBERRO	DONEZTEBE	Olatz MUTUBERRIA MINDEGIA	DONEZTEBE
Itxaso OIARZABAL ZOCO	DONEZTEBE	Olatz SAN MIGUEL GRAGIRENA	DONEZTEBE
Janire IRIBARREN LIZARDI	DONEZTEBE	Ent.: Maider OMAR PORROY	DONEZTEBE



### ERREKA: ALEBIN MISTOA A

Asier ARREGI PEREZ	DONEZTEBE	Iloritz MITXEO OSKOZ	DONEZTEBE
Ane ETXALAR ZUGARRAMURDI	SUNBILLA	Ainara OTXANDORENA PIKABEA	ELGORRIAGA
Eñaut SETOAIN	DONEZTEBE	Haritz SAGASETA URROZ	DONAMARIA
Iker LOIARTE	ZUBIETA	Andrea SAN MIGUEL GRANDE	DONEZTEBE
Ilazki CRUZ OTXANDORENA	ELGORRIAGA	Maitane SUBIZAR QUISPE	NARBARTE
Nahia GANBOA ANTIZAR	DONEZTEBE	Maialen URROZ GONZALEZ	URROZ
Narrea HUARTE JUANOTENA	DONEZTEBE	Marina ZABALA SARASOLA	DONEZTEBE
Xuban ILARREGI ARIZTEGI	DONEZTEBE	Xabier MARCOS	MUGAIRI
Saioa IRIARTE IBARROLA	DONEZTEBE	Ent.: Matias URIOSTE-Gogor	ATXALANDABASO



### ERREKA: ALEBIN MISTOA B

Unai ALZUGUREN ARANBILLET, Unai LLUZIA BEORLEGI, Adur HUIZI MATXIARENA, Ismael BENSALD BIURRARENA, Beñat IRAZOKI TELLETXEA, Amets LIZASO PIKABEA, Andoni TELLETXEA APEZTEGIA, Aingeru eta Mikel VALDES ZABALO, Jefferson FELIX RICHARSON, Iker OSUA MARTIN, Nerea IPARRAGIRRE IGOA, Unai GARRO UNSION, Gorka ARAKUES ARRIBILLAGA, Julen UBIRIA MENDEZ, Julen ITURRIA GARCIA, Mikel ERRANDONEA GARBALENA (Bera) • **Ent.:** Javier UBIRIA

**GURE TXOKOA F.T.: ALEBINAK B**

Urtzi ETXEGARAI TABERNA, Aimar SAROBE ROMAN, Suhari IRATZOKI SENPER, Eneko LOIARTE OIARTZABAL, Ande MARTIRENA TAPIA, Nahikari GOIKOETXEA URROZ, Ivan NUNEZ PEREZ, Ekain ZABALA ORTIZ, Aderi VILLAMEA IZAGIRRE, Beñat ITURRIA ALZUGUREN, Imanol ARANIBAR IPARRAGIRRE, Keina GARCIA CURTO, Oier LASAGA MARTIKORENA, Ekai PONS BAR HERNANDORENA, Joanes ARISTIMUÑO MUTUBERRIA (Bera) • **Ent.:** Raul GARCIA eta Angel GOIKOETXEA

**BAZTAN F.T.: BENJAMINAK A**

Aimar DEL MORAL ZARATIEGI, Xuban ZELAIETA ALEMAN, Javier EGURROLA OLABE, Patxi ERASUN MUÑOZ, Mikel GOROSTEGI MORAL, Iker TELLETXEA DIAZ, Julen BERTIZ ORBEGOZO, Alvaro ALZUGARAI ZABALZA (Elizondo); Imanol GOIENETXE JAEN, Zena IRISARRI URRUTIA, Berta MUGIRO ESEBERRI (Elbete), Amets LAKOSTA DANBORIENA (Aniz), Aritz ZOCO ARGAIN eta Ibai ALEMAN AZKARRAGA (Iruita) • **Ent.:** Peito GOIENETXE-Carlos IRISARRI



**BAZTAN F.T.: BENJAMINAK B**

Iker ETXEBERRIA JAUNARENA, Oihan ZAPATA ZEBRIAN, Eneko IRIARTE ITURZAETA (Arizkun); Xuban BENGOTXEA BIDEGAIN (Erratzu); Anitton URRUTIA DENDARIETA, Eneko IRIBARREN ALEMÁN, Asier ARIZTIA GOIENETXE (Amaiur); Xabier SAROBE HERRERA, Jon GARBALENA BARRIO, Aimar ÓBREGOZO MARTIARENA, Ugaitz APEZTEGIA BIDE-GAIN (Elizondo); Urko JUBERA IDOATE (Lekaroz), Julen URRUTIA TELLETXEA (Arraioz) • **Ent.:** Mikel LARREGI



**BAZTAN F.T.: BENJAMINAK C**

Izaro URRUTIA ITURRALDE, Ekai MARITORENA APEZTZE, An-ton TELLETXEA QUERTIER, Mikel BAYLON ITURRALDE, Ugaitz GARAÍKOETXEA ARRETXE, Mateo LERTXUNDI FLORES, Mat-tin MAIOA AZANZA, Mattin MARITORENA AGERRE (Elizon-do); Oihan ALEMÁN AZKARRAGA (Iruñita), Haritz BIDEGAIN EL-LZALDE (Arizkun), Markel TORRES ALEMÁN, Ibai MINDEGIA ETXE-NIKE, Aitor BARAIBAR GORTARI (Oronoz), Urko ISUSKIZA ARAN-BURU (Amaiur) • **Ent.:** Roman GARAÍKOETXEA-Ignacio LOPEZ



**BETI GAZTE F.T.: BENJAMINAK A**

Aritz ARANBARRI GOIA, Beñat ESCUDERO GARMENDIA, Josu ETXEPETELEKU BURGUETE, Jon eta Aitor GALARDI TXOPERENA, Jon LARRETXE BALLESTER, Oier MITXE-LENA ZUBIETA, Nerea PETRIRENA APEZTEGIA, Naiara RO-BLEDO PACCINI, Iker TELLETXEA OIARZABAL, Manex UBI-RIA GARCIA, Oihan URROZ OIARZABAL (Lesaka); Aritz LI-ZARRONDO ETXARTE, Luken URTXEGI URRRA (Igantz) • **Ent.:** Unai TELLETXEA



**BETI GAZTE F.T.: BENJAMINAK B**

Unax BEREAU IRIGOIEN, Beñat CRIADO ARRUBARRE-NA, Beñat ETXEPARE ALESTARAN, ENKO IRAZOKI CA-RAMAZANA, Ibai LEKUJONA HUIZI, Urko OLAIZOLA MEN-DEGIA, Oier ORDOKI FAGOGA, Enaitz eta Unax OSKOZ ANTZIZAR, Ibon RUIZ SARASOLA, Hegoi SILVEIRAARRIE-TA, Julen UBIRIA SUNSUNDEGI, Xabier VALVERDE LEI-ZA, Beñat ZELAIETA EGIA (Lesaka) • **Ent.:** Ibon TXOPERENA eta Jon UBIRIA



**BETI GAZTE F.T.: BENJAMINAK C**

Iker IRIGOIEN UBIRIA, Gerard eta Joel OROZKO RODRI-GUEZ, Aimar OTXANDORENA MITXELENA, Iker ROBLE-DO PACCINI, Mikel URDANGARIN TABERNA, Eneko UR-KIOLA MARTIN, Goiuri, Peru eta Oiarixu URRRA IEKORA eta Alex URROSULO ELGORRIAGA (Lesaka); Unax ETXAR-TE ETXEBERRIA, Gaizka SEIN ARBURUA (Igantz) • **Ent.:** Beñat IGANTZI, Iker IRIARTE, Aimar OTXOTeko eta Aimar ZAMORANO



**DONEZTEBE F.T.: BENJAMINAK A**

Oihan SARRATEA ETXEKOLONEA, Aimar ESPERANTE MARIEZKURRENA, Eki ERASUN EZKURRA, Asier ARRE-GI PEREZ, Oier OIARTZABAL AGIRRE (Doneztebe); Ai-tor eta Mikel LORENTE AGIRRE, Alain SARRATEA FA-GOAGA (Gaztelu); Iraitz IPARRAGIRRE ZUNDA, Oihan LUJANBIO PEREZ (Sunbilla); Mikel SANTESTEBAN GOI-ZUETA (Zubietza), Beñat OIAREGI SAGASETA (Narbarte) • **Ent.:** Mikel GERENDIAIN eta Haritz NARBARTE



**DONEZTEBE F.T.: BENJAMINAK B**

Argoitz ERASUN, Aimar BERASATEGI, Oihan ORBEGOZO, Unax ZULAICA, Aitor SEIN, Orlando Marian GHIBANU, Ale-jandro IRIGOIEN, Iban BAQUEDANO, Nerea AGESTA, An-thony MUQUINCHENATA (Doneztebe); Mikel BASTANTE, Aitor IGOA (Sunbilla); Hodei IRIARTE, Ugaitz ERBITI (Do-namaria); Oinatz IBARRA (Elgorriaga); Mikel URROZ (Ur-roz), Zaira BENDOIRO, Uxue SANTESTEBAN (Zubietza) • **Ent.:** Julen LARRETXE eta Xabier ERASUN



**GURE TXOKOA F.T.: BENJAMINAK A**

Luka TRILLO GOIA, Enaitz ERKIZIA LASAGA, AIMAR MAR-TINEZ SEOANE, Iker IPARRAGIRRE IRIARTE, Iker PETRI-RENA PIKABEA, Aimar RIOS AGILA, Ion ERRANDONEA GARBALENA, Jokin IRAZOKI TELLETXEA, Andoni LA-TORRE OSUA, Aitor ETXEBERRIA OSUA, Eneko ETXE-BERRIA OSUA, Kamen RUIZ, Joel PRENDES, Joel AL-VAREZ VILARES, Hugo ALVAREZ VILARES (Bera) • **Entrenatzailea:** Juan Luis IRAZOKI ALZUGUREN



**GURE TXOKOA F.T.: BENJAMINAK B**

Urritz ANZIZAR SENPER, Hegoi LLUZIA BEORLEGI, Urko RUIZ MARTIKORENA, Garazi HUIZI MATXIARENA, Erlaitz LASAGA MARTIKORENA, Mikel PONBAR HERNANDORE-NA, Mikel ZOZAI INARREA, Unax CASTILLO FRANCO, Nim-be LIZARDI ARTOLA, Luka ALZUGUREN GOIA, Aimar ARAN-DIA ELIZONDO, Noah UBIRIA MENDEZ, Xanti AGIRRE GONZA-LEZ, Ion URKIOLA REBOLLO, Aiora PIKABEA SANTAMA-RIA, Unai SANZ CRIADO, Mixel GONZALEZ, Peio MARTIKO-RENA ETXANDI • **Ent.:** Oskar URKIOLA eta Julio ANZIZAR



**Carnes Sein Haragiak, S.L.**

Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA  
Tel. 943 467 244 943 467 444 • Fax. 943 473 726 • carnessein@bordako.com

## ARETO-FUTBOLA



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Gure Txokoako areto-futbol taldeak maila mantentzea du helburu aurtengoan ere.



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Umore Ona areto futboleko taldea, denboraldiko etxeko lehen partida irabazi zuenean.



ARGAZKIA: FOTO ZALDUA

Lehen aldiz gizonetako seniorren areto-futbol taldea kantxaratu du Doneztebek.

# Nagusiak ere futbol ttikian

Gure Txokoa eta Umore Onaz gain, Doneztebe ere ari da aurten

Leitza aldean, infantil mailan ari dira neska-mutikoak areto-futboleant. Baina Beran eta Goizuetan urteak daramazki nagusien kirola ere izaten. Gure Txokoak Gipuzkoako bigarren mailari eustea izanen du aurtengoan ere erronka eta Umore Onak hirugarren mailan ahalik eta goitien bukatzea. Iaz baino hasiera hobea egin dute goizueta-urrek. Aurten, lehen aldiz, Doneztebek ere atera du areto-futboleko taldea. Orain arte ez dute emaitza onik lortu, baina ari dira pixkanaka trebatzen.

## GURE TXOKOA ARETO FUTBOLA (2. MAILA)

Joao Marco RIBEIRO MAESTRE	BERA
Fernando GOMEZ COLINA	BERA
Jon Mikel MATXIARENA ALDALUR	BERA
Iñigo ZELAIETA ALONSO	BERA
Mikel AGARA MARTINEZ	BERA
Fermin Jose BERRUETA PEREZ-LUCAS	BERA
Aitor CEREZO BASELGA	LESAKA
Asier GARCIA ERRANDONEA	BERA
Sabino GOMEZ DOMINGUEZ	BERA
Edwin Ivan JIMENEZ AVILES	EKUADOR
Unai LARRETxea MATXIÑENA	BERA
Igor PANDO ARAMENDI	BERA
Gorka RETEGI ERRANDONEA	BERA
Jose Manuel RAMIREZ BURGUILLO	IRUN

## UMORE ONA ARETO FUTBOLA (3. MAILA)

Vlad DORIAN MORAR	GOIZUETA
Ekaitz LOIARTE VILLAR	GOIZUETA
Ander APEZETXEA ANSA	GOIZUETA
Patxi ETXEBERRIA ARANAZ	GOIZUETA
Iñaki ETXEBERRIA ARANAZ	GOIZUETA
Beñat LEKUONA ANSA	GOIZUETA
Mikel HUIZI LOIARTE	GOIZUETA
Urko APEZETXEA LUJANBIO	GOIZUETA
Eder AGUILAR HUIZI	GOIZUETA
Del: Xabier ZUGARRAMURDI ELIZALDE	GOIZUETA

## DONEZTEBE ARETO FUTBOLA (NAF. 3. MAILA)

Ander ANDUEZA ETXEBESTE	DONEZTEBE
Fernando QUIMBIAMBO SOLARTE	ELIZONDO
Xabier OLAZAR MARIEZKURRENA	ELGORRIAGA
Ibai IRIBARREN LARRETXEA	URROZ
Jon MIKELARENA SUBIZAR	LEGASA
Unai JUANENA IRIARTE	DONEZTEBE
Aurelio BERTIZ GRAZENA	DONEZTEBE
Aritz TAJADURA CABELLO	LEGASA
Koldo ORDAX INBULUZKETA	ELGORRIAGA
Josetxo OSTIZ GARTXITORENA	DONEZTEBE
Daniel Pio GARCIA OTXANDORENA	DONEZTEBE
Oier BEREAU ELIZALDE	ITUREN
<b>Entrenatzaileak:</b> Mikel IBARRA eta Xanti MANTEROLA	



OSPAKIZUNAK → AZAROAREN 28AN

# Larunbateko Azienda Feriak borobilduko du Kulturaldia

Ostiralean  
'Amama' filma  
ikusteko aukera  
izanen da  
Ganbaran



## TTIPI-TTAPA

Hamabigarren edizioa izango du aurten Kultur Taldeak, Gazte Asanbladak, Gurasoak Guraso Elkarteak eta Umore Ona elkarteak, Udalaren laguntzaz antolatzen duten Goizuetako azienda, artisau eta nekazaritza Feria eguna eta aurten ere ekitaldiz beteta dator azaroko azken larunbata.

10etan emango zaio hasiera feriarri. Azien-dek, artisau eta nekazaritza postuek beteko dute herria eta tartean hainbat ikuskizun izango dira, hala nola, trikitilariak, joaregileak, sargardogileak, txurrogileak, sifioia edo labaderoan jarriko den koadro erakusketa. 11:00etan ardi erakustaldia egingen da. 12:30ean Inaxio Perurena harrijasotzaileak erakustaldia eskainiko du.

## BAZKARIA FRONTOIAN

14:00etan bazkaria izango da goiko frontoian. Txartelak Amaia kafetegian daude salgai. 8 urte bitarteko umeeke doan dute sarrera. 9 urtetik 16 urte artekoek 10 eurotan, 17 urtetik aur-

rerako langabetu eta ikasleek 18 eurotan eta langileek 21 eurotan. Urtero giro ederra sortzen da eta seguru aurten ere halaxe izango dela. Hortaz arduratuko dira Elutxa txarangakoak, bazkalondoa eta 18:30etik aurrera egingen den poteoa alaituko baitute.

Azaroko Kulturaldiko azken ekitaldia izanen da larunbateko feria. Bezperan, ostiral arratsaldeko 7etan *Amama* filma ikusteko aukera izanen da Ganbaran. Sarrera 2 euro kobratuko da.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Jubilatuena Eguneko mus eta truk txapelketako saridunak

Mus eta trukeko txapelketak jokatu zituzten jubilatuen egunean. Musean, Miel Sukuntza eta Eustakio Zubieta suertatu ziren txapelak eta Ixabel Etxeberria eta Juan Joxe Apezetxea azpitxapelak. Trukean, Dolores Eskudero eta Maria Pilar Arratibel izan ziren txapelak, Milagros Goizueta eta Pakita Huiziren kontrako finalean gailenduta. 78 jubilatutako bildu ziren Umore Onako bazkarian.



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

## Ura eta zura erakusketa labaderoan

Azaroko Kulturaldiko lehen asteburuan, Jubilatuen Egunean gain, beste hainbat ekitaldi egin ziren. Alde batetik, ostiralean *Yaman-en Irrifarrak* dokumentala eskaini zuten Yaman-ek (Joseba Elizegi) eta Ander Olaizolak. Beste aldetik, larunbatean umeen jokoak eta txokolatada izan zuten frontoian eta Mikel Illarregiren *Ura ta zura* argazki erakusketa, olerki errezitaldia eta ikusentzunekea labaderoan (argazkian).



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

## Duela 25 urteko antezelana gogoratu eta antezleak omendu dituzte

Azaroko bigarren asteburuko ekitaldi nagusia, duela 25 urte taularau zen *Goizuetan bazen* antzerki emanaldiaren oroitzapena izan da. Garai hartako prentsa errekorre eta bideo emanaldiko irudien bidez gogoratu dute eta orduan antezle lana bete zuten herritarrei ere omenalditxoa egin zioten azaroaren 14an eskolan. Bezperan, ostiral arratsean Ganbaran kantaldia eskaini zuten Nerea Erbitik eta Iñigo Agirrek.

## LEITZA

GIZARTEA → 6 HILABETERAKO

# Langabezian dauden bi gazte kontratatuko ditu udalak

16 eta 19 urte bitartekoak

JM BARRIOLA

‘Gazte bermea’ izeneko ekimenaren bidez langabezian aurkitzen diren gazteen kontratazioak burutuko dira Nafarroako udaletan eta tokiko bestelako entitateetan. 16 eta 19 urte artean dituztenei zuzendutako ekimena da eta Leitzako udalak ere egitasmo honekin bat egin eta urtea amaitu aurretik, bi gazte langabetu kontratatzeko asmoa dauka. “Gazte bermea”

ekimenean izena emanda egon beharko dute bi gazte horiek eta horretarako baldintza hauek bete beharko dituzte: 16-29 urte bitarteko adina izatea. Azken 30 egunetan lanik egin ez izana. Azken 90 egunetan 40 orduko iraupena edo gehiagoko ikasketa ekintzarik egin ez izana. Azken 30 egunetan 40 orduko iraupena edo gehiagoko ikastarorik egin ez izana. Interesa duten gazteek Leitzako udal txera jo beharko dute izena ematera azaroaren 25a baino lehen.



ARGAZKIAK: E. IRAOLA

## Leitzako produktuen lehenengo azoka arrakastatsua izan zen

Aspaldian ez zuen kolore eta bizia hartu zuen azaroaren 15ean Leitzako plazak. Bertako baseritarrei erakusleihu bat eskaintzeko asmoz LeitzEKO kontsumitzailer taldeak, Udalaren laguntzarekin, antolatu zuen lehenengoz Leitzako produktuen azoka. Azoka honekin aurrera pausu handia eman dute, herriko 30 ekozleek postua jarri eta jende andana bertaratzea lortu zelako. Barazkiak, fruta ezberdinak, aziendak, hegaztiak eta probatzeko gutziak eskaini zituzten. Antolatzaileak pozik zeuden jasotako erantzunarekin eta hurrengo urteetan ere azoka antolatu eta urtean zehar gauzak egiten segitzeko asmoa dutela ere adierazi dute.



**Pertsonaia**

Miren OTERMIN

Karate modernoko munduko txapelduna

Miren Oterminek, Beltraneko alabak, Munduko karate modernoko txapelketa irabazi du. Benidormen jokatu zen finala azaroaren

7-8an eta italiar baten aurka KO batekin lortu zuen garaipena. Aurrez, Espainiako txapelketan bigarren postuan gelditu zen eta hala lortu zuen Munduko txapelketan lehiatzeko aukera. Hamar urterekin hasi zen karate ikasten eta 16 urte zituenean, lesio baten ondorioz, lehia utzi behar izan zuen. Orain Bilbon ingurugiro ingenieritza ikasten ari da eta han berpiztu zaio karate kirolerako interesa. Itzuleira gozoa izan du, azken urte eta erdian gogor entrenatzen aritu ondotik, Munduko txapeldun izatea lortu baitu 23 urteko gazteak. Zorionak!



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

## Leitza mugaz muga ezagutzeko aukera

Aurrerako Mendibil mendi taldeak antolatuta, Leitzako mugetan barna ibilbidea osatzen ari da taldetxo bat. Hiru etapetan egiten dute ibilbide osoa eta lehenbiziko etapa, Kortekoborda eta Urto artekoa, urrian egin zuten 35 lagunek. Bigarrena azaroaren 28an izanen da Plazaola eta Rezola artekoa eta Goizuetan feriak dirrela aprobetxatuz, bertan bazkalduko dute. Azkena abenduan egiten dute Rezo-la eta Kortekoborda arteko bidea aurtengo denboraldiari amaiera emanez.

GIZARTEA → EUSKARA TALDEAK BULTZATUTA

## Euskararen eguneko ekitaldiak azaroaren 28an ospatuko dira

Bilduko den dirua Tuterako Argia Ikastolari laguntzeko izango da

**Juana Mari SAIZAR**

Euskara taldeak, herritar guztiei bota zien Euskara Eguna antolatzeko hordagoa eta guraso elkarteak, lagun arteak eta zenbait norbanakok laguntzeko prest daudela erakutsi dute. Hala, denen artean antolatu dute azaroaren 28an ospatuko den euskararen eguna.

Eguerdiko 12etan Udaletxeko goiko solairuan Panpanoziri aldizkaria aurkeztuko du Kristina Urrutiak, Leitzaldeko euskara teknikariak, eta herritarren



ARTXIBOKO ARGAZKIA

laz bezalaxe, Pake Toki Elkartearen izango den herri bazkarian jendetza biltzea espero da.

artearen banatuko dute herri aldizkariaren hirugarren alea. Segidan, bi dokumental ikusteko aukera izango da. Izar-ne Olanok Laskorain Ikastolari buruz egindako 'Euskaraz bizi' lana batetik eta Olatz Artolak Tuterako Argia Ikas-

tolari buruz egindako 'Badira bagara' dokumentala bestetik. Ordu-bietan herria bazkaria izango da Pake Toki Elkartearen. Helduek 15 euro ordaindu beharko dituzte eta hamabi urte-tik beherakoek 8. Bazkalondoan, kantaldia

izango da eta 17:30 aldera, kantu jira egingo da herrian barrena, parketik abiatuta. 19:00etan taloak jateko aukera izango da beheko trinketearen. Egunean zehar bilduko den dirua Tuterako Argia Ikastolari bidaliko zaio.

Mendiko eremu komunalak sektorizatzeke inbertsioa egin dute udalak eta Nafarroako Gobernuak

Herriko mendi komunalen sektorizazioa egiten ari dira Udala eta Nafarroako Gobernuak. Eremu horietako batzuk abeltzantzarako eta besteak basogintzarako itxtea da asmoa eta eremu bakoitzari balioa ematea. Horretarako udalak diru-laguntza bat baliatuz, 34.193,85 euroko inbertsioa egin du, Gañarbeko itxitura eta kanadiar pasabidea egin eta Sakuluko muga itxeko. Nafarroako Gobernuak berriz, Merkulaelaiko itxitura eta basoberritzea egiteko 58.830,88 euro eta basoberritzeak egiteko 4.908,17 euro bideratu ditu.

**50. DA!**

abenduaren 4tik 8ra

www.durangokoazoka.eus

<b>ANTOLATZAILA</b>	
5. gerediaga	
<b>BABESLE NAGUSIAK</b>	
BFA	DFB
<b>BABESLE PUBLIKOAK</b>	
DURANGO Udalaren Agintariordea	
Arzakako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.alaia.net	
Euskarazko Foru Aldundia Diputación Foral de Euzkadi	
Nafarroako Gobernua	Gobernua de Navarra
<b>BABESLE PRIVATUAK</b>	
EROSKI zuzendak	
euskaltel	

# ARANO

OSPAKIZUNA → AZAROAREN 7AN

## San Martin eguneko ospakizuna arbasoen berri izateko baliatu zuten

Megalito eta historiaurreko kontuak landu zituzten festa giroan

**Ainhoa ANSA**

Azaroaren 7an, historia eta ospakizuna lotuz, San Martin eguna ospatu zen herrian. Eguraldia ezin hobea eta jendeak emandako erantzuna ere ona izan zen. Goizean megalitoen inguruan ibilbidea osatu zuten eta interesgarriak izan ziren oso Eureka Soluciones zahori taldekoek eta Suhar arkeologia elkarte-ko kideek bidean eman zituzten azalpenak.

Goizeko 10etan plazatik abiatuta, ibilbide berezia osatzeko aukera izan zen, bidean geldialdiak eginez Suhar Arkeologia Elkarte-ko, Ander Arrese, Beñat Iturrioz, Josu Zumeta eta Xabi Cuetaren eta Eureka Solucioneseko Iñaki Garijo zahoriaren azalpenak aditzeko au-



ARGAZKIAK: AINHOA ANSA

Eguraldi paregabearekin, jende asko bildu zen San Martin eguneko ekitaldietan.

kera izan baitzuten.

Plazatik abiatuta, Burninen egin zuten lehenengo geldialdia. Nonbait, bertako enargiek gure gorputzari la-

saitasuna eta ongizatea eragiten diete. Goizuetako partean dauden Urgaratako lepoko jentilbaratzak izan ziren aurrean ikusi zituztenak

eta Añoneko trikuharri- an ere geldialdia egin zuten.

Errekalkotik Arano- ra bitarteko harrespil- taz ere gozatu ahal izan

zuten Aranora buelta he- giz hegi eginaz.

### BAZKAL ONDOAN ARKEOLOGIA TAILERRA

Bazkal ondoan, Suhar Arkeologia Elkarte-ak emandako arkeologia tailerrean denetarako aukera izan zen: sua nola egiten den ikasi eta zuzenean egin; mural zoragarri bat osatu herriko umeek lagundurik (mamuta, ehiztariak, okrea eta teknika berezi bat erabiliz, eskuak...) eta azkenik ehizarako erremintak nola egiten zituzten erakutsi eta bertaratutakoek lantzak jaurtitzeko aukera ere izan zuten. Gaueko talo tailerrak eta talo eta gaztain jateak ere betiko jendetza bildu zuen. Aurten, gainera, umeen taloak ederrak atera ziren, borobilak eta goxoak zeuden!

Herritarrek emanda- ko erantzunarekin oso gustura daude Udala eta Festa batzordea eta esker- rakk eman nahi dizkie ospakizuneari parte har- tu zuten guztiei.

### BEHARREZKO AGIRIAK AURKEZTU ETA BALDINTZAK BETETZEN DITUELAKO

Irakurri industriagunean dagoen zerrategiari irekiera baimena eman dio Udalak

**Ainhoa ANSA**

Retroingenieria del Plástico S.L enpre- sak 2012an lortu zituen aktibitate eta obra baimena, baina irekiera baimenik ez zuen oraindik. Hala ere, hainbat urtez ire- kiera baimenik gabe lanean aritu izan di- ra bertan.

Garai batean zerbeza fabrika zegoen poligonoan dago zerrategia. Udalak be- hin baino gehiagotan emana zien aktibi- tatea gelditzeko agindua beharrezko bai- men guztiak eskuratu arte. Eta eskaera-

ri horri entzungor egin eta zerrategian la- nean jarraitzen zutela ikusita, azkenean ixteko agindua eman zuen Udalak.

Itxita egon den tarte honetan, falta zitzaien beharrezko dokumentazioa aur- keztu dute udaletxean. Udalak geroztik hainbat errekerimendu egin dizkie, hari- k eta obra behar bezala burutu dutela ziur- tuzten duen agiria zuzendu edota osatu duten arte. Orain, dokumentazio guztia behar bezala aurkeztu dutela irizita, Uda- lak lanean jarraitzeko behar zuen irekie-

ra baimena eman dio zerrategiari.

Horrela, udalarekin zuten irregularta- suna konpondu da baina, beren jardue- ratik sortutako bestelako irregulartasu- nak behar diren tokian argitu beharko di- tuztela argi utzi nahi du Udalak. Emanda- ko baimena zerrategiaren aktibitatea Uda- lean aurkeztutako terminoetan legeztat- zera mugatzen da. Eta Gizarte Seguran- tzari egindako ustezko iruzurraren gaine- an Udalak ezin du esku hartu, ez duela- ko horretarako konpetentziarik.

# ttipi txartelarekin beti irabazten da!



DESKONTUAK, ZOKKETAK...  
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA  
MUSUTRUK  
-%80ko DESGRABAZIOA  
ERRENTA AITORPENEAN  
**Eskatu zurea: 948 63 54 58**

Informazio gehiago:  
**TTIPI-TTAPA**  
koskontako bidea 7 LESAKA  
T 948 635 458 | F. 948 635 457  
info@ttipi.eus  
erran.eus

## ZOKKETAK

**650. ALEKO  
IRABAZLEAK:**

- Kamiseta bat** | ONDDO TA PUNTO  
Harritxu Arrijuria | ELIZONDO
- 2 liburu** | TTARTALO Argitaletxea  
"Nire sekretuen zuhaitza" | Mika Maritorea | ANIZ  
"Animaliak eta ni" | Endika Lekaroz | IRUÑA
- 2 produktu sorta** | LANKU  
Maite Arrijurieta | LEITZA  
Serapia Aldabe | OITZ
- Bizipoza CDa + "Txo, Mikmak txikia" Posterra** | KATXIPORRETA  
Jesus M<sup>a</sup> Estanga | ERATSUN
- 2 sarrera** | DONOSTIAKO AQUARIUMA  
Maite Ariztegi | ORONOZ-MUGAIRI
- 2 sarrera** | ZUGARRAMURDIKO SORGINEN LEZEAK  
Iñaki Oiaregi | ATARRABIA

## DESKONTUAK

**JUAN J. PICABEA**

DONEZTEBE | %10, marka batzuetan izan ezik

**LEITZAKIROLAK**

LEITZA | %5, 30€tik gora

**FOTO MENA**

ELIZONDO | %10, kopia digitalean

**SANSIÑENA garajea**

ELIZONDO | %5, olio aldaketetan

**KATEA-BIKE**

BERA | %5, konpokatetan

**HERNANDORENA**

LEITZA | %5, 30€tik gorako erosketetan

**KAMISETA BAT  
Buatxabal**  
www.buatxabal.eu

BUATXABAL™  
Basque Clothing Co.

**3 LIBURU** | Ibaizabal argitaletxea  
"Hildakoen eremuan" | "Faraoiaren gordelekua" | "Ongi joan!"  
www.ibaizabal.com

**2 SARRERA**  
Lesakako Udal Kiroldegia  
www.lesakakoudalkiroldegia.weebly.com

**2 SARRERA**  
Irisarri Land  
www.irisarriand.com

**LOTEA Martiko**  
www.martiko.com

**2 SARRERA**  
Donostiako Aquariuma  
www.aquariumss.com

# ARKUPEAK

ERRETIRATUAK → KANARIAR UHARTEETAN

## Urteko azken bidaien ondotik heldu den urtekoei begira

Hilaren 19an elkartu zen zuzendaritza batzordea

**Fernando ETXEBERRIA**

Azaroaren 5ean, 110 bazkidek Lizarra eta Lodosara irteera egin zuten, urteroko moduan, Peron piper fabrika bisitatzeko. Bertako zuzendariak, piper bilketa, erretzea eta ontziratzea nola egiten den azaldu zien. Gero bitaldetan banatuta, Lizarrako ferian buelta bat eman eta hainbat produktu erosteko aukera ere izan zuten. 12:30ean Larrionera joan ziren bazkaltzera eta Jose Angel akordeolariak jarritako erritmoan nahikoa dantza egin ondotik etxera itzuli ziren zazpiak aldera.

Azaroaren 2tik 11ra, 25 bazkidek Tenerifen eguraldi onaz gozatze-ko aukera izan zuten. Loiuko aireportutik abiatuta zuzenean joan ziren irlara. Itzulerako bidaiaren berriz, Madrilan hegazkin-aldaketa egin behar izan zuten, bezpe-

ran itzulerako hegazkina bertan behera utzi zutelako. Argazkietan ikus litekeenez, batzuk irlan barna ibilaldi bat egiteko probestu zuten denbora, bertze batzuk Teidera igo ziren oinez eta 12 laguneko taldea, Gomera irlara joan zen barkuz.

Teidera egindako goigera berezia iruditu zitzaizkien oso, 3.000 metroko garaierara igota, ingurune bolkanikoaz gozatu ahal izan zuten. Gomera irlara egindako irteerak ere aparteko aipamena merezi duela diote. Bertarajoteko barkua benetan handia zen, gidariaren erranetan munduan bakarra da. Jatetxe handi bat zirudien, taberna askorekin eta 50 bat autobus eta ehundaka kotoxe sartu ziren biltegia ere bazuen. Autobusez egin zuten bisitak, malda goiti eta beheiti ibiliaz, Kanariar uharten inguruan zuten uste oker bat zuzentzeko balio izan zien. Irla lehorrak direla uste dute aunitzek baina ez da hala, 15 presa baino gehiago daude, ikaragarritzko



ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA

Arkupeak elkarteko kideak, gustura Gomerako irlan eta Teide sumendi inguruan.

mendiak ikus litezke eta hainbat tokitan hemengo landarediaren oso antzekoa ere bai.

Hango herritarrek eta hoteleko langileek emandako tratu atsegina ere azpimarratu behar dira. Eguraldi onak, batzuetan 24 graduko tenperaturarekin,

bertara itzultzeko go-goia ematen du.

### Zuzendaritzaren bilera

Hilaren 19an, Zuzendaritza batzordea elkartu zen eta datozen urteko gaiak landu zituzten: diru laguntzen eskararak, 2016ko bidaiaren pro-

gramazioa eta bete beharreko baldintzak, ikastaro eta solasaldiak, lehiaketa desberdinak, 2016 urteko aurrekontua... Honen berri, abenduan ordezkariari eman eta bazkide guztien artean banatuko den 2016ko lehenengo boletinean izanen duzue.



ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA

### Migel Migeltorenak 84 urte

Urtero bezalaxe, Goiz Mendi taldeko kideak, Otsondon barna ibilaldia egin ondotik Lezeta jatetxean bildu ziren uso plater tipikoa dastatzeko. Bilkura aprobetxatuz, Migel Migeltorenari omenaldi berezi bat egin nahi izan zioten. 84 urte bete ditu eta bera da taldeko adinduenak. Migelek Elizondoko egoitzan ingresa-tzea erabaki duela jakinarazi zien bere lagunei eta datorren urtean, 85 urte betetzen dituzte, Arkupeakeko lagunekin ospatu nahiko lukeela.



DONOSTIA / SAN SEBASTIAN  
**AOVARIVM**

Carlos Blasco de Imaz Plaza DONOSTIA  
Tel +34 943 44 00 99



GIZARTEA → BESTA ETA OSPAKIZUNETAN

# Kasik mila herritarrek erabili dute Gan-Torri autobusa

Herrietako bestetako larunbatetan ez ezik, Baztandarren Biltzarra eta Nafarroa Oinezaren ere ibili da aurten

## TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak Gan-Torri programa antolatzen du urtero. Nafarroako Gobernuak diruz lagundutako programa da eta honen helburua kotxe istripuak saihestea da. Horretarako herrietako bestak ospatzen diren larunbatetan zein bertzelako ospakizunetan autobusa jartzen da, herriz herriko desplazamenduak joan-etorriak egiteko. Aurtengo udan herri guztietako bestetan zer-

bitzua eskaini da, baita ere Baztandarren Biltzarra eta Nafarroa Oinez ospakizunetan.

Denetara, zerbitzu hau 977 herritarrek erabili dute.

## Teknologia berrien inguruko prebentzio saioak

Jakin badakigu, gaur egun teknologia berriak gure egunerokotasunaren parte direla. Horregatik, Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdiko Gizarte Zerbitzuek Teknologia berrien erabilera osasuntsua eta arrisku gabekoa lantzea helburu duten prebentzio saioak antolatu ditu. Saio hauek zonaldeko eskoletako Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleei zuzenduak egon dira.

Hauetan, hainbat eduki landu dira: teknologia berrien aukera eta



UTZITAKO ARGAZKIA

## Xaulik zozketatutako Lesagibelen eskultura Maxux Goñirendako

Xauli adimen desgaitasunerako aisialdiko kluba laguntzeko zozketa egiten da urtero. Aurten, honetarako preziskari emandako Lesagibel artistaren eskultura bat zozketatu dute. Zozketa urriaren 31n egin zen eta Maxux Goñi Otxandorenaren eskuetan zegoen 448 zenbakia izan zen saritua. Azaroaren 14an entregatu zen saria eta Xaulitik eskerrak eman nahi dizkiote Legasibeleri bere eskulturarengatik.

arriskuak, norbere irudiaren babesaren garrantzia, ziberbullying-a eta babes neurriak erraterako. Teknologia berriek onurak eta arriskuak dakartzate eta hauen berri izatea beharrezkoa da, ahalik eta modu egokienean erabili ahal izateko dituen arriskuak saihestuz.

## Entsegu irekia

Elizondoko Abesbatza Tikiak entsegu irekia egingen du abenduaren 9an, 19:00etan Iruiritako Damaso Zabalza Gizarte Zentroan.



UTZITAKO ARGAZKIA

## San Martin eguna gogoratuz Berroetan

Iraganeko Berroetako San Martin bestak gogora ekarri, afari bat egin zuten azaroaren 14an. Santxotekak langundurik, dantza eta kantua ez zen falta izan. Giro ederra sortu zen, bertaratu ziren 45 lagunaren artean. Zenbaitzuren besta gainera, franko luzatu zen.



arteka 20<sup>th</sup>  
arkitektura eta zerbitzuak

[www.artekabaztan.com](http://www.artekabaztan.com)

Balda medikua plaza 1- 1A 31700 Elizondo. Nafarroa 948 580 610



## BAZTAN

GIZARTEA → GURASOEI ETA HAURREI ZUZENDUA

# Programazio zabala prest dute Gizarte Zerbitzuek abendurako

Atxikimendu tailerra, Jolas eta Jostailuen tailerra eta erakusketa

## TTIPI-TTAPA

Baztango Gizarte Zerbitzuek programazio zabala prestatu dute abendurako. Abenduaren 4, 16 eta 23an Atxikimendu Tailerra eskainiko da Elizondoko Arizkunenean, 10:30etik 12:30era, 0-6 urte bitartean dituzten haurren gurasoei zuzenduta. Nerea Mendizabal, psikopedagoga eta gizarte hezitzaileak emanen du tailerra eta izen ematea 948 580 006 telefonora deituz egin daiteke.

Abenduaren 9an,

berriz, Jolas eta Jostailuen tailerra eta erakusketa eskainiko du Dindaia Fundazioak 17:00etatik 19:00etara Arizkunenean. Eguberrietarako jostailuen erosketak argitzeko tailerra izanen da eta jolasaren garrantzia heziketa eta familian azpimarratuko dute. Guraso eta haurrei zuzendutako tailer eta erakusketa izanen da eta haurtzaindegi zerbitzua ere eskainiko da. Azken ordu erdian jostailuak hurbiletik ezagutzen ahalko dira. Hemen ere, 948 580006 telefonora deituz eman behar da izena.

## Ahuntzak biltzeko deia

Udalak, Joseba Otondo alkateak abenduaren 12an sinatutako bando baten bidez



UTZITAKO ARGAZKIA

## Bizikleta konpontzeko tailerraren bigarren saioa larunbatean

Udalak antolatutako bizikletak konpontzeko ikastaroa hasi zen azaroaren 14an. Lehendabizikio hitzorduan bizikletaren zatiak euskaraz nola erraten diren ikasi zuten, zulatutako zirrikak petatxuekin konpontzen. Modu berean aldagailuari buruz eta transmisio sistemari buruz aritu ziren. Irakaslea Aitor Txarterina da Iruñeko *Bigarren eskua* tailerrekoa. Aipatu zuenez, bizikleta konpontzen jakitea bezain garrantzitsua bizikleta zaintzen jakitea da eta, horretarako, tarteka marteka bizikletaren osagai desberdinei kasu egin behar zaiela. Bigarren hitzordua azaroaren 28an egingen dute eta saio horretan balazta eta erremintei buruz ariko dira. Erabiltzaile bakoitzarendako bizikleta egokiena nola hautatu ere ikasiko dute. Bizikleta konpontzeko ikastaroa aurtengo ikasturtean udala bailarako bertze eragileekin egiten ari den ekimenen artean bertze bat da. Asatezkenak eskolarat autorik gabe joateko egun bezala izendatu eta Elizondoko eskolek horren araberako lanketa egiten dute. Ikastetxeen laguntzarekin ikastetxeetako bidean diren puntu beltzak identifikatu eta horiek zuzentzeko moldaketak egiteko asmoa dago.

jakinarazi duenez, "harrapa ezinak diren eta jabe ezezaguna duten ahuntz batzuk dabilta, 15 Lizartzuko bazkalekuan eta 7 Atekaunditoko alderdian. Horiek biltzeko abenduaren 7ra arteko epea eman die jabeei.

Udalbatzak aho batez erabaki du azien-

ren jabeei hogei eguneko epea ematea azien da menditik ateratzeko. Epe hori igaro ondotik ahuntz horiek mendian segitzen badute, Udalbatzak aurrez hartutako akordioa jarraituz, azien da hori basaturiko animalizat joko du eta ehizatu ere egiten ahal da.

## EUSKARAREN EGUNA

Herri lasterketa eta bertso-txotxongilo emanaldia

## TTIPI-TTAPA

Euskararen Nazioarteko Eguna dela eta, abenduaren 3an bi ekitaldi antolatu dituzte Baztango Euskalgintzak eta Baztango Euskara Zerbitzuak. *Euskaraz bizi nahi dut* lasterketa egingen da Elizondon, ortzegunetan 12:00etan hasita. 11:00etan irekiko da izen ematea. Iruritako Gizarte Bilgunean *Katillukadak* umeendako bertso-txotxongilo emanaldia eskainiko dute 18:00etan.

**MENDI**  
ostatua

Santiago 25  
948 580 313  
ELIZONDO

**ORBELA**  
SENTERISMOA  
BEINTZAKO OSTATUA

Idoia · Mikel  
Tel. 948 450 014  
BEINTZA-LABAIEN  
orbela@alberguesnavarra.com  
www.orbela-beintza.com

**CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE**  
abokatu

Santiago, 59 2C · ELIZONDO  
T. 948 581 468 M. 630 354 818

**Mármoles SOULE**  
HILETA ARTEA

T. 948 453 444 | M. 688 605 182  
ARIZKUN



GIZARTEA → ABENDUAREN 12AN

# Turismoa hizpide mahaingurua antolatu dute Elizondon

Urruxkako Mari Joxe Iparragirre, Jauregiarteko Pello Iriarte eta hiru urtez turismo teknikari izan den Irantzu Pastor izanen dira hizlari

abenduaren 12an, larunbatean 12:00etan Elizondoko lanbide eskolan. *Turismoa Baztanen: norat goaz?* goiburuarekin Mari Joxe Iparragirre, Pello Iriarte eta Irantzu Pastor eleketan ariko dira. Mari Joxe Iparragarrirre Urruxka baserrikoa da, Baztanen nekazal turismoan aitzindarietakoa izan den etxekoa. Gainera Hiruak bat landetxeen elkartearen eta Baztan-Bidasoa turismo elkar-goan parte hartzen du. Pello Iriarte Jauregiarte ostatu-kulturaleko nagusia da eta turismo gidaria ere bai. Baztanen hainbat ibilbide gida-

## TTIPI-TTAPA

Turismoari buruz go-goeta egiteko Hazitik Hozie elkarteak, Baztan-Bidasoa turismo elkar-goak eta EHNEk mahaingurua antolatu dute



ARGAZKIAK: JUAN MARI ONDIKOL

## Kasinoko margo lehiaketan Raimundo Argos bilbotarra garaile

Kantabriako Santoñan sortu eta Bilbon bizi den Raimundo Argos Martinez margolariak irabazi zuen azaroaren 8an Elizondoko Kasinoko antolatutako margo lehiaketa eta honenbertzez, 800 euroko lehen saria eraman zuen. Bigarren saria (400 euro) bi gipuzkoarrek *ex-aequo* banatu zuten, Bergarako Juan Jose Altunak eta Eibarko Esteban Orozek. Maila handiko lehiaketa izan zen eta margolariak Arizkun eta Erratzuko irudiekin egin behar izan zituzten beraien lanak. Denera 34 margolari hurbildu ziren. Lanak margotu eta entregatu ondotik, 84 lagun elkartu ziren Kasinoko bazkarian. Ondotik erabaki zaila hartzeko unea ailegatu zitzaion Ana Mari Marin, Xabier Soubelet eta Juan Carlos Olaetxea margolariak, Lekarozen eta Gartzainen mediku izan zen Salvador Martin-Cruz arte kritikoak eta Eduardo Zubikoa Kasinoko presidentek osatu zuten epaimahaiari.

tzen ditu eta turismo kulturean eta baliabide turistikoaren garapenean lana egiten du.

Azkenik, Irantzu Pastor hiru urtez Baztango udalean turismo tekni-

kari bezala lanean aritua da.

laz tenore beretsuan Hazitik hoziek XXI. mendeko nekazaritza Baztanen mahaingurua egin zuten, hortaz, oraingoa,

aitzinekoaren segidan heldu da, helburua izanik Baztango tokiko ekonomia bulkatzea, betiere, bailarako eragileen arteko elkarlanean oinarriturik.

# ferreteria Quevedo

TXERRI HILTZEAN  
ERABILTZEKO TRESNAK



Santiago 31 · ELIZONDO · Tfnoa: 948 580 234 · Faxa: 948 581 210

## ZUGARRAMURDI



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Sorginak etxerako itzulian.

**KULTURA** → SEI HILABETE ETA GERO

# Sorginen Museoko pertsonaiak Berarat bueltan

Ignacio Larra eskultore beratarrak eginak dira eta

### Margari eta Koro

Sei hilabetez, pertsonai berezi batzuk bizi izan dira Sorginen Museoan: Bi haur, irule bat, sukaldatzen ari zen sorgin bat, preso zen andre bat, eta argiontzi bat zuen bertze andre bat.

Panpin hauek giro berezia paratu dute museo xoko batzuetan, bai tamainan baita itxuran, arras errealak baitira, eta bapatean egiazko pertsonak zirela iduri baitzuen. Zugarramurdiko historioaren bisai izan dira.

Baina beren sasoina bete ondotik, orain "etx-

era" itzuli dira, Berako eskultorea den Ignacio Larrak eginak zituen, eta orain harat itzuli dira. Garraioa ez zen batere erraza izan, arras figura hauskorak direlako, baina kasu aunitz emanez, panpinak osorik eta osasuntsu, ailegatu ziren beren etxerat.

### Sorgin haizeak Logroñon

Sorgin haizeak antzerki taldeak hiru emaldi eskeini ditu 2015 urte honetan. Horietako bi Katalunia aldean izan ziren, eta azkenekoa gan den azaroaren 7an Logroñon.

Azkeneko hau guztiz sinbolikoa izan zen, due la 405 urte eta egun horretan berean Logroñon epaituak izan baitziren



UTZITAKO ARGAZKIA

### Urrezko Ezteiak

Socorro Indaburu eta Pepe Irigoienek 50 urte ezkondurik bete zituzten azaroaren 13an. Azaroaren 14an (larunbata) beren seme, bilobak eta gainerako 60 familia-rekin bildu ziren besta eder batean ospatzeko.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

1610 urteko gertakarien oroimenez Logroñon jarrita dagoen plakan atera zuten argazki hau antzerki taldekoek.

gure herritarrak. Gainera, antzezlan eskaini zen karrika, epaiketa egin zen karrikatik arras hurbil zen.

Biharamunean "Oroi-

menaren parkea" bisitatu zuten, non 2010 urtean hamaika zugarondo landatu ziren, surat kondenatuak izan ziren hameka lagun

oroimenez. Aldi honetan, zugarren ondoan, Mikel Laboaren "Haize hegoa" kantaturik oroi-men tiki bat egin zitzaiz-

GIZARTEA → MUNDUKO LEHEN GERLAREN BUKAERA

## Belgikako agintariek parte hartu dute armistizioaren ekitaldian

Egunotan erakusketa zabalik da Larreko gelan

**Franck DOLOSOR**

Duela ehun urte, gerla giroan bizi ziren Senpere, Ipar Euskal Herria, Frantzia eta Europaren parte handi bat. Duela 97 urte munduko lehen gerla hazilaren 11an burutu zela gogoratu dute berriki gure herrian ere. Hilero oroitariaren aintzinean eta bizirik diren Senpereko hiru auzapez ohien ondoan, Pierre Marie Nousbaum gaurko agintari gorenak azpimarratu zuen gerla denboran gertatu zena ez dela sekulan ahanztzi behar eta denen betebeharra eta ardura dela historiaren parte hori gogoratzea. Aurtengo

omenaldia berezia izan zen Belgikako zenbait herritar Senperen izan baitziren, hauen artean Godzée herriko auzapeza. Duela 100 urte senperatar bat hil zen Charleroi ondoan den herri horretan: 22 urteko Philippe Maya. Bere hilobia han dago beti sorterritik mila kilometrotan. Senperatar gazte horrek gatazka odoltsuan galdu zuen bizia: mila lagun zendu eta hiru mila kolpatu ziren! Orduko hilak eta biktima guztiak gogoan izan zituzten. Senpereko hamarnaka gazte hil ziren, Ipar Euskal Herrian sei milako bat. Zuberoan bakarrik 22.000 biztanle ziren orduan eta horietatik mila hil ziren suan. Gerla ez dela ahanztzi behar eta oroimenarekin bakea eraiki behar dela azpimarratu zen Senperen



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Armistizioaren ekitaldia eta Larreko kultur guneko erakusketa.

bezala herri guzietan egin ziren ekitaldietan.

Orduko gertakariak hobeki ezagutzeko *Culture et Patrimoine* elkarrekin erakusketa aurkezten du egun hauetan Larreko kultur gunean. Gerla denborako tresnak, agiriak eta dominez gain hortaz ari diren komiki ainitz ikus liteke. Gainerat, Beñat Darrigues Senpereko okinak lubakietan eta suan zebiltzan gudariak orduan jaten zuten ogi beltza prestatu du. Ogi beltz hori jatekoaren oinarria zen eta kontserbatzeko

*chicoré* delakoa erabiltzen zuten. Auxtin Zamorak liburutto bat plazaratuko du senperatarrek gerlarekin izan zuten loturez.

Duela mende bat Ipar Euskal Herriko agintari eta prentsa gehienak gerlaren aldekoak ziren baina kontrako ahotsak ere entzun ziren. Intsumiso gehienak Iparraldean izan ziren. Mutiko eta gizon gazte ainitz hegoalderat pasa ziren eta urte luzeetan ezin izan zuten sorterrietarat itzuli, hauen artean Amaiurren plantatu zen Michel Dar-

gaitz bertsulari saratarra. Bertzalde, Matxin Irabola bertsulari senperatarrek gerlaren kontrako bertsu argigarri hauek bota zituen...

*Ene izpirituan hasten naiz pentsatzen  
Gizonaren bizia zer gisetan den  
Egia ez da errex esplikatzeko  
Hainitz justizia baitute ezagutzen  
Gu penez higitzen  
Elgarren xahutzen  
Bat bertzia hiltzen  
Odolo isurtzen  
Bertze hainitz urrundik irriz asetzen.*

### PILOTARI ETA SUHILTZAILE GAZTEEN HERIOTZAK PENHA HAUNDIA HEDATU DU SENPERTARREN BIHOTZETAN

#### Ez adiorik Didier eta Arnaud

**Franck DOLOSOR**

Erien sakramendua izan eta, azken hantza eman du berriki Didier Lacroix pilotariak penha handia hedatuz senperatar gehienek bihotzetan. 41 urteko plaza gizonak barkatzen ez duen gaitz latzaren kontra borrokatu behar izan du azken hila beteetan. Azken agurraren egunean herriko eliza tanpez bete zen, gutitan ikusten den bezala. Izan da hori otoi, kantu eta omenaldi suhar Didier zenaren ibilbide laburregia goraiatzeko. Laborari se-

meak sari ainitz irabazi zuen esku huskan. Erreboteari, eta neurri tikiagoan erregiari ere lotu zen Didier.

Egun batzuk geroago Arnaud Lacarra 34 urteko suhiltzaile eta herriko kontseiluko kideak bere buruaz bertze egin zuen samina hedatuz senperatarren artean. Su hiltzaile lagunek zuzendu zuten hiletan, gogoratu zuten gazte gazterik suhiltzaile izateko gogoia zuela Arnaud-k aita zenaren urratsak segitzeko. Aski laster ospe ona erdietsi zuen eta lagun gi-

roa herriko etxearen zerbitzuko eman du elkarrean saila bere gain hartuz. Duela 3 urte ezkondu zen eta bi alabaren aita zen. Ehorzketa egunean alargunak hitza hartu zuen senar zendu berriaz mintzatzeko gutitan ikusten den indarrarekin. Itxuraz Arnaud gazteak dena zuen zoriontsu izateko baina sekula sendatu ez ziren zauriei ezin omen zien buru egin... batzuek bizi nahi eta bertze batzuek joan nahi pentsatu dute senperatar ainitzek bi gertakari latz hauen ondotik.

## URDAZUBI

GIZARTEA → JARDUERA ZABALTZEA ARRISKUTSUA IZAN DAITEKEELA IRITZI DIO

# Dantxarineko Merkatari Elkarteak harrobiaren ustiaketa jasangarriaren alde

Alkerdiko lezearen ondare garrantzitsua errespetatuz burutu behar dela uste du

## TTIPI-TTAPA

Dantxarineko merkataritza, hostalaritza eta zerbitzu elkarteak Alkerdiko harrobian burutzen diren explotazio lan eta jardueren gainean adierazpena argitaratu eman du. Elkarteak, «natura inguruari loturiko herri garapen tipologia eta egitura errespetatzea garrantzitsu eta estrategikotzat» jotzen du, «modu jasangarrian, inguruko natura eta kultur baliabideak balioan jarriz eta errespetatuz, balio horiekin bat egiten duten turismoaren eta merkataritzaren sustapen eta kudeaketa bultzatuz».

Harrobiko explotazioa eta jarduerak lanak Alkerdiko lezeen kultura,



TESTUA ETA ARGAZKIA: INIGO IMAZ

Ana Isasi Nafarroako Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuko kontseilaria eta zenbait kide Urdazubin izan ziren azaroaren 18an. Bertan herriko Alkerdiko lezeak ezagutzeko parada izan zuen Herriko Etxeko ordezkariekin batera. Jesus Sesma eta Jesus Garcia arkeologoen lezeotako grabatuei buruzko azalpenak eman zizkieten bertaratu ziren Gobernu kideei, Santiago Villares alkateari, Inigo Imaz eta Anastasia Vidart zinegotziei nahiz SOS Alkerdiko kide Miren Oiarzabal eta Inaki Alzuieti. Jarraian, harrobia erakutsi zitzaion kontseilariari eta Zelaietako lezeak jasandako kalteak ikusi ahal izan zituzten. Txangoa amaitzeko, kontseilariari ikaburuak lezeak erakutsi zizkieten.

natura, arkeologia, arte eta historia ondare garrantzitsua errespetatuz burutu behar direla iritzi dio Elkarteak, «bai harrobiaren eta lezeen barrenean zein inguruko babes gune guztian». Zentzu honetan, esplotazio jarduerak za-

baltzeak «aipatu ondare garrantzitsuarentzat arriskutsua izateaz gain, zabaltze horrek Urdazubi-Dantxarinea inguru guztia eragin garrantzitsuak sortzen ditu, pisu handiko kamioien trafikoa handitzeagatik bertara iriste-

ko errepideetan eta hortik eratorritako arriskuak areagotuz, bide segurtasunari eraginak sortuz, leherketa jarduerak handitzeagatik soinuz ingurugiro eraginak sortuz, eta azken finean garapen jasangarri estrategia oztotuz».

## DANTXARINEAN

Pintxoaren Hamabostaldia bukatuko da asteburuan

## TTIPI-TTAPA

Pintxoaren 2. hamabostaldia egiten ari dira azaroaren 15etik 28ra. Dantxarineko bentetako jatetxeetan pintxoak eskaintzen ari dira eta sariak ere izanen dira, pintxo onenaren bozketan parte hartzen dutenendako.

Sukaldari profesionalak aukeratuak dute pintxo onena. Baina bezeroek ere badute hitza eta parte hartzen duten artean Mutrikuko Haitzalde Landa-Turismoan asteburua zozketatuko da. Urdax-Urdazubiko Facebook orrialdean botoa emanez gero jatetxe irabazleak bi pertsonentzako bazkaria irabazteko aukera ere izanen da.

**JATETXEA-ERRETEGIA**  
**MONTXO**  
**OSTATUA · TABAKO-DENDA**

Egunero irekia  
 09:00etatik  
 02:30era

Dantxarineatik  
 2 km.tara

PLATER KONBINATUAK · OGITARTEKOAK  
 MENUAK ENKARGUZ · PINTXOAK  
 ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA · URDAZUBI | 948 599 039  
 montxoblanco@gmail.com

**MARTIKO**

**ABENDUKO ORDUTEGIA**  
 Astelehenetik - ortziralerara  
 08:00etatik 17:00etara

Abenduaren 3an 08:00etatik 17:00etara  
 Abenduaren 12an 09:00etatik 14:00etara  
 Abenduaren 19an 9:00etatik 14:00etara

**Martiko** Zalain s/g. 31780 Bera. Nafarroa  
 Tel: 948 625 016 Fax: 948 625 036  
 www.martiko.com · martiko@martiko.com

**MENDIALDE**  
 Jatetxea

T. 948 453 060 · AMAIUR  
 www.mendialdea.com

**ARMUA JATETXEA**

T. 948 599 131  
 Zugarramurdiko errep. 3 km  
 URDAZUBI

# HELBIDEA ALDATZEN DUGU! HEMENDIK AURRERA,

EZTEGARA PASEALEKUA,  
30ean AURKITUKO GAITUZU  
GURE TELEFONOAK, BETIKOAK:  
**948 630 451** ETA **948 630 641**, FAXA

**BERAN, 13 URTEZ BIDAIRIK ONENAK  
PREZIO ONENETAN ESKAINIZ**



**Halcon**  [bidaiak.com](http://bidaiak.com)

## SARA

GIZARTEA → ABENDUAREN 5EAN ETA 6AN

# Telethon elkartasun egunetarako hainbat ekitaldi prestatu dituzte

Pastizen salmenta, mendi ateraldia, krakada, bazkaria...

## Joana GERENDIAIN

Abendua hastapenean Telethonaren kariatara ekitaldi ezberdinak antolatuak dira Saran. Abenduaren 5ean, larunbatarekin, goizeko 10etan plazan pastizak salduko dira, arratsaldeko 2etan hitzordua San Inazioko lepoan emana da Larrunera tre-

nez igaiteko (10 euro), itzulera oinez egiteko aukera bada. Arratsaldeko 4:30ean Pikassaria jatetxean krakada bat antolatua da, 5 euroko parte hartzea galdegin da. Igandean, abenduaren 6an, Lur Berri gelan bazkari bat egingen da, 15 euroko menu batekin: zopa, axoa, gasna, pastiza, kafea, arnoa. Erreserbatzeko 05.59.54.20.14 zenbakira deitu behar da.

## Eguberriko merkatua

Urtero bezala San Jo-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Telethonarentzat mobilizatuko da berriz herria abenduaren 5 eta 6an.

sepe eskolako gurasoek beraien eguberriko merkatua antolatzen dute, bertan beraien sortutako objektu, bitxi, dekorazio, jostailu eta beretze saltzen dituzte. Merkatua plazan egingen da, goizeko 9etatik goiti, aterpe azpian, pastiza eta edari beroak salduko dira.

## Ikastaroa

Herriko Etxeko Edantegian kartoizko altzariak egiteko ikastaro bat antolatua da abendua-

ren 6an. Egun horretan, diskak biltzeko, girgilak ezartzeko edo apaintzeko kartoinezko kubo bat egiten ikasten ahal da. Ikastaroa goizeko 10:30ean hasiko da eguerdi eta erdi arte eta arratsaldean 2etatik 6ak arte. Izen emaita ostatuan berean egiten ahal da edo 0610602389 zenbakira deituz, 45 euroko parte hartzea galdetua da, tokiak murriztuak dira. Xehetasun gehiagorentzat [www.lili-binette.fr](http://www.lili-binette.fr)

web gunera joaten ahal da. Bertalde bere kreazio batzuk ikusgai izanen dira ostatuko gibelako gelan azaroaren 28tik abenduaren 5era.

## Kirol emaitzak

Azaroaren 7an, eskubaloian 18 urte azpiko Urtxintxek 28-10 galdu dute Senpereren kontra, eta Seniorrek ere galdu 31-26 Madiranen kontra.

Egun berean errugbiariek 23-7 galdu dute Arrangoitzeren kontra.



GRUPO TANATORIO TALDEA  
**IRACHE**  
MALDAERREKA S.L

**24 ORDUKO TELEFONOA**  
948581959 | 948637404

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA) | DONEZTEBE (SAN PEDRO)  
ELIZONDO (BAZTANDARRA) | ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -

- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -



Gure besta herrikoietan  
janzteko behar duzun  
guztia!



### BASERRITAR JANTZIAK

- ♥ Jantzi osoak  
Emakumeak | Gizonak | Haurrek
- ♥ Jantzi solteak  
Gonak | Gaitzak | Blusak  
Gerruntzeak | Mantalak | Zapatak...

ABENDUKO ORDUTEGIA: 10:00-13:00 | 16:00-20:00  
Larunbat arratsaldetan irekia

## EZKONTZAK

**Ekaitz Badiola Piquer** eta **Amaia Garrido de la Fuente**, Donostia eta Lesakakoa, azaroaren 7an, Lesakan.  
**Hector Fernandez Morais** eta **Estibaliz Argilea Arretxe**, Donostiakoak, azaroaren 7an Etxalarren.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*

## SORTZEAK


**Joan Olaizola Anso**, Goizuetakoa, urriaren 26an.  
**Arane Iriarte Bengotxea**, Etxalarkoa, urriaren 31n.  
**Maddi Elizalde Telletxea**, Zubietakoa, azaroaren 8an.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*

Rekordatorioak egiten ditugu



Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua



Koskontako b., 7 | LESAKA | 948 635 458

## HERIOTZAK

**Natividad Bielsa Munarriz**, Elizondokoa, azaroaren 5ean, 91 urte.  
**José Iglesias Fernández**, Berakoa, azaroaren 3an, 85 urte.  
**Santos Ordoki Agirre**, Arantzakoa, azaroaren 13an, 89 urte.  
**Pakita Lusarreta Iturri**, Leitzakoa, azaroaren 13an, 67 urte.  
**Maria Socorro Sagues Otondo**, Arizkungoa, azaroaren 14an, 89 urte.  
**Prudencio Altzuart Etxaide**, Arraiozkoa, azaroaren 16an, 78 urte.  
**Joset Sancinena**, Sarakoa, azaroaren 6an, 87 urte.  
**Juanito Leiza Ducaz**, Arantzakoa, azaroaren 17an, 83 urte.  
**Dominica Zugarramurdi Zoziaia**, Doneztebekoa, azaroaren 18an, 98 urte.



### Vidal MALDA SANSIÑENA


Beran, 2014ko abenduaren 3an hila

#### I. URTEMUGA

*Argi bat itzali da hemen lurrean, berri bat biztu da han zeru ederrean gure oroimenean izanen zara betiko ez agurrik, ez adiorik, gero arte baizik.*

#### SENIDE ETA ILOBAK

Urtemugako meza abenduaren 6an, 10:00etan Berako San Esteban elizan.




*Ilargiraño  
ta buelta  
matte zattugu*

### Xabi TELLETXEA ETXEBERRIA

Igantzi, 2010eko azaroaren 28an

V. URTEURRENA

Rekordatorioak  
egiten ditugu



Koskontako Bidea, 7-1  
LESAKA | 948635458

**PILOTA** → EUSKAL HERRIKO AFIZIONATU MAILAN

# Elite mailako lau eta erdiko finalerdian da Jon Olaizola

Urbietan usurbildarraren kontra ariko da abenduaren 4an

**TTIPI-TTAPA** |

Jon Olaizola lesakarrak Euskadiko lau eta erdiko elite txapelketako finalerdietarako txartela lortu zuen azaroaren 13an Aretan. Oiarpeko Andoni Ugaldere kontrako partida 12-0 galtzen hasi zen lesakarra, baina hemezortzina berdindu eta 22-19 irabaztea lortu zuen. Orain, abenduaren 4an jokatu du finalerdia Olaizolak Usurbilgo Xabier Urbietaren kontra.

Euskadiko lau eta erdiko elite txapelketako koadroko bertze alde-



UTZITAKO ARGAZKIA

Jon Olaizola lesakarra eta Ugalde oiartzuarra, final laurdenetako partida hasi baino lehen.

an, final laurdenetako partida bat Errekako Joanes Bakaikoa eta Bortzirietako Ugaitz Elizalde jokatzekoa zuten azaroaren 20an eta bertzea, Amurrioko Aitzol Dorronsorok eta Atxarteko Aitor Arabio-

urrutiak hilaren 27an. Final nagusia abenduaren 11n jokatu da.

Bertze aldetik, DV txapelketako bi partida jokatu zituzten azaroaren 13an Berako Eztegarra pilotalekuan. Promesas mailan, Zubiza-

rreta eta Iñigo Martinez beratarrak 22-14 irabazi zieten Etxeberria eta Medinari. Nagusien kategorian, Arteaga eta Murgiondok 22 eta 4 irabazi zieten Ander Errandonea beratarrari eta Galartzari.

**ABENDUAREN 2AN**

Kirol Merezimendua sarituko du Gobernuak

**TTIPI-TTAPA**

2015eko Kirol Merezimenduen 17 Zilarrezko Domina eta lau Aipamen Berezi emango ditu Nafarroako Gobernuak abenduaren 2an. Eskualdeko hiru lagunek jasoko dituzte Zilarrezko Dominak: Tiburtzio Arraztoak, Laxoa sustatzen aritzeagatik 30 urte baino gehiago. Pilota-modalitate horren gainean zenbait liburu argitaratu izana ere baloratu dute; Amaia Azpirozek, Leitza eta Nafarroako Futbol Federazioan 27 urtez futbola sustatzen aritzeagatik; eta Luis Irazo-ki, Berako Gure Txokoa klubeko futbola sustatzen 27 urtez egindako lanagatik.

**MOTORRA** → ARTIGA MOTOR SPORT TAILERRA

# Rallyetarako autoak prestatzen dituzte Lesakan

Asfaltarako eta lur gaineko probetarako bina auto dituzte nahi duenari errentan uzteko

**TTIPI-TTAPA** | **LESAKA**

Lesakako Agiñako Igoeran laguntzaile izateagatik ezagutzera eman da Artiga Motor eskuderia. Otsango industriadeko tailerrean, rally eta gisako auto lasterketetarako lau ibilgailu (bi asfaltarako eta bi lur gaineko probetara-



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Xabi Tapia eta Asier Lekuona, Otsangoko tallerrean prestatzen dituzten autoekin.

ko) prestatu, konpondu eta errentan ematen dituzte, nahi duen guztia errentzat. Motor munduan ezagun diren Asier Lekuona eta Iñaki Ubiria lesakarrekin batera, Ultzamako Miguel Irazoz dira eskuderia ho-

netako bazkideak eta mekanika lanetan, Berako Xabi Tapia eta Lesakako Julen Astibia eta Imanol Arozamena ari dira.

Kirol garestia izaki, Ubiria eta M. Irazoz eskabazioak, Desguaces

Vidaurreta eta Big Mat Menditxuri enpresen babesa ere badute. Urtebete daramate lanean eta Asier Lekuonak aipatu digunez, «19 lasterketa egin ditugu, pilotu eta kotxe ezberdinekin».



HERRI KIROLA → SOKATIRA TXAPELKETA

# Nafarroako txapeldun erraz suertatu da Beti Gazte

600 kiloko hiru jardunaldietan jaun eta jabe izan dira lesakarrak

**TTIPI-TTAPA | LESAKA**

Nafarroako goma gaineko sokatira txapelketako hirugarren eta hondar jardunaldia jokatu dute azaroaren 15ean Aldatzeko pilotalekuan. Gizonezkoen 600 kiloko kategorian,

Tafallan eta Berriozarko bi lehenbiziko jardunaldietan bezalaxe, Lesakako Beti Gaztek irabazi zituen tiraldi guztiak eta honenbertzez, txapela jantzi zuen, zortzikoa honekin: Lander Landiribar (Amaiur), Jon Silveira (Lesaka), Julen Palenzuela (Lesaka), Ander Mitxelena (Igantzi), Beñardo Iantzi (Lesaka), Iñigo Altzugarai (Lesaka), Xuban Larretxea (Lesaka) eta Estefan Mitxelena (Ezpele-



UTZITAKO ARGAZKIA

Orain Euskadiko launakako txapelketan ariko da Beti Gazte.

ta). Entrenatzailea: Pasqual Taberna (Lesaka).

Bigarren posturako lehian, Berriozar nagusitu zitzaion Txantreari. Seinakako talde mistoei dagokienez Berriozarrek irabazi du txapela, Txantrea eta Kaskalluetaren aitzinetik.

**EUSKADIKOIA ETA MUNDUKOIA**

Behin Nafarroan jokatu den txapel baka-

rra bereganatuta, Euskadiko launakako eta zortzinakako txapelketan aritzekoa da Beti Gazte. Azaroaren 28tik aitzinera, 300 kiloko kategorian lehiatuko da, Euskadiko 4x4 sokatira txapelketan. Azaroaren 28an Anoetan (Gipuzkoa) izanen da lehen jardunaldia, abenduaren 5ean Artzi-niegan (Araba) bigarre-na eta abenduaren 12an

Ibarran (Gipuzkoa) hirugarrena eta azkena. Gero, abenduaren 19tik aitzinera jokatu den Euskadiko zortzinakako txapelketako lau kategoriatan ariko dira. Beti ere, denboraldiko helburu nagusia prestatzen ari da Beti Gazte, otsailaren 18tik 21era Holandako Volendam hirian jokatu den Munduko goma gaineko sokatira txapelketa, hain zuzen.

AIZKORA → AZAROAREN 13AN DONEZTEBEKO FERIAN

# Aitor Senosinek irabazi du Nafarroako 2. mailakoa

Asier Pellejero aresoarrak ere lortu du lehen mailara igotzea

**TTIPI-TTAPA | DONEZTEBE**

Nafarroako bigarren mailako aizkora txapelketaren finala eta lehen mailako arpanajautsiera kanporaketa jokatu ziren azaroaren 13an Doneztebeko ferien baitan, Ezkurra pilotalekuan. Aizkolari txapelketan, pronostikoak bete eta Olagueko Aitor Senosiain erraz nagusitu

zen. Bi kanaerdiko, bi 60 ontzako eta oinbiko bat mozteko 17 minutu eta 59 segundo behar izan zituen. Asier Pellejero aresoarra bigarren izan zen (18.57). Biak lehen mailan ariko dira heldu den urtean.

Aresoarrak baino lau segundo gehiago behar izan zituen Eneko Saralegi leitzarrak (19.01). Laugarren postua Etxarri Aranatzeko Goizeder Beltzak eskuratu zuen (19.37) eta bosgarrena Dorraoko Ibai Resanok (19.57).

Lehen mailako arpa-

na jautsiera kanporaketa ere jokatu zen. Bate-tik, Esteban eta Martin Pikabea (Gerendiain) aritu ziren, aurtengo lehen Mailako Arpana Txapelketan azkena sailkaturiko bikotea. Bertetik, Adrian Ber-ruezo (Ibero) eta Alberto Oteiza (Larrageta). Hauek ezin izan zuten parte hartu txapelketan, lesio bat zela medio eta Doneztebeko aukera aprobetxatu zuten. Etxandajarritako kanaerdiko enborrari 14 epai eta zutik jarritako kanaerdikoari 4 epai egiteko



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Lehen mailan ariko da estreinekoz Aresoko Asier Pellejero.

8 minutu eta 29 segundo behar izan zituzten eta Pikabea anaiek 10 minutu eta 38 segundo. Beraz, Oteiza eta Ber-ruezok mailari eutsi diote eta Pikabeatarrek bigarren mailan aritu behar harko dute heldu den urtean.

Txapelketatik kanpo, sei emakume aritu ziren aizkoran euren trebezia

erakutsiz. Bikote bakoitzak lau enbor moztu zituen. Iturengo Maika Ariztegi eta Beintza-Labaiengo Iruene Izkue izan ziren bizkorrenak (13.09), Aresoko Itxaso Onsalo eta Tolosako Alazne Etxaburua bigarren (13.59) eta Berako Amaia Garcia eta Nerea Sorondo hirugarren (14.56).

## azaroak 26 - abenduak 10

Informazioa bidaltzeko: [info@ttipi.eu](mailto:info@ttipi.eu) edo 948 63 54 58

## Entzunaldia



BERA | 2015.11.29

**Baratzeko kantu eta kontuak Errekondo eta Mendizabalekin**

Ertz eta Bidazik elkarlanean prestatu dute 'Baratzeko kantutegia'. 10:00etatik aurrera herriko baratzeetan barna eginen den saio berezia.

## Musika



ITUREN | 2015.12.06

**Doinu kubatar eta euskaldunen fusioa oholtza gainean**

La Jodedera taldearen zuzeneko emanaldiaz gozatzeko aukera izanen da Iturengo kultur egunen baitan. Herriko ostatuan gaueko 11etatik aitzinera.

## Bertsolaritza



IGANTZI | 2015.12.08

**Sagardo frexkoa edan, ikasi eta bertsoak entzuteko aukera**

Bi bertsolari, enologo bat eta txotxeko sagardo frexkoa dira *Bertxotx* emanaldiaren osagaiak. 18:30etik aitzinera, eginen dute opil jatearekin batera.

BERA

**Zine gaualdia**

**Azaroaren 27an.** Kultur Etxean 22:00etan. Oskar Alegriak zuzenduta.

ARANTZA

**'Lilja 4-Ever'**

**Azaroaren 28an,** 18:00etan Baskulan.

LEITZA

**'White God'**

**Abenduaren 4 eta 6an.** ostiralean 22:30ean eta igandean 19:30ean.

'Amama'

**Abenduaren 9 eta 11an,** ostiralean 22:30ean eta igandean 19:30ean.

**Ikuskizunak**

LEITZA

**'Lau-aro' jaialdi-ikuskizuna**

**Azaroaren 27an,** 22:00etan zinean.

BERA

**'Züek heben' ikus-entzunezkoa**

**Azaroaren 28an,** 22:00etan, Kultur Etxean.

IGANTZI

**'Kontu eta kantu'**

**Abenduaren 6an,** 16:30ean Baratzondon, ipuin eta bertsoak, Fernando Anbus-tegiren eskutik.

**Musika.**

DONEZTEBE

**Mendi eta Falsezko abesbatzak kantuan**

**Azaroaren 28an,** 20:00etan elizan.

ITUREN

**La jodedera taldea zuzenean**

**Azaroaren 28an,** 20:00etan.

**Erakusketak**

ELIZONDO

**'Itsaspeko bihotza'**

**Azaroaren 23tik abenduaren 2ra.** Liburutegian.

ELIZONDO

**'Munduko herriak'**

**Azaroaren 23tik abenduaren 2ra.** Arizkunenean.

**Tailerrak**

ELIZONDO

**Abxikimendu tailerra**

**Abenduaren 4, 16 eta 23an,** 10:30etik 12:30era Arizkunenean 0-6 urte arteko gurasoei zuzendua.

ELIZONDO

**Jolas eta jostailuen tailerra**

**Abenduaren 9an,** 17:00etik 19:00etara Arizkunenean, Dindaia Fundazioaren eskutik.

**Antzerkia**

IRURITA

**'Datorren urtean hobeto'**

**Azaroaren 29an,** Gizarte Bilgunean 19:00etan.

LESAKA

**Keinu leihoak zikloa**

**Abenduaren 4an,** 22:00etan Arranon *Adarretatik zintzilik* (Gilkitxaro taldea).  
**Abenduaren 5ean,** 20:00etan Harriondonan *Talaka* (Mairu Antzerki Tailerra)  
**Abenduaren 6an,** 18:00etan Harriondonan *Monamu Teatre* (Bartzelona/Lesaka).

IGANTZI

**'Koka kola eta barea'**

**Abenduaren 7an,** Baratzondon 20:30ean.

ITUREN

**'Putinen guardasola'**

**Abenduaren 6an,** 19:00etan.

**Hitzaldiak**

ARANTZA

**'Bizi baratzea' liburuaz**

**Azaroaren 27an.** Jakoba Errekondo hizlari, 19:00etan Baskulan.

LEITZA

**'Dementzia duen pertsonarekin elkarrizketa'**

**Abenduaren 1ean,** 16:00etatik 18:00etara Leitzako Udaletxean. Aintzane Mariezkurrenaren eskutik. AFA-Nek antolatua.

BERA

**'Bizi baratzea' liburuaz**

**Azaroaren 29a.** Jakoba Errekondo hizlari.

**Zinea**

GOIZUETA

**'Amama'**

**Azaroaren 27an,** 19:00etan Ganbaran.

## PROPOSAMENA

ESKUALDEA

**Euskararen eguneko ospakizunak**

Mahaiaren bueltan bildu, lasterka egin, jolasean aritu... euskararen eguna ospatzeko hamaika proposamen ditugu eskualdean. Azaroaren 28an, herri lasterketa, hamaiketakoa eta zozketa antolatu dituzte Arantzan eta egun osoko besta Areson. Elizondon abenduaren 3an eginen dituzte ekitaldiak, besta eta aldarria lotuz, *Euskaraz bizi nahi* dutela adieraziz.



## Bertsolaritza

ITUREN

**Alaia Martin eta Jokin Uranga kantuan**

**Azaroaren 20an,**  
Umore Ona Elkartean  
21:00etan.

## Azokak

LESAKA

**Udazkeneko feriak**

**Azaroaren 25 eta 26an**

GOIZUETA

**Artisau, nekazaritza etaazienda feria**

**Azaroaren 28an,**  
informazio gehiago  
49.orrialdean.

ELIZONDO

**Baztango artisauen azoka**

**Abenduaren 5ean,**  
plazan.

SARA

**Pastiza salmenta Telethonen alde**

**Abenduaren 5ean,**  
goizeko 10etan.

## Mendi-ateraldiak

LEITZA

**Leitza kaxkoz kaxko**

**Azaroaren 28an**  
Plazaola eta Rezola arteko bidea eta **abenduaren 19an** Rezola eta Kortekoborda artekoa.

BAZTAN

**Amaiur-Aritzakun-Amaiur**

**Azaroaren 29an**  
08:00etan abiatuta,  
(Amaiur-Luroko ateka-lruin-Aritzakun-Katena- Wasinton-Urlegi-Luroko ateka-Amaiur). Baztango Mendigoizaleek antolatuta.

Ekitaldi gehiagoren berri izateko, begiratu: **erran.eus** (agenda)

## ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

**Liburua**



**Patata, patata!**

**AMURIZA, MIREN**

Elkar-Katxiporreta, 2015

Tider portutik pasatu da eskolatik etxera bidean. Nagusitzean lemazaina izan nahi luke, Afrikara itsasontzi batean itzultzeko. Tider Saharako da eta herri-mina du. Pirritx, Porrotx eta Marimototsen laguntza ezinbestekoa izango da gure artean arrotz sentitu ez eta pozik egoteko.

**Musika**



**Aurri gara**

**IZAKI GARDENAK**

Elkar, 2015

Jon Basagurenen kantak, zerbaitengatik, esanahi eta indar berezi bat dutela ohartu gara aspalditik. Konposizioen kalitateaz gain, taldean lortzen duten interpretazio mailak ere harritu egin gaitu hasiera-hasieratik. Taldearen bigarren disko luzea dugu honakoa, *Aurri gara* izeneko hau. Hats eta indarrez beteriko kantuak ditugu, nortasun berezkoak, ameslariak eta telurikoak era berean, urratzaileak eta samurrak batera, bizirik diren ametsen tankerakoak..

**Internet**



**SOINUMAPA.NET**

Euskal Herriko soinuen mapa

**SOINUMAPA.NET**

Soinu mapa elkarlanean gauzatzen den sare egitasmo irekia da. Fonografia edo gure inguruko hotsak grabatzeko artea oinarritzat hartuz, landa-grabaketak erakutsi, kontsultatu eta elkartrukatu nahi dituzte. Webgune honetan Euskal Herrian zehar egindako hainbat soinu grabaketa entzun litezke, toki bakoitzaren errealitateari eta izaerari buruz informazioa ematen dutenak. Nahi duen orok egin ditzake ekarpenak, mapa hau osatzen joateko. Gainera, edukiak Creative Commons lizentziapean daudenez elkartruketa bultzatzen da. Webgune-grabaketak maparen bidez kontsulta daitezke, baina baita atalen bidez edo etiketak erabiliz ere.

## Nire aukera



**Iker GOROSTERRAZU**  
Bertsozale elkarteko irakaslea

**«Bertsolaritza afizio izatetik ofizio izatera pasatzea ametsa izan da»**

Iturendar «gazte umoretsua» da Iker Gorosterrazu. «Irakurtzea, pailan aritzea, mendira joatea, dantzatzea...» gusatzen bazaio ere, bertsolaritza du «dudik gabe, afizio nagusi». Ttikitatik, Bittor Elizagoienen iloba izaki, finaletara joateak bertsoetarako grina piztuta, hamalau urtetan hasi zen bertso eskolan. Osaba ez ezik, Estitxu Arozena, lehen irakaslea, «erreferente» izan da bere bertsolaritza ibilbidean. Egun, hogeita bortz urterekin, afizioa ofizio bihurtuta, lau urte daramatza Bertsozale Elkartean lanean, «baja bat betetzeko hasi nintzen, orduetik Baztan, Bortziri, Mallerrekan... ibili naiz; azken bi urteetan Iruñerrian nago». Bertsoetan «Alazne Untxalo eta Egoitz anaiarekin» ibiltzen omen da «gustura», eta ohol gainean baino, «mahai inguruko giroa lasaiago eta polittagoa izaten da». Baina hor ere aunitan izaten dira «mar-mar-mar kritikatzan duten lagunak, horiek paratuko nituzke gustura bertsoetan», erran digu irriz. Orain artean bezala, «ametsak errealitate bihurtzen segitzea», du amets.

**ETXEBIZITZAK**  
salgai

**ORONAZ-MUGAIRI.** Pisuua salgai, 90 m<sup>2</sup>ko azalerakoa. Etxe mogleztatua, berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 3 logela, egongela, sukaldia eta bainugela ditu. 90.000 euro negoziagarriak. Eta 60 m<sup>2</sup>ko bajera ere salgai 15.000 eurotan. ☎948 585036.

**ANZABAL**  
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

**IPARRALDE eta BIDASOA alderdian**

- Eskaintzagarriak baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

**URDAZUBI**

- Etxe berri bat salgai, mogleztatua. 2000 m<sup>2</sup>ko lursailarekin.

**DONEZTEBE**

- **Aukera:** 102 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukaldia mogleztatua eta 17 m<sup>2</sup>ko trastelekua.

Tel. 948 580 804  
Faxa. 948 581459  
anzabal@anzabal.com

**BERA.** Kantton Berri karrikan 77 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. 2 logela, bainugela 1, egongela eta sukaldia despentsarekin. Igogailua eta buelta osoan 55.92 m<sup>2</sup>ko terraza rekin. Berritu beharra. ☎948 637359.



**ELIZONDO.** Akulegi karrikan 2 logelako pisua salgai. Prezioa: 65.000 euro. ☎646 774117.

**MERKATU TTIKIA**

948 63 54 58

info@ttipi.eus edo erran.eus

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA  
**ARGAZKIAREKIN** JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€**  
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta  
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz  
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

**BERA. Aparteko familia bakarreko txaleta**

6.600m<sup>2</sup>-ko partzela.  
Lorategi- zona fruta-arbolekin,  
lursail zelaia. 230m<sup>2</sup>-ko azalera  
erabilgarria. Egongela, sukaldia  
portxerako sarbidearekin,  
ikuztegia, 4 logela, 3 bainugela,  
terraza eta garajea.



Tel. Inmo Baztango: 948 630 552 | 620 028 625

**LESACA.** Pisuua salgai, herri erdian, eguzkitsua eta oso ondo kokatua. Hall, sukaldia, arropa zintzilikatzeko tokia, 2 logela, egongela handia, komuna eta trastelekua ditu. Aukeran garaje plaza, beste trasteleku batekin. Igogailua garajeraino. Sarbideetan oztoporik gabe. 186.000 eurotan. ☎657 708866.



**ERATSUN.** 2 borda salgai, bere lurrekin. Goizez deitu. ☎620 676886.

**IGANTZI.** Herriko plazan dagoen eraikina saldu nahi da. Beheko aldean ostatua eta bi pisu ditu goian, bakoitza 110m<sup>2</sup>koa. Terraza ederra du, 200 m<sup>2</sup>koa. Prezio oso onean. Interesa baduzu deitu eta solastuko dugu. ☎640 583280.

**DONEZTEBE.** Pisuua salgai, 120 m<sup>2</sup>koa. Erdi mogleztatua, pisu ederra, argia, 4 logela, 2 komun, egongela ederra, sukaldia, balkoia eta 24 m<sup>2</sup>ko ganbara. ☎650 779128 / ☎647 810145

**ELIZONDO.** Txokoton berritzeko dagoen pisua salgai. 3. pisua igogailurik gabe. 70 m<sup>2</sup>koa, berogailuarekin. 50.000 euro. ☎666 815032.

**LEITZA.** Patxi Arrazola kalean pisua salgai bajearekin. 3 logela, komuna, jangela, sukaldia eta bi balkoi. ☎667 675463.

**BERA.** Legia karrikan 58 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. 2. solairuan, hegoalderantz orientatua. Logela bat, egongela, sukaldia ekipatua eta komuna ditu. Hari musikala eta kafetakzioarekin. Igogailua eta ko-

txearendako plaza bat du. ☎645 700549.

**ETXEBIZITZAK**  
errentan emateko

**BERA.** Legia karrikan pisua errentan ematen da. 3 logela, 2 komun eta trastelekuarekin. ☎678 363398/ ☎678 305250.

**BERA.** Logelak eta apartamentua errentan emateko. ☎654 385363.

**URDAZUBI.** Duplexa errentan eman nahi da. 2 logela, sukalde-jangela ederra eta bi bainugela rekin. ☎659 849570.

**URDAZUBI.** Logela bateko apartamentua errentan eman nahi da. ☎659 849570.

**Almuñecar hirian,** Granadako kosta tropikalean, etxebizitza errentan emateko abenduan (hilabete osoan). Pertsona bat edo birezta egokia. Hondartzako lehen lerroan dago, igeurlekua eta bista ederrak. Guztiz ekipatua, aire egokituarekin. ☎658 943702

**ETXEBIZITZAK**  
errentan hartzeko

**LESACA** edo inguruan etxebizitza errentan hartu nahi da. ☎642 993776.

Bortzirietan **baserri edo borda** bat errentan hartuko nuke, 2 hektarea inguruko lur eremuarekin. ☎655 028593

**Baztan eta inguruko zonaldean** errentan

**BASERRIA**

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**  
(azaroaren 6tik 13ra bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

**Zerrikumea**  
(19 kilo): 28 €

**Zerri gizena**  
1,029 € kiloak.

**Zerramak:**  
0,380 € Kg/bizirik.

**BEHIKIA**

**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak:** €/kg. Kanal

**Extra** 4,06

**1.koa** 3,90

**2.koa** 3,62

**Urruxak:** €/kg. Kanal

**Extra** 4,24

**1.koa** 3,97

**2.koa** 3,80

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze tikiak**  
(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizoak:**

urruxak 150,00

idixkoak 228,00

**Aretze nabarrak:**

urruxak 140,00

idixkoak 180,00

**Zaldikoak:** €/k

Sortuberriak: 3,00/3,10

Zaldi-behorrak: 1,84/2,04

**Bildotsak:** €/k

6-8 kilokoak: 7,30/8,30

8-10 kilokoak: 7,10/7,30

hartzeko pisu bila nabil. Altzaririk gabe baldin badago ere berdin zait. Mesedez pisuren bat alokairuan baduzue deitu. ☎646 330956

**ETXEBIZITZAK**  
konpartitzeko

**Elizondo eta Donezteben** lanean hasi berri den neska bat naiz eta logela/pisua bilatzen dut konpartitzeko edota errentan hartzeko luzerako. ☎689 765896.

**GARAJEAK/LOKALA**  
errentan emateko

**DONEZTEBE.** Herri sarreran dagoen 165 m<sup>2</sup>ko lokal komertziala errentan eman edo saldu nahi da erretiroagatik. Hagitz argitsua da, erakusleihu ederrekin. Interesatuak deitu konpromisorik gabe ☎630 510918.



**GARAJEAK/LOKALA**  
errentan hartzeko

**Lesaka edo inguruan** arte eta artisautza tailerra montatzeko garaje edo loka bila gabilta. Handi xamarra eta errentan hartzeko. ☎645 013213.

**LANA**  
eskariak

**Bera edo Lesaka** inguruan lan egiteko emakumea eskaintzen da. Etxeko lanak egin, adineko jendea zaindu, bu-

legoak garbitu... ☎948 630914/ ☎678 903294.

Emakumea eskaintzen da **garbiketa lanak** egiteko: etxeak, bulegoak, portalak... interesatuak deitu faborez ☎677 217590.

**Frantses ez eta euskaraz hitz egiten duen emakumea** lan bila dabil. Bulego lanetan, salmentan, zerbitzari eta hotelako garbiketan esperientzia duena. Lan eskaintzaren bat izanez gero deitu mesedez. ☎687 832844.

**17 urteko neska** prest dago lan egiteko, haurrak zaintzen, dendaren batean... **Malerreka aldean.** ☎650 080499.

**LANA**  
eskaintzak

**URDAZUBI.** Montxo ostatu-jatetxean sukaldari laguntzailea behar da. Esperientziarekin. ☎948 599039.

**LESAKA.** Atxaspi hotelean garbitzailea behar dugu. Interesatuak deitu ☎948 637536/647 456611 edo idatzi hotela@atxaspi.com-era.

**Ibardin asteburuetan** lan egiteko zerbitzaria behar da. Frantsesa jakitea kontuan hartuko da. ☎948 630311ra.

**Kamio gidaria** behar da ibilbide internazional eta nazionalerako. ☎609 405265.

**URDAZUBI.** Montxo ostatu-jatetxean sukaldari laguntzailea behar da ostiral, larunbat eta igandeetarako. ☎948 599039.

**MOTORRAK**  
salgai

**Automóviles IMOBA**  
Okasioko ibilgailuen salerosketa

**FORD CMAX DIESELA**  
2012 URTEKOA - 11.990€

**FORD FOCUS FAMILIARRA DIESELA**  
2011 URTEKOA - 10.990€

Irun-Iruña errepidea  
N-121-A 63.km **BERA**  
948 630 750 | 648 231 361  
[www.automovilesimoba.com](http://www.automovilesimoba.com)

**Scania kamioia** salgai bere tarjeta nazionalarekin. ☎630 886916.

**Volkswagen Starlite** 1.9 TDI salgai. 102 zaldi. 2008 urtekoa. 167.000 km, 4 ate, 7 plaza. Atzeko aldeko eserlekuak ohe bihurtzen dira eta erdikoek buelta ematen dute. Mahai tolesgarria eta berogailu estatikoa ditu. 17.500 eurotan. ☎647 054140.



**Renault Clio 1.9 GTD** kotxea salgai. 161.500 km eta ITVa berriki pasa du. 1.700 eurotan. ☎687 832 844



**ANIMALIAK**  
salgai

**LESAKA.** Collie arrazako bortz zakurkume salgai. Xuri-beltzak, gurasoak oso langileak. ☎626 782835.



**Arantzan behorra** salgai, zuria eta gorria. 10 urte, 7 hilabeteko ernari, mantsoa eta sila eta lerarekin ibilia. Lurra harrotzen ere aritua eta mendia ohitua dago. ☎666 802174.



**ANIMALIAK**  
oparitzeko

**LEITZA.** Bi hilabeteko artzain zakurra oparitzeko. ☎948 510224.

**LESAKA.** Katakumeak opari, hagitz politak. ☎628 572273.

**DENETARIK**  
salgai

**Sei altzairuzko fregadera** salgai, haundiak, 1,5 metro luze, forma borobildunarekin. ☎948 585036.



**DONEZTEBE.** Hiru sukalde ditugu salgai. Diseinu modernoa, Silestone enzimareekin, kalitate handikoak. Ez eza zu galdu aukera bikain hau! Informazio gehiagorako ☎630 510918.



**ORONOZ.** Egurra xehe-tua salgai. Pagoa eta haritza. Etxera eramannen da. ☎676 242520.



**SUNBILLA.** Su egurra salgai, lotean edo xehe-tua ☎659 867287/ ☎699 461394.

**DENETARIK**  
bertzelakoak

**BERA.** Martxan dagoen negozioa errentan eman nahi da. ☎605 864355.

Kontuan izan hurrengo bi aldizkariak **abenduaren 10**ean eta **urtarrilaren 14**an jasoko dituzuela etxeetan.

Iragarkiak jartzeko azken eguna **azaroaren 30**a da.



hemen agertu nahi duzu?

egin zure erosketa [erran.eus](http://erran.eus) en

**IRAGARKIA**  
2 aldizkaritan interneten

**8**  
EURO

# urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,36€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa; 4) www.ttipi.net bitartez



Aitexi FEDEK urriaren 30ean eta ELAIAK azaroan 7an urteak bete zituzten, aunitz urtez!! Urko eta familia guztiaren partetik.



BEÑAT TELLETXEA SEINEK bortz urte beteko ditu abenduaren 1ean. Zorionak familiaren partez



Etxalarko IRANTZU OTXOTEXO BENGOTXEAK azaroaren 11n 4 urte bete ditu. Zorionak famili guztiaren partez



Berako NAHIA ENDARAK 6 urte beteko ditu azaroaren 28an. Zorionak atta, ama, Alain eta Berako familia guztiaren partetik



Goizuetako RAMON APEZETXEA ZUBIRIK 85 urte beteko ditu azaroaren 9an. Hau sasoi! Zorionak zure emazte, seme-alaba eta biloben partetik. Earki ospatuko du! Muxu haundi bat, zuri gustatzen zizun bezala.



Oronozko UNAI TORRES ALEMANEK 11 urte bete zituen azaroaren 23an. Aunitz urtez eta muxu handi bat Oronozko eta Lesakako familiaren partetik.



Azaroaren 22an urte bete ditu ANDER OSTOLAIZEK aunitz urtez Lesakako mutil guapoanari! Bestetan elkar ikusiko dugu, 25 Paulaner zuretzat! Aitzinera beti!



Luis eta ALAITZ IBARRA atta-alabak urteak beteko dituzte azaroaren 25ean eta 17an. Aunitz urtez Arantza eta Sunbillako familia guztiaren partetik.



ALAITZ IBARRA BEREAU arantzarrak 5 urte bete ditu azaroaren 17an. Aunitz urtez eta 5 muxu etxeko printzesari atta, ama eta Beñaten partetik.



INTZA UGALDE PIKABEA arantzarrak 3 urte beteko ditu abenduaren 5ean. Aunitz urtez eta hiru muxu potolo gure moñoñari familia guztiaren partetik.



Etxalarko ALAZNEK 5 urte beteko ditu azaroaren 26an. Zorionak familiaren eta bereziki zure ahizpa Iraitz eta Xabat eta Arane lehengusuen partetik.



Zorionak UGAITZ! Ongi-pasa eguna. 7 muxu erraldi aitaxo, amatxo eta Arkaitzen partez.



Baionako MARGARI OLAIZOLARI zorionak azaroaren 20an urteak beteko dituelako. Aunitz urtez Urdazubiko familiaren partez eta bereziki Pablo Irazoki Olaizolaren partetik.



Igantzioko IZARO URTXEGIK, etxeko sorgin tikiak, 2 urte beteko ditu azaroaren 29an. Zorionak eta muxu haundi haundi bat familia guztiaren eta bereziki Unax anaiaren partez!!!



Anizko ENAUT ZELAIETA AZKARATEK 2 urte beteko ditu azaroaren 29an. Zorionak bihurritxo eta muxu potolo bat familia guztiaren partetik.



Igantzioko PATXI LOIARTE PETRICORENAK 13 urte beteko ditu azaroaren 27an. Zorionak etxeko en partez pilotari!



Zubietako AIMAR ELIZALDE TELLETXEAK azaroaren 24an 3 urte beteko ditu. Zorionak familia guztiaren partetik bereziki Janire, Maddi, aitaxo eta amatxoren partez muxu potolo bat.



Lesakako LEIRE PORTU TELLETXEAK hogeita hama urte bete ditu azaroaren 20an. Aunitz urtez eta muxu pila-pila, hainbertze maite zaituzten Orti, Lexuri, Elorri eta Aiert seme-alaben partetik.



Lesakako NAROA OTERO TELLETXEAK 3 urte bete ditu azaroaren 20an. Zorionak eta muxu asko Lesakako eta Saldiasako familiaren partez.



Zorionak Zubietako AIMAR eta JANIRE, azaroaren 24 eta abenduaren 6an, 3 eta 4 urte beteko dituzte eta. Zorionak Ezkurra eta Zubietako familiaren partez eta bereziki, Nahia, Enaitz, Maren eta Naroaren partez. Prestatu berendu goxoa!!!

Kontuan izan hurrengo bi aldizkariak **abenduaren 10ean** eta **urtarrilaren 14an** jasoko dituzuela etxeetan. Zorion agurrak jartzeko azken eguna **azaroaren 30a** da.



## hemen agertu nahi duzu?

egin zure erosketa [www.ttipi.net](http://www.ttipi.net) en

argazki soila  
**4**  
EURO

aldizkarian · interneten

argazki bikoitza  
**8**  
EURO



Ez dakizula zer oparitu?

Ikur hau duten komertzioetan  
**OPARI TXARTELA**k  
eskuratzen ahal dituzu

Begiratu aukera hori eskaintzen duten komertzioak aldizkari honetako iragarkietan hemendik aitzinera



**bixkak**  
KIROL ETA MODAKO  
arropa denda

**kattagorria**  
lentzeria mertzeria

**OSIÑA**  
Arropa denda



Abenduan  
igande  
goizetan  
eta jai egunetan  
+  
Urtarrilak 3 egun osoan

Gainera, egun horietan **deskontu bereziak!**

**m**irentxu

Serapio Mugika, 15 • IRUN  
943 618 033

Urdaneta, 12 • ORDIZIA  
943 881 278

[www.mirentxu.net](http://www.mirentxu.net)

Nesken baserritar jantzi beltza osoa  
**39€**

Nesken baserritar jantzi koloreduna osoa  
**49€tik hasita**

Mutilen galtzak **9,95€**

Blusak **12,95€**



*Eguberri  
eta urteberri on!*

Tokilak, manttalak, atorrak,  
abarkak, zapinak, txalekoak ...

0-16 neurriko  
umeen arropak

8-16 urteko  
neska mutikoetan  
berezituak

Bertan eskuz  
egindako  
soinekoak

Bodyak, barruko  
arropa, leotardoak,  
galtzerdiak,  
seaskak, oinetakoak

Name it  
IDO  
Nike  
Xti  
Pangasa  
Condor  
Losan  
Tiffossi  
WSP Kids  
Y-Ciu  
Juliana

**AZAROAREN 25A**  
**EMAKUMEENAKO INDARKERIAREN**  
**AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA**

**INDARKERIA**  
**MATXISTA**  
**GEHIAGORIK**

**EZ**